

**Julene Azpeitia**

**AMANDRIAREN  
ALTZOAN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Amandriaren altzoan*, Julene Azpeitia. Kuliska  
Sorta, 1961.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

# ITZAURREA

Euskal literatura oraindik erdi billutsik degu. Orregaitik ditugu ainbeste aburu euskera lantze kontuan. Batzuen iritziz alako edo olako eretan eta gaietan idatzi bear da, euskera lantzeko. Uste eze, badegula gairen bat neurrizgain landua. Baña, eleiz liburuak badira ere gure izkuntzan geien idatzi diranak, oiek ere gutxiegi ditugula esango nuke. Gai guziak ugariago bear genituzke, ta ez esan iñoiz naikoa degunik. Literatura larregiak eztu erririk iltzen.

Ditugunak ez badira ain onak, errua ezta izkuntzarena, idazlearena baizik. Euskaldunak kultura badu, euskera gauza izango da kulturarako. Ori da konturatu bear gerana, ta bakoitzak bere eratik al duan berezitasunez lotu lanari, sail guztietan ditugun arloen utsunak betetzeko.

Gaurko ontan, gai zaar bat dakarkigu: ipuñak. Erri-ipuñak dira literaturaren aurrenengo kimuak, noski. Erri-ipuñak izan diralako kulturadun izkuntzen literatura oñarri. Sarri, ipuñak aski dira erri baten sikolojiaren bereizkuntza egi-

teko. Beren aberastasunetik neurtu ditzake erri-  
gogoia. Arrigarria da benetan, gure erriak agozko  
literatura orren aberatsa izanik, idazkiz txiroa  
izan bearra. Era guztietako ipuñen jabe gera, ta  
bertan ditugu lenagoko sinismen, kondaira ta  
oituren etorkizunak. Orregaitik, beti gustatu izan  
dira errian orrelako ipuñak; batez ere ongi eratu-  
rik arkitzen diranean. Ta oraingo auek bikain  
tajutuak eskeintzen dizkigu Azpeitia'tar Julene'k.  
Neuri beintzat, amonaren altzo gozoa dakarkida-  
te burura. Gure amonan mundua; orain naizen  
au amiltegi sakon batek etetzen duan mundua.  
Ames bat dirudi aurtzaroko inguru ura esitzen  
duan liburu onek. Ta, ametsa ez al da, gaur ito  
naian gaituan larri-min onetan, amase ematen  
diguna?

Ipuñak, munduko errazetan bezela, ez dute  
muga berezirik, ez len ta ez orain; inguru batzue-  
tan sortuak edo indartuak ere, erriz-erri zabal-  
tzen dira, neurritz ta denboraz, urrutian lausotu-  
rik galdu arteen. Esaera batek dio: gezurra esan  
nuan mendian; ni baño lenago zan errian. Ori  
bedori da ipuñekin gertatzen dana.

Sarri, tokiz aldatuaz, ipuñak ere zerbait aldazten dira. Barandiaran'ek estudiantu duanez, orijasotzen da Euskalerriko askokin. Adibidez: Eren-sugearen ipuñak, Europa'tik aparte, Persia, Japon, Afrika erdi-aldean ta Canada'n billatzen dira; Basojauna, aintziako Greziaz gañera, Estonia, Finlandia, Laponia, Noruega ta abar.

Caro Baroja'k, Euskalerriko Tartalo ta Basojaun jainkokien gertaerak ber-berak, erri-aoz jasoak, helendarren Poliferno'ren bezela arkitu izan ditu; ta Bera-Bidasoa'ko lamien ezalpen batean Ulises ena.

Orregaitik, irakurle, emen arkituko dituzun askori, lenago beste nunbait entzun edo irakurritakoen antza artuko diozu. Batez ere Azkue'n «Euskalerria ren Yakintza» liburu ederretan edo Barandiaran'en «Eusko-Folklore» orrietan baña ez emengoak bezin txukun adierazirik. Aiek erria mintzatzan dan bezelaxe jasoak dituztelako. Ta ipuin auek, egilleak berak zuzenki jasoak izanaren, apainduak dituzu, batez ere umeentzako eran. Badira emen Euskalerritik kanporakoak ere, ta auek beren iturburuak aipatuaz arkituko dituzu.

Gure amona zanak kontatzen zizkigun ipuñak, nork esan, geroago Grimm anaienetan billatu bear genituanik? Zerbait aldatuak baña funtsez berdiñak. Jakiña, Grimm anaiak ere erri-ipuñetan dituzte beren oñarriak. Gure amonak etzekian Grimm anaien berririk; bere gurasoegandik aoz-ao jasoak zituan. Ta, aoz-ao ez-ezik, idatzita-koekin ere beste orren beste gertatu izan da, ta mallaz-malla billatzen dira Esopo'renak, ez gure auzoko Plazentzian bakarrik, baizik Fedro, La Fontain, Iriarte ta Samaniego'n alegietan ere, ta auenak Bizenta Mogel, Iturriaga ta beste euskal idazle batzuetan.

Gregorio Muxika'k Fernando amezketarran ipuñak bildu baño lenagotik ere, gure erriko zaararak diotenez, aren asko ta asko Plazentzia'koltzat zabalduak omen ziran. Berriz, Plazentzia'koltzat, Esopo'renak ere berdin jasotzen dira. Orre-la zabaltzen da, azken gabe, ipuñen katea. Guzti auek jartzen ditut iñork ez dedin artu plajio susmorik.

Azpeitia'tar Julene'renak erria zuzenki dute iturburutzat, ta bere eskuz eztiki apainduak dira. Batez ere, aurrentzako idatziak. Julene'k bere

bizi guzia aurren maixtra igaro du, ta, bere ipuin auetatik konturatuko geran bezela, ongi ezagutzen du umeen mentalidadea. Euskera erreza du, batez ere umeentzako bezelakoa (baita nagusi askok ejenpluztat artzeko bezelakoa ere), apaltasunez egiak baña bizi-biziak.

Erri-miñez, 1949'tik 1952'ra bitartean idatziaz dira Burgos'en maixtra zegoala. Ta, 1954'an, Euskaltzaindiak antolatu zuan ipuin sariketan bigarrenengo gelditu zan. Lenengokoa Aita Felix Bilbao'ren «Ipuin-Barreka» izan zan. Bata bezin bestea on-onak dira, gure artean idatzi ezdiran bezelakoak, batez ere euskeraren aldetik. Bilbao'rena, bizkaieraz degu. Etxeita ta Kirikiño'kin Bizkaiko idazleak eredutzat artuko al dute. Mundu onetan biziak geien balio duala egia bada, berdin esan genezake literatura izkuntzagaitik ere.

Julene'n gatza umeak zaletzekoa da. Bere moldeak orain baño lenagotik zuen euskal literaturan leku berezia. Maiz irakurri ditugu bere idazkiak «Arritokieta» izen-ordezkoakin, ta 1959'an Biarritz'ko Eusko Kulturaren Alde alkar-teak antolatutako aurrentzako ipuin sariketan

bigarren gelditu zan, «Goizeko izarra» ipuin politarekin; ta aurrerago berriz, Euskaltzaindiak eratauta, Azkue'n zuzendaritzan, 1935'ean lenbiziko saria eraman zuan «Osasuna, merketza ta yanarritza» liburuakin.

Bere azkenengo lana Bilbo'n argitaratu dan «Azeri jauna» da; lau ipuindun liburuxka bat. Azpeitia'renak izanarren, bere izen gabe argitaratu dira «Karmel»en ardura pean.

Urri dira euskeraz «Amandriaren altzoen» bezin liburu onak aurrentzat. Geiago esango nuke: oraindik zentzunera sartzeke dauden umeentzat ere euskera traketz ta baldarrean egindako liburuak ikusten ditugula, pedagogiaren funtsik gabe. Nagusiak ere iruntsi eziñiko liburuak dituzte gure aurrak. Emengo garbikeriak ez du akaburik.

Ipuin kontuan beintzat, Julene'k bete digu utsune aundi bat, orain, Gipuzkoako umeak badute non ase. Aurrentzat ez-ezik, nagusientzat ere «Amandriaren altzoan» izango da liburu au, bere oroitzapenen berbirtzalle izango dalako.



Erdu, irakurle maite; sar zaitez ta ixeri zaitez  
amonaren altzo gozoan.

J. San Martín  
Eibar'en, jorrallaren 19'an. 1961

# 1

## PERU ETA MARIYA

Beiñ bizi omen ziran Peru eta Marya.

Peruk egiñ omen zuan txotxezko etxea, eta Mariyak egiñ omen zuan gatzezko etxea.

Euria egin zuanean Mariyaren etxea urtu. Eta sua piztu zutenean Peru'ren etxea erre.

Orra nun gelditu ziran Peru eta Mariya etxe gabe.

Au egia ez ba'zan, sartu deitela kalabazan, eta erten dezala Bitoria'ko plazan.

## 2 TONTOLAPIKO

Gipuzkoa'n, Goyerriko erri baten bizi ziran ama-semeak. Ama alarguna, eta semea aiñ zan zentzun gabea ta buru bakoa, ze, erriko jende guztiak Tontolapiko ipiñi zion ezizena.

Baña amak —gauza jakiña— bere semea besteak bezelakoa zala uste zuan, eta augaitik egun batean Azpeiti'ko azokara bialdu zuan koipe gezaearen billa.

Gure mutikoa juan zan Azpeitira eta erosi zuan liberdi koipe geza, ta dendan eman zioten bezela buru gañean ipiñi, txapela patrikan gorde, eta bere erriruntz asi zan.

Bero aundia zan egun aretan —San Bartolome eguna—; eta gure Tontolapiko burutik bera koipea zeriola, arpegia, belarriak eta alkandora danak koipez beteta zetorren.

Etxera eldu zanean, buru gañean paper puska bat besterik ez zekarren.

Amak esan zion: —Baña, mutill, nun dek ba koipe gezaea?

Ama, buru gañean ekarri det, zuk usulla ekartzzen dezun bezela, eta urtu egiñ zait.

—Ene seme, ontzitxo bat eraman bear uan, eta bideko iturrietan preskatuaz ekarri.

—Bai, ama, urrengoan orrela egingo det bada.

\* \* \*

Beste egun batean, amak bialdu zuan gatz billa. Artu zuan gatza katillu batean eta bideko iturri ta putzu-zulo guztietan sartuaz-sartuaz, gatzik gabe eldu zan etxera. Bidean urtu zitzaion.

\* \* \*

Amak esan zion nola ekarri bear zan gatza, eta urrengo astearte batean Azpeiti'ko azokara bialdu zuan txarrikume bat erostera.

Pañuelo aundi batean batu ta kolkoan sartu zuan txarrikumea, eta bai aberetxo au eta bai bera, naikoa lanekiñ eldu ziran etxera. Mutikoa

arnasik artu ezinda, eta txarrikumea txakur amorratua baña areago aginka.

—Baña, semetxo, txarrikumea, anka batetik sokakiñ lotuta, astiro-astiro ekarri bear uan —esan zion amak.

—Bai, ama, urrengoan ala egingo det ba.

\* \* \*

Eta urrengoan lurrezko lapiko berri bat erostera bialdu zuan amak eta Tontolapiko'k sokatxo bat lotu zion kerten batetik eta lapikoa arrastaka zuala etorri zan. Baña etxeratu baña askoz leenago sokatik, lapiko-kartena bakarrik zeraman. Lapikoa puskatu zan Azpeiti'tik ertenda kilometro erdi bat baño lenago.

\* \* \*

Tontolapiko gizajoaren amak etsi zuan bere semeak buruan argirik ez zuala, eta ez zuan geyago iñoiz ezertara biali.

### 3

## AI NERE MANTELIÑA!

Gipuzkoa'n, Larrabaster izena duan baserri on batean neskatxa eder bat zuten neskame, Mari Iñazi izenduna. Neskatxa egokia, liraña eta dotoria. Dotoria batez ere. Urtean beiñ jasotzen zuan soldata, baña ez zan soldatari begira egoten oi zana soñeko ta oñetako berriak erosteko. Etxeko andreari eskatu oi zion dirua, ta onek aitzaki gabe eman ere bai. Orregaitik ibiltzen zan aiñ dotare.

Egunero Zumaya'ra jun bear izaten zuan esnea saltzera, ta bidean errekatxo bat igaro bear izaten zuan. Soñeko berri bat egitea gogoratu zitzayon egun batean, eta pentsatu zuan manteliña berri batekiñ izango litzakeala egoki soñeko berri ura, eta manteliñ berria erosteko dirua erraz egingo zuala esnari ura boteaz. Egun artatik, errekatxoa igarotzean esneaz bataitu egiten zuan eta uran dirua gorde.

Bear ainbeste diru inguratu zuanean, Zumaya'n erosi zuan manteliña berria, eta Pasku egunean besperetarako jantzi zuan soñeko berria.

Oñetakoak eta manteliña eskuan zituala erten zan bazkalondoan Larrabaster'etik, zapa-tak eta manteliña Zumaya'n jazteko asmoetan baserritarrak egiñ oi duten eran. Arro-arro zijoan gure Mañazi, «nor naiz ni», esanaz, baña, au negargarria, errekatxoa igarotzean, arri batean txirrist egiñ zualako eskuan zerarnan manteliña uretara erori zitzayon, eta errekatxoa azi xamerra zijoalako azkar urrindu zan manteliña eta begien aurretik ezkutatu ere bai.

Mañazi'k negarrari eman zion eta samiñtasunez esan zuan: —Ai nere manteliñ berria! Urak ekarri eta urak eraman.

## 4

# MORROI JUAN ZAN MUTILLARENA

Etxalar'eko etxe batetik morroitzarako etxe on baten billa erten zan mutil bat. Lesaka'ko Mendiburua deritzaion etxe batean sartu zan, an gelditzekotan. Etxeko-andreak aparria maira atera zuanean, morroiak katillu bat baratxuri-salda ipiñi zion aurrean. Añ zegoan beroa eze, mutillak ezin zuan artu, eta: «Beroegia dago» —esan zuan—. Eta etxeko-andreak: «Putz egiok» —erantzun zion.

Urrengo goizean, morroiak erten zuan etxe aretatik eta beste etxe batera Juan zan. Eta an ere berdiñ, baratxuri-salda katilluan eta itz berdiñak: «Beroegia dago». Eta «Putz egiok».

Etxe artatik ere urrengo goizean erten zuan eta Oyartzun'go etxe batera jo zuan lan billa. Etxe onetan ere katillu bete salda ipiñi zioten aurrean, apaitarako, baña morroiak: «beroegia dago» esan zuanean. Etxeko-andreak: «Ebaki



ogia eta egiñ zopak, eta oztuko zaizu» erantzun zion.

—Auxe da etxe ona, pentsatu zuan etxalartarrak, eta antxe gelditu zan morroi. Baita urte asko egiñ ere.

## DONOSTIRA INTZENTZU BILLA

Aizarnazabal'eko erretore jaunak, San Migel egunean, Meza Nagusia bear bezelakoa nai zuan ; ez edozer moduzkoa. San Migelak dira bada Aizarnazabal izena duan Guipuzkoa'ko erri polit bateko pestak.

Au, antziña igarotako gauza da. Zumayatik ekarri bear zituan kanturako gizonak ; bigarren apaiza Aizarnatik, irugarrena Oikina'tik, eta sermoigillea Zarauz'ko praillien Komentutik.

Dana ondo antolatuta zeukalakoan pozik zebillen Erretore jauna, baña pestarako bi egun palta ziralarik oroitu zan intzentsurik ez zuala elizan. Estutu zan Erretore jauna (ez baizan denbora artan ez trenik, ez autobusik, ez olako gauzik ezer ere), baña beriala pentsatu zuan nola egi.

Deitu zion sakristauari eta esan zion: —Iñazio Mari, Donostira jun bear dek eta intzentsua ekarri. Kale Nagusiko Etxebeste'ren dendan erosiko dek. —Bai, jauna.

Iñazio Mari juan zan Donostira eta Etxebes-  
te'neko dendan sartu zanean, bat batean intzen-  
tzuaren izena aztu zitzaion, gizajoari.

—Zuk zer nai zenduan? —dendariak galdetu  
zionatean, ara zer erantzun zuan

—Zera, e..., erri aundietako eleiz-puntzio  
nagusietan nola erabiltzen dute gauza bat eman  
eta kendu, eman eta kendu?

—Eman eta kendu?

—Bai, ara, onelaxe: (eta eskubiko besoa  
ezkerreruntz eta eskubirantz erabiltziaz, adierazi  
zior) tira, eta tati, tira, eta tati.

—A, bai, intzientzua esan nai dezu zuk.

—Bai! bai, orixe; intzientzua.

Eta galdu gabe txapelaren barruan ipiñi zuan  
Iñazio Marik intzientzua pañueluaren muturrian  
korapillo bat eginda eta pozik Juan zan Aizarna-  
zabal'era.

## 6

# AMAR NESKATXA EGURRETAN

Egun batean, Amoroto izena duan Bizkai'ko erri batean, amar neskatxa juan ziran basora egur billa.

Bakoitzak egur-karga eder bana egiñ zute-nean, etxeruntz asi baño len, Kontzesi izena zuan neskatillak galdetu zuan: —Danok emen gaoz, ala? Eta Erruperta izena zuanak erantzun zion: —Ba, kontau zenbat gaozen eta olan jakingo degu. Eta asi zan kontatzen: bat, bi, iru, lau... eta bere burua nola ez bat zuan kontatzen, bederatzi egiten zituan. —Bat palta dogu, nor da? esaten zuan. Eta beste neskatilla batek esan zuan: —Zuk ez dozuz ondo kontatzen. Neuk kontatuko ditut, bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi. (Arek ere ez zuan bere bururik kontatzen).

Berriro ere, beste batek kontatu zituan eta iñork ez zuan norbere bururik kontatzen, eta beti bat palta, eta nor palta zan jakiñ ezin.

—Au da ez-bearra —zioten—; amar lagunek urten degu egurretara, eta bedcratzi baño ez goiaz etxera, Nor ete da palta dana? —Ni, emen nago —zion batek—, Ni be bai —beste batek—. baño nor edo nor palta degu. —Ene, goiazan etxera, gautu baño len, besteren bat paltau ez dakigun.

Eta bakoitzak beren egur-kargak buruan artu eta erriratu ziran. Baña etxeratu baño len alkarri esan zioten, gauza txarrak berez jakiten dirala eta azkar gañera, eta augatik beren etxietan ezer ez esatea erabaki zuten.

Urrengo goizean, Kontzezi'k Erruperta'ri leyo-tik-leyora galde egin zion al zuan ixillen: —Entzun egizu, Erruperta: ezer berri txarrik zabaldu ote da errian?

—Nik ez det ezer entzun.

—Ene, ixilik gauden bada, baño laster jakingo da zerbait, neskatilla gazte baten palta jakitekua da ta.

## 7

# GURE AIZKORA TXIKIA NUN OTE?

Zegama'ko etxe batean gizon gaztea gaxorik oso gaizki zegoan. Eleizakoak eman zizkioten eta sendagilleak itxaropenik ez zegoala esan zuen.

Eleizakoak artu ondorenean auzoko andre bat jua zan gaxoa ikustera. Andre au alargundu-berria zan, eta ara zer esatera jua zan, ia illean zegoan gizonagana:

—Aizu, Joxe Bixente: ez zera ilgo, bala ilko baziñake ere; nere senarrik ez dezu ikusiko, baña ikusiko bazenduke ere, galdetu bear diozu ia nun utzi zuan aizkora txikia, bera il zanetik ezin degula billatu ta

## 8

# DONOSTIRUNTZ, ITXAS EZKERRETIK

Askisu'ko gizon batek Donostira juan bearra izan zuan zerbait egitera. Oiñez juan da etorri egin bear zuan, mendiz-mendi, denbora ayetan ala ibilli bear izaten zan ta, Donostia'n iñoiz ere izan gabea zan, eta len an izandako auzoko gizonak esan zion nundik nora juan bear zuan, eta azkenez esan zion: —Ara, Patxi, emendik Donostira ez daukazu bide galtzerik; nik esan dizutan bezela zuaz, eta itxasoa beti ezkerretik izango dezu.

Patxi'k ekiñ zion bideari, goizean goizetik, eta ondo eldu zan Donaosti'ra. An, bere zeregiña bete zuanean asi zan berriro Askisu'runtz. Eta, sekula alakorik! len juan zan bidea bera zan arren, orai itxasoa eskubitik zeukan. Eta ezkerretik bear. Ala esan zion auzoko Txomin'ek eta. Gañera berak ere ikusi zuan, itxasoa beti eskerretik zualarik nolako ederki jo zuan Donostiara. Ez zekian, Patxi gizajoak nola erten larritasun

aretatik eta estu zegoan. Alako batean, bekokia eskuakin jota, esan zuan: —Emen etziok besterik, *aida* bearrean *ezi*, eta buelta osoa bere buruari eman eta atzeraka-atzeraka, etorri zan Donosti'tik Askisu'raño. Baña beintzat, itxasoa beti ezkerretik zualarik.



# 9

## EGUTEGI EDO KALENDARIORIK EZ ZEUKAN APAIZA

Mendeja'ko Erretore jaunak ez zuan egutegirik. Ez eta bear izanik ere noski, nere irakurleak ikusiko duten bezela

Garizuma Santua asi zanean, ganbaran ipiñi zituan 50 patata erreskadan. Lelengoa zan kin-kuagesima igandea, eta 50 garrena Pazko igandea. Abek biak patata aundiak ziran. Gero ipiñi zituan seitik-seira beste patata txiki batzuek eta orra Garizumako kalendarioa egiña. Egunero, patata bat kendu bear zuan neskameak, eta onela zekian apaiz jaunak zein egunetan zeuden. Eta oso ondo zeraman garizumako barauen kontua.

Baña egun batean, neskamea oso larritua jatxi zan ganbaratik. —Ai, ene don Benardiño, txakurra edo ibilli da nonbait ganbaran, eta patata danak nastuta daude. Orma kontra zegoan

pilotik erdira ekarrita daude asko eta eziñ leike igerri ez zer egun dan eta ez ezer.

Don Benardiño ez zan ordea batere estutu eta erantzun zion: —Emakumea, igerriko degu nola bait, eta artu ezazu arnasa lasayago, gu ildakoan ere astoak errotara juango dira ta.

Egun batzuek igaro ziranean Erretore jaunak esan zion sakristauari: —I, Premiñ, Lekeitiora juan bear dek eta ia an zer egun dan berri ekarri bear dirak.

Sakristaua Lekeitio'tik etorri zanean esan zion Erretoreari: —Jauna, Lekeitio'n gaur Bariku Santu eguna da.

—Lekeitio'n Bariku Santu? Baita Mendeja'n Pazko eguna, beti ezigo gaituk ibilli lekeitiarren atzetik. Aurretik ere noiz edo noiz ibilli bear diagu. Juan torrera, Premiñ, eta jo kanpayak, jo-alian.

# 10

## ZER EGITEN DU TOLOSA'N GARIAK?

Amezketako Pernando oso gizon argia ta burutsua zan; eta bere esaerak gure baserritarren artean asko ibilli oi dira: «Pernando Amezketarrak esan zuan bezela», «Pernando amezketarrari galdetu bear ori», «Pernando amezketarrak emango zion orreri erantzun ederra» eta abar. Ara emen bere erantzun bat.

Egun batean Tolosa'ko azokatik etxera zijoa-la, bidean beste gizon batekiñ topo egin zuan, eta gizon arek galde zion: —Tolosa'tik al zatoz? —Bai.

—Zer egiten du Tolosan gariak? (Au da, zer balio du, edo zer prezio egiñ du?)

Pernando'k ondo zekian zer galdetu zion gizon arek baña serio-serio erantzun zion: —Gariak zer egiten duan Tolosa'n? Beste lekuetan egiten duana: Iriña eta zaya.

## DONOSTIRA URREA SALTZEN

Baita ere askotan entzun izan det, beste batean Fernando amezketarra Donostira juan zala eta Boulevard'eko Urdanpilleta zillartegi ederrean sartu ta an zegoan saltzalleari galdetu ziola:

—Zu altzera emengo nagusia?

—Ez, ni morroia naiz. Zer nai zenduke?

—Berakiñ itz egiñ.

—Laister etorriko da bada; eta exeri zaitez bitartean.

Ordu erdi baño len etorri zan nagusia eta galdetu zion Fernando'ri ia zer nai zuan.

—Jauna, nik jakin nai nuke ollanda arrautza baten tamañuko urre puska batek zer balio ote duan.

Zillartegiko nagusiak pentsatu zuan karlisten gerratian, bat edo batek gordetzeko emandako urre zatiren bat izango zula, edo Amerika'tik indianoren batek ekarritakoa edo... Edozer modutan ere uste izan zuan baserritar arek

zekarren urrearekiñ asko irabasiko zuala., eta sorbaldan joaz, esan zion —Orretzaz, gero itz egingo degu presa gabe eta orai nerekin bazkal-tzera etorri bear dezu. Eta Pernando'k serio-serio erantzun zion: —Bai, jauna, berorrek nai duan bezela.

Zillartegiko nagusiak eraman zuan ba Per-nando bere etxera eta bazkari ederra eman zion. Baita kafe, zigarro puro, eta beste edari on batzuek ere.

Jan-da-edan majo egiñ zutenean dendariak esan zion: —Ia, atera ezazu bada urre puska ori, orai ikusiko degu zenbat balio duan da.

Eta Pernando'k: —Nik ez daukat urrerik.

Zillargilleak aserratuta: —Ez daukazula urre-rik?

—Ez, jauna.

—Zertan etorri zera ba neri ori galdetzera?

—Iñoizko denboran orrelako urre-zati baten jabe egiten ba'naiz edo... jakiteagaitik zer balio-ko leukean.

# 12

## KREDOA ESAN EZAZU

Gure Euskalerrri onetan oraiñ berrogetamar urte inguru. Garizuma Santuan, komunioa egin-dako gizon eta emakume guztiak juan oi ziran «txarteletara».

Txarteletara juatea izaten zan, eleiza nagusi-ko sakristira juan eta Erretore jaunak galdatzen zuan Kristau Ikasbide edo Dotriako gauzari erantzutea. Ondo erantzuten zuanari Erretore jaunak «txartela» ematen zion (papertxo bat izaten zan) eta orrekiñ adierazten zan Kristau Ikasbidea bai zekiala.

Zumaya-ko arrantzale bat juan zan txarteletara, eta Erretoreak esan zion: —Esan zazu Kredo.

Eta arrantzaleak erantzun zion: —Ai, ene, jauna. Kredoak gora-bera aundiak ditu, aundiegiak nere bururako; beiñ il zana, beste beiñ piztu zana, beiñ zeruetara igo zana, urrengo inpernue-tara jatxi zana..., nork, gora-bera oiek, danak buruan euki? Mutriku'n asi eta Ondarrabian

bukatu. Naikoa lan Kredoa ondo dakien arrantza-  
le bat billatzea.

# 13

## JESUKRISTO BEZELA IL NAI DET

Beste ipuiñ batzuetan aittatu detan Pernando amezketar azkenengo gaitzakin zegoan gaxorik. Il bear zuala esan nai det. Oso gaizki zegoan; eleizakoak artuta; kristau ona bezela, bere azken unea laister izango zala siñistuta, Jaungoikoaren arpegia ikusteko bildur gabe.

Untzio Santua eman zion apaizari esan omen zion: —Jauna, sekretarioa eta eskribaua nai nituzke; datozela biak.

Etxeko bat juañ zan billa eta ekarri zituan beriala jaun biak.

Gaxoaren gelan sartu ziranean biak esan zioten era batera: —Zer nai zenduan ba, Pernando?

Eta, Pernando'k erantzun zioten: —Jarri zaitzte nere oge onduan, bat eskerreko aldetik eta bestea eskubiko aldetik.

Esandako bezela jarri zidanean, eskribauak galdetu zion: Zer nai dezu bada, testamentua egitea edo...?



—Ez, erantzun zion Pernando'k. Nik nai deta-  
na da Jesukristo bezela lapur biren erdian iltzea.

# 14

## ZER DA BEKATXA?

«Lizarribar» zan Zumaya'ko baserririk onenetariko. Etxe aundi, zabal, ederra, lur aundiak eta errazak, gaztaindi, ta sagasti ugariak.

Baña «Lizarribar»ko gizona... Gipuzkoa guztian ez zegoan ark bezelako bizimodua zeraman baserritarrik, ez kaletarrik. Beti azokatik-azokara, periatik-periara, «nun da nere gogoia eta an da nere .zankoa» esaerak dion bezela; beiñ Elgoibar'en, beiñ Azpeitia'n, gaur Tolosa'n eta biar Ernani'n, nai Markitia'n, Euskalerrian ez zan «Lizarribar»ko Paustiño'k ikusi gabeko aizkorajokurik, idi-probarik, arri-jasotzerik, pelota-partitulurik. Errietako ostatu danetan ezagutzen zuten; jan-edanean aundia bai zan! Bere pentsamentu guztia auxe zan: jan-edana; ondo jan eta ondo edan.

Onelako etxeko jaunakiñ «Lizarribar» atzera-ka zijoan. Bai ba, Paustiño geyenean etxetik kanpora, eta lana egiteko Mikela Antoni ta umeak

bakarrik. Lenengotan morroia bai zuten baña gero morroirik ere ez.

Onela gauzak, Garizuma Santuan Paustiño beste guztiak bezela txarteletan jun zan. Sakristi guztia gizon da emakumez beterik zegoala, Erretore jaunak galdetu zion —Zer da gula? (Bikario jaunak nonbait ta lotsatzen ote zan edo ikusi nai zuan).

Baña Paustiño'k, batere lotsa gabe, Bikarioak galdera aotik atera zuanerako, erantzun zion:  
—Eta, zer da inbidia?

**GURE TXARRIEN ODOLKIAK**

Ispaster'ko baserri baten alaba tentel bat zuten Bizkaya'n tentela esaten diote, buruan argi gutxi izanik beti nor beren iritzia egiñ nai dutenari.

Ama gaxorik zegoan eta txarria il bear zuten, eta amak esaten zion: —Bonipazi, zoyaz Kertrudixenera, gaur txarria il biar dabie ta ; eta ikusi egizu odolestek zelan egiten diran, zuk ez daki-zu ta.

Eta Bonipazi'k erantzuten zion: —Ako gauzea; odolestiok egingo doguz, iñoiz egiñ ez dodazan arren.

Eldu zan txarria iltzeko eguna; auzoko lau gizonen artean il zuten eta Bonipazi'k artu zuan ontzi batean odola ta sukaldera eraman eta etorri zan ostera.

Txarria goitik bera ebaki ta iriki zutenean, tripak agertu zitzaizkion bada, eta ala dio Bonipazi'k

—iEne! gure txerriak odolesterik egin bearrik ez. Egiñak daukaz. Lotutzia besterik ez dabe palta. Gure ama estu zan nik ez nebala odolester'ik ondo egingo eta orra bada txarriak berak egiñak daukaz. Baita buskantza ederra be.

**LEN ONDO NENGOAN BAÑA...**

Oyartzun'go mendietan ardi zai zebilela, Bera zadi'ko artzayak, egun baten, arri aundi bat billatu zuan, iñoiz juan gabeko tontor batean. Ardi bik iges egiñ zioten arañño goraño, eta aien atzetik juan zan. Augatik izan zan arri aundi au billatzea. Metro, bat balio geyago luzean, metro erdi baño geyago zabalean, eta lodian berriz, lurretik kanpora bai zituan metro laurden inguru, ta lurpean zerbait sartuta zegoan.

Onelako arri bat mendi tontorrean billatzea ez da arrigarria eta Juan Domingo artzaya ere ez zan arritu. Beste arri geyago ere bai ziran an inguruan. Baña Juan Domingo'k bereala gauza bati erreparatu zion. Arriak letrak zeuzkan. Eta ara zer zioten letra arek:

NERI BUELTA EMATEN DITANA  
ONDO IZANGO DA

Juan Domingo'k pentsatu zuan arri aren azpian urre pilloren bat egongo zala, edo diru mordozka. aundiren bat, eta arriari buelta ematea erabaki zuan.. baña eziñ! Alegiñak egiñ zituan baña eziñ!

Etixeratu zanean, bere aitari esan zion zer billatu zuan. Eta aitak esan zion: —Aizak, gure aitonak esan oi zian Euskalerriko mendiren baten ba'zala ardi narru bat bete ontzako urre, jentillak edo gordea, iñork ez zekien lekuren baten, baña señalia bai zuala eta sakutuaren billa asko ta asko ibilli zirala antziñako denboretan, baña iñork ez zuela billatu, bere billa dabil-tzanak billatzekoa ez dalako; uste gabeen billatzekoa baizik.

—Aita, antxe ote dago ba ontzako urrez betetako ardi narrua? Nik beiñepein ondo ustegabeen billatu det arri ura.

—Seme, dana dala, ariñ ibilli bear diagu, eta ori esan gabe biok juan bear diagu biar, egunan istantzan. Palanka bana erarnango diagu eta kapal-otarra aundia, bada ez bada ere ontzako urriak ekartzeko.

Urrengo goizean, laurak baño len zijoazen Berazadi baserriko aita semeak, mendien gora. Nai baño nekezago eldu ziran mendi tontorrera eta bai ariñ lanean asi ere.

Eta arriari buelta eman ziotenean teste letra batzuek agertu zitzaizkion, auxe ziotenak:

LEN ONDO NENGOAN BAÑA ORAIN OBETOAGO



## MAÑARI'KO BIZIKLETADUNA

Mañaria da Urkiola'ko bidean dagoan Bizkai-ko erri polit bat. Oraiñ esatera nuana ez da ipuiña, Mañari'n gertatua baizik.

Bigarren karlista guda bukatu zanean Mañari'ko mutil gazte bat Somorrostro'ra juan zan burni-minetan lana egitera.

Urte bete igarota etorri zan etxera Gabonak ospatzera eta mañariarrak usai txarra artu zioten. Eleizara sartu ere ez zan egin Gabon jai guztietan, eta minetan ikasitako itz batzuek erderaz sarri esaten zituan. Apaizak esan zuan biraoak zirala Euskalerrian inoiz entzun gabeko itz zikiñak, Inpernutik ertenak. Mendiola'ko familia guztiz —penatuta zegoan, mutilla Somorrostro'tik aiñ aldatua etorri zalako. Amak negar egiten zuan eta aita bekoki illunakin zebillen.

Mutilla jun zan Gabonak igarotakoan, berriz ere lengo lekura lanera, baña irugarren illabetean gaxorik etxeratu zan eta naikoa makalik zegoan, oetik ez zan beintzat jaikitzen.

Ostegun Santu arratzaldean, jende guztia eleizara zijoalarik, agertu zan bide-zabalean bizikleta gañean gizon argal, beltz, itxura txarreko bat, eta gizon batzueri galdetu zien erderaz ia Mendiola etxea zein zan. Mañari'ko biztanleak orduan ez zekiten erderarik eta nekez aditu zioten zer nai zuan, ta Mendiola erakutsi. Gizon ura berriz bizikleta gañean jarri zanean, danak Aitarren egiñ zuten, esanaz: —A, mutil, zer dok tramankulu ori? Ori ez dok parte oneko gauza. Ez dozue ikusi gizona edo dalakua (batek ba yakik zer dan bera) jatxi danian gurdi edo dalako tramankulua zutik eziñ zala egon?

—Alan dok.

—Eta bakarrik sutik egon eziñ dan gauzak gero ganian gixona eruan?

—Eta zelan gero? Tximista baño ariago.

—Nor izan ote dok bera.

—Nor izango dok ba, Mendiola'ko Manueltxo ikustera datorrenen bat. Baña bera be ez dok elizara juten izan da, oraiñ gaxorik... Ene! Inpreñuko diabruren bat edo ez ba'dok. Abadiak esan eban Manueltxu'k esaten ebazan berbak Inpre-

ñutik urtenak ziriala. Ene! (ostera Aitaren egi-  
ñaz) goyazan elexara.

Bizikleta gañean etorri zan gizona Somorros-  
tro' ko katapaz bat izan zan, Manueltxu'n laguna  
edo, eta beriala jua zan atzera bere lekura.  
Baña abadeak jakiñ zuanean gertaera ura, Men-  
diola'ra jua, eta etxekoeri esan zieten: —Ara,  
gauza onak ez dakar gauza txarrik, eta bada ez  
pada ere, etxia bedeinkatzia izango da onena.  
Nik ez dot ikusi, baña ikusi daben danak dioenez,  
Ostegu Santu egunean emen izan dozuen gizon  
ori ez ei da parte onekoa ta.

Eta baita etxea bedeinkatu ere.

# 18

## MAÑARI'TIK

### BUENOS AIRES'ERA

Oraiñ esan bear detana ere ez da ipuiña, lengoa bezelaxe Mañari'n gertatua baizik.

Mañari'ko Azkoitigoikoa izena duan base-rrian, iñorekin itzik egiten ez zuan mutil bat zuten. Etxekoakin bakarrik itz egiten zuan, eta abekiñ ere al zuan gutxiena; itz kontatuak. Umetatik zan orrelakotxia; beti ixil-ixilla ezagutu zuten, eta iñor ez zan arritzen augaitik.

Errira igande ta jayetan bakarrik etortzen zan; eleizara, eta Meza edo besperak bukatutakuan, iñori itzik egiteke, etxerako bidea artzen zuan.

Mañariarrak esaten zuten Joxe Ramun Azkoitigoikoak, aiñ mutil ona ta langillea, izanarren, ez zuala iñoiz andregairik billatuko, itzik ez egi-tearren mutil-zar geldituko zala.

Igande batean ez Mezetara eta ez besperetara, Joxe Ramun ez zan agertu. Uste izan zan gaxorik egongo zala. Baña egun gutxi barru erri

guztian jakiñ zan Joxe Ramun Azkoitigoikoa Amerika'ra Juan zala. Itzik egin gabe antolatu ote ditu ba Amerika'ra Juan al izateko paperak eta gauzak? Zioten Mañari'tarrak.

Bi illabete inguru, Joxe Ramun Azkoitigoikoa Mesa nagusian eleizan zan. Jende guztiak zion: —Ene, Amerika'ra Juan zala ta ara emen ostera Joxe Ramun Azkoitigoikoa. Joxe Ramun, danak entzun arren ixillik zegoan. Apaizak sakristira eramán da galde zion: —Damutu egiñ al zak, Amerik'etara juatia?

—Ez, jauna, ni izan naiz Amerika'n.

—Nungo Amerika'n izan aiz gero i.

—Buenos Aires'en. Ama Birjiiia agostuko egunian eldu zan barkua Buenos Aires'era, eta elurra ari zan «mara-mara». Nere barrurako esan nuan agostuen amabostean elurra onela egiten duanean, zer izango da emen neguan? Eta osterá, Juan nintzan barkuan bertan etorri naiz berriz.

—Baña, mutil, Buenos Aires'en agostuan dek neguen biotza eta Gabonetan uda.

—Bai baña nik ez nekian ori, eta gañera ez nuan iñorekiñ itz egin da... Au esanaz sakristiatik

erten eta Joxe Ramunek jo zuan etxerantz mendian gora.

## NERE JAUN SAN ANTON

Getarian bai omen zan, beste erri askotan izan oi diran bezela, «oñezkorik nai ez, eta zaldizkorik agertu ez» zitzayolako ezkoindu gabe gelditu zan neskazar bat. Errettoleneko Kerbaxi.

Bere denboran neskitxa ederra izandua zan, eta naiz berrogei urte izan, oraindik ez zegoan bazterrera botatzeko moduko emakumea.

Berrogei urte ezkongai bete zituanean, ezkontzeko alegiñak egiten asi zan (ez alperrik! esango dure batzuek) eta batez ere Santuari bederatzi-urrenak eta egiten. Augaitik, arrarzalde guztietan elezara juaten zan irurak inguruan, Jaungoikoaren etxean iñor ez zegoanean.

Kerbaxi'ren kalean bertan bizi zan Sakristaua eta ari kontuan erori zan Kerbaxi'ren eleizarako juan etorriakin. —Zertara juan leikela Kerbaxi arratsalde guztietan, beti iru-iruretan eleizara? Pentsatu zuan, —Laister jakingo degu ba.

Eta egun batean Kerbaxi baño len juan zan eleizara eta Jesus Nazarenuaren altara atzean bere burua ezkutatu zuan.

Getaria'iko eleiza, oso eleiza ederra da eta asko balio duana, au da gotiku meritu aundikoa. Eskubi aldera dago Jesus Nazarenuaren altarea, eta irudi au, gizon bat bezin aundia da, buruan arantzezko koroyakiñ, arpegian bizarra, gerrian soka lodi bat —beste lekuetan irudi au izan oi dan bezelakoa—. Getariarrak maitasun aundia dute Jesus Nazarenuarentzat.

Aurrera begira dago. San Anton'en altarea, getariarrak debozio aundia dioten Santua. Bere egunean pestak izan oi dira Elkano aundiaren errian.

Sakristauak bere burua ezkutatu ta laisterrean, sartu zan eleizan Kerbaxi neskazarra, jarri zan belauniko San Anton'en altara aurrean, eta azi zan bakarrik zegoalakoan, edo San Anton gorra ba'litz bezela bere biotz guztiakin arrena: «Nere Jaun San Anton, senar on bat egidazu», «Nere Jaun San Anton, senar on bat egidazu» — ekiñ, daekiñ— Nere Jaun San Anton...



Sakristauak bost edo sei bider eskaria entzun zionean, bururik agertu gabe esan zion: «Zuretzat ez dago senar onik».

Kerbaxi'k au entzun zuanean, uste izan zuan Jesus Nazarenuak itz egin ziola, eta belauniko zegoan lekutik zirkiñik egin gabe, burua jiratu ta erantzun zion: «Nik ez det berorrekiñ, gure Jaun bizar aundia; nik, gure Jaun San Anton'ekin det».

## 20

# INPERNUKO LENENGO EGUNAK

Altzola'ko baserri batean aita zarra gaxorik zegoan; oso gaizki. Sendagilleak esan zuan, berak ezin leyola ezer egiñ eta apaiza ekartzeko.

Apaiza ekarri zioten eta konpesatu zan eta azkeneko konpesioa izango zala igerririk, aitortu zituan bere pekatu guztiak, eta batez ere bere ondasunak ez zirala bide onekoak, lapurretan egiak baizik. Apaiz jaunak esan zion, lapurretan egindako ontasunak euren jabeari biurtu bearrean aurkitzen zala, Inpernura jua nai ez bazuan Antonio Mari'k —ala zuan gizonak izena— ez zuan nai Inpernura jua eta berialaxe jarri zan gauzak jabeari biurtzera eta egindako kalteak ordaintzera, Kristau Ikasbideak dion bezela.

Apaiza Juan zanean deitu zien bere seme-ala-bei eta esan zien: —Bizi geran etxea ta bere lurrak, nere arrebari kenduak dira, era txarrean auzi bat irabazita. Goyenetxe'ko Erremijiori zor-

tzi milla errial sor dizkiok, eta gañera amar urteko erreituak, paperik egiñ ez gendualako ukatu egiñ nizkion da. Augaitik, datozela Erremigio, eta izeko Prantxixka, eta deitu eskribau jaunari; nik, il baño len, neriak ez diran ontasunak beren jabeei biurtu bear dizkiet eta.

Orduan seme batek esan zion: —Alta, ondo gelditzen gera, beraz, ez etxe eta ez diru. Eta aitak erantzun zion: Seme, ez dago beste biderik, nik ez det Inpernura juan nai ta. Alaba batek: —Aita, zuk zeure animan begiratu, eta zeure kontzientziari, gu ondo lagatziagaitik zeure animarik arren! ez galdu.

Eta ordurarte ixillik egon zan seme zarrenak, etxia beretzat izango zala uste zuanak, esan omen zion: —Aita, Inpernuan ere lenengo egunak izango dira txarrenak, geroago an ere oituko da, noski.

**GERGORIO LANBERRI**

Zestuan baizan zapatari bat, Gergorio Alzeta izena zuana. Bere ogibide edo ofizioa zapataria izan arren, beste zer nai lan asi zituan. Asi diot, bada, denbora gutxi irauten zuan ogibide batekin. Araki izan zan uda batean, beste denbora baten ogigin ere sartu zan, baita karta partitzaile ere, eta abar, eta abar.

Agaitik bere erritarrak Gergorio Lanberri deitzen zioten. Onenbeste lan-bide aldatzea, alpe-rra zalako egiten zuan; langillea izan balitz zapatagintzan zeukan bere bizi modua ateria, orduan Zestuan bera besterik etzan da.

Zapatak konpontzera eramandakoan, oso ondo itz egiñ oi zuan: —Bai, ume, esan amari beriala egingo dizkiotala, datorren asterako izango dituala.

Baña, bai zera! Nor-berak erteten zuanakiñ batean artu zapatak eta arrika botatzen zituan sokondo batera. Zestuarrek, urte betean eramandako oñetako zarrak, tontor aundi batean

euki oi zituan. Norenak ziran ere Gergorio Lanberri ez zuan jakiten. Norberak aukeratu bear, billa juandakoan, eta konpondu gabe etxera eraman bear.

Gergorio Lanberri Zestua'n azpeltu zan nunbait, eta bere familiakiñ Donostira juan zan bizitzera. Bi seme zituan eta ayek oso ondo kolokatu. zituala ta, Donostia'n, Lanberriarrak, oso ondo bizi ziran soñuak izan ziran Zestuan: —Orrela obe, —zioten zestuarrak—, nonbait, bere gustoko lanen bat billatu du Lanberri'k.

Baserri bateko gizonari milla errial zizkion sor Lanberri'k, narrua erosteko edo, ondo itz eginda kenduak, aspaldi baten. Manuel Etxebeste'k —au zan baserriarran izena— Lanberri'ri diru ayek kobratzeko itxaropenak, galduak zituan. Baña Lanberri'tarrak, Donostia'n aiñ ondo bizi zirala, entzun zuanean, igande batean juan zan Donosti'ra, eta Lanberri etxean arrapatu zuan.

Onek oso abegi ona egiñ zion: —Ondo al zerate Zestua'n? Eta zerk zakartzki ba gure etxera? eta onelako leunkeriak esanaz.

—Ara ba, Gergorio, badakizu San Juanetan bost urte emandako milla errialak...

—Bai, ez dizkitzut ukatzen.

—Ia bost urte abetako erreituak barkatzen dizkitzut, baña, milla errialak neuri ere palta egi-ten die bei berri bat erosteko, eta oraiñ baidakit Zestua'n baño lasaiago bizi zeratela ta, atzo, Martiña guriari esan nion: Donostira juan bear det, Gergoro'ri milla errialak eskatzera. Eta Martia'k esan zidan —Bai, gizona, zuaz, eta ekarri itzatzu, bei berria Zumaya'ko perian erosi dezagun. Eta ala etorri naiz ba, denbora ederra ere bai zegoan da.

Lanberri'k serio-serio esan zion: —Manuel, zuk «Aita gurea» jakiñgo dezu ba.

«Aita gurea» jakingo ez det ba!

—Ia, esan ezazu bada.

Eta Etxebeste gizajoa, txapela kenduta, elei-zan ba'lego bezelxe asi zan: —Aita gurea, Zeruetan zaudena, santifikatu izan bedi zure izena, betor gugana zure erregetza, egiñ bedi zure naia, zeruan bezela, lurrean ere... Eta ixildu zan.

Baña Lanberri'k, irri-parreka esan zion:

—Jarrai, Manuel, jarrai.

—...Eman egiguzu gaur, geure eguneroko ogia, eta barkatu egiguzuz gure zorrak, geuk, geure zordunari barkatzen diogun bezela, ez...

Eta orduan Lanberri'k: —Geldi, geldi, Manuel, naikoa da. Zer esan dezun bai aldakizu? «Geuk, geure zordunari *barkatzen diogun bezela*». Eta zeuk, neri, zor dizutana barkatzen ez ba'dirazu, nola nai dezu ba Jaungoikoak zeuri barkatzen?

Eta Manuel Etxebeste gizajoak, berak zor balio baño apalago eriten zan Lanberri'netik, eta oso eleizkoia nola zan bere barrurako esan zuan: —Alde batetik, arrazoia daukala ere esan leike. Alkarreki eskolan, ibilliak geran arren, Lanberri beti izan da nere aldian jakintsu aundia.

## ANDRIAKIÑ ASERRATU NAIZ

Pernando Amezketarrak egun baten, bere etxean bazkeri eskasa izango zala igerri zuan, eta Erretore jaunari etxean bazkaltzea pentsatu zuan, an beintzat obeagoa izango zala ta.

Ara nola atondu zuan bere burua Erretorien etxera konbidatzea. Amaika terdiak inguruan, apaizen etxe aurreruntz orroaka zetorren onela: —Nik egunen batean andre orreri bear ez dan gauzen bat egingo diot. Ezñ neike ni onela bizi. Ara, nik ez dakit zen egiteko zorian nagoan ere, eta abar, eta abar.

Erretore jauna orroa ayek entzun zituanean erten zan leyora eta esan zion: —Zer dezu, gizona? zeure senetik ertenda zabilta gaur ala? Zoroa dirudizu.

—Zer detan? Andriakiñ aserratu naiz eta edozer gauza egiteko eran nago.

—Sartu zaitez barrura, gizona, eta barruan esango dirazu.



Pernando sartu zan apaizan etxean, eta bere artian zion: —Barrura sartu nauk beñepeñ, da beiti barruratu eskero bazkeria seguru diat ordu onetan.

Apaizak esan zion: —Pernando, ez det iñoiz entzun zu emaztiakin etzeranik ondo konpon-tzen.

—Nor konponduko da ba, jauna, ura bezelako emakume batekiñ? Ez-bearren bat egiñ ez deza-dan erten det etxetik, nora nijoan ere ez dakida-la.

—Ondo egiñ dezu, Pernando; neurekiñ baz-kalduko dezu gaur, eta pixka bat baretu arte ez juan etxera.

Amabiak jo zuenean Angelus errezatu zuten biak, eta: —Goazen orai bazkaltzera —esan zuan apaizak.

Jarri ziran mayan eta lenengoz sopa ederra jan zuten, gero eltzekoa (lapikokoa). Pernando'k ez zuan lapikokorik asko jan, (bere artian zion lapikokoa geurian ere bai giñian, ederra gañera, baba gorria, txarri ezurrakiñ egiña; gurian ez dan beste zerbait izango dek emen) emaztearekin

izan zuan aserreak jateko gogua kendu balio bezela.

Eltzekoa jan zutenean, neskameak arkumea ekarri zuan, ontzi aundi baten, baña alde batean zerozen aragi puzka danak eta bestean ezurrak eta patatak, tea neskameak okela zatiak abadearen aurrean, eta ezurrak Fernando'n aurrean zirala ipiñi zuan ontzia.

Abadeak esan zion Fernando'ri: —Obe izan da etxetik iges egitea; zer egingo ziozun bestela andreari ?

—Zer egingo nion? Ara, kazuela oneri egiten diotana, lepua biurtu. Eta au esanaz batera, artu kasuela eta bira erdia eman zion; okela zatiak bere aldetik eta ezurrak apaizen aldetik gelditzen ziralarik. Onetara zeukalako okela zatiak berak artzeko era ohea.

# 23

## NIK, KREDOA ERDERAZ DAKIT

Beizama'n, Garizuma Santuko egun batean, txarteletara jua zan gizon bat. Erriko arakiña zan bera, Martiñ Arruti bere izena.

Apaizak, galdetu zizkion Jaungoikuaren Legeko amar aginduak. Eta bai Martiñ Arrutik ondo esan ere: Lenengoa Jaungoikoa maiteen izatea. Bigarrena Jaungoikoaren izena alperrik aotan ez artzea... eta abar, amarrak erreskada batean, batere zalantza gabe.

Apaizak esan zion: —Ederki esan dituzu Amar Aginduak. Oraiñ esan egizu Kredo.

—Jauna, nik Kredo erderaz dakit.

—Erderaz?

—Bai, jauna.

—Esan zazu, erderaz bada ere.

Eta asten da arakiña:

—Inpinitibo Kreer

Kerundio Kreyendo

Partisipio Kreido.

Yo Kredo, tú Krees, él Kree...

Apaizak parreari eutsi eziñik esan zion: —Ori ez da Kredoa, Martiñ, ori berboa dezu.

Eta Martiñ'ek: —Berboa edo Kredoa, el berbo se isó karne, ta, yo Kredo ta oyek guztiak ondo ikasia naiz ni don Aníbal Moreno eskola maxu Beizaman izan zanean.

## 24

# MAYETZ LUZEA

Mayetza edo Loreilla izan oi da Euskalerriko etxeetan, jateko gauzarik gutxien egon oi dan denbora. Gaztaña ta sagarrak antziñakoak, lursagar, eta baba berriak, oraindik eldu gabiak, baratzako, piper, tomate ta orrelako gauzik ere ez ; itz batean esateko, baserrietan illik eskasena izan oi da loreilla, eder eta alaya dan arren.

Mutriku'ko Errotagaiñ izena zuan baserri ederrean, etxeko-andrea —Matista— oso emakume burutsua eta gobernu aundikoa zan ; Langille utsa, garbia, begiratua eta berakatz atala baño fiñagoa. Ezkontzaz, Errotagañera etorri zanetik, etxeak aurrerakada aundia egiñ zuan.

Neskamea zuen tentel zamarra, baña esandako lanak ondo egiten zitualako, ta soldata txikiakiñ konporme zalako, urtietan zeukaten etxean. Auzoko andrearen batek esan ba'zion: — Matista, aurten lursagar asko dezute, edo babarrun asko, edo lukainka asko egin dituzu; Matista'k erantzun oi zuan:

—A! etorriko da mayetz luzea, danak eramango dituana; badakizu, beiñ mayetza etorri ezkerok, gauza gutxi gelditu oi da etxean da, obe da beti ere, palta izatea baño, sobra izatea.

—Bai ala da.

Neskame Lelantoni onek (inguruan danak Lelantoni deitzen zioten) sarritan entzun zion etxeok-andreak etorriko zala «mayetz luzea, danak eramango zituana»; eta etxeokak Mutriku'ra mezatara Junda, bera bakarrik etxean zegoan igande batean, gizon luze-luze batek atea jo zuan. Eskalea zan. Lelantoni'k «Aita gurea» erresatzeko astirik eman gabe galde zion: —Aizu, zu al zera mayetz luzea?

—Zergaitik galdetzen dirazu ori?

—Gure etxeokandreak dionez, mayetz luzeak bear ditu lukainka ta beste gauza batzuek, eta augaitik galdetzen dizut.

Eskaleak igerri zion neskameari, tentel zamarra zala, ta erantzun zion: —Bai, neu naiz ba.

—Zaude bada, pixka batean, esanaz, sukaldera juan, eta ixegita zegoan urdai zati aundi bat eta lukainka luze bi ekarriaz, esan zion eskaleari:

—Tori, zabaldu zazu sakela, gure etxekoandreak, amaika bider esan du etorriko zerala ta, noiz edo noiz agertu zeranean —esanaz, sartu zizkion sakuan eta... Eskaleak eraman zuan ariñiketa aldapa bera, etxekoak etorri baño len, andik urrutiratzeko!

Etxekoandrea-ta, mezatatik etorri ziranean, eta urdai ta lukainkak eraman zuten bidea jakiñ zutenean, Mutriku'ra juan da mikeletiak erten zuten eskalearen billa, baña... «jun da arrapazak»!!

## SAGUAK ZILLARRA JATEN

Orain esatera nuana ez da Euskalerrian gertatua, beste leku batean baizik.

Gizon bat, ibillaldi luze bat egitera jua bear zua, eta jua baña len auzoko gizonari esan zion —Etxetik eta erritik, urrutira Jua bearrean naiz, denbora asko egiñ bearko det noski kanpotik, eta zillar zati aundi bat gordeko al dirazu zeure etxean, ni etorri bitartean?

—Bai, gizona, ekarri zazu nai dezunean, eta emen billatuko dezu, etortzen zeranean.

Gure gizona jua zan kanpora, ta iru illabete kanpotik eginda etxeratu zanean, Jua zan auzoko etxera, bere zillar pus karen billa, baña auzokoak esan zion: —Ara, ezin neikezu zure zillar zatiak biurtu, saguak jan zitzaidaten da.

—Saguak zillarra jan?

—Bai gizona, zearo Jan ere. Sokondo baten gorde nuan, zu jua ziñanean, eta urrengo egun batean oroitu nintzanerako, dana jana zuten.



Gizonak ez zuen geyago ezer esan, eta auzokoak, oso poz aundiaz, bazkaltzera etortzeko esan zion.

Gizonak, etxetik erten zuanean, ate aurrean, auzokoen seme txikia billatu zuen jolasean, eta bere etxera eraman zuan. Giltzapean ipiñi, eta auzoen etxera biurtu zan bazkaltzera. Auzoa guztiz larritua billatu zuan, semetxoa galdu zitzaizolako, eta beriala galdetu zion:

—Nere semetxoan berririk bai al'dezu? Ikusi al dezu iñon?

—Bai, ikusi det ba; nik emendik erten detanean, arrano batek zeraman egazka, bere mokotik txintxilika, odeyetarantz.

—Arranoak umea eraman? Ezin leiken gauza da ori. Nun ikusi da ba, arranoa, umeak eramaten?

—Saguak, zillar puskek jaten dituzten lekuan, arritzekua alda ba, arranoak mutiltxo bat eramatea?

Auzoak, era batera igerri zion dana gizonari, eta esan zion: —Ar zazu zeure zillarra, eta eka-tzu nere semea.

Eta biak bazkaldu zuten poz aundiarekin:  
batek bere zillar zatien jabe berriro zalako, eta  
besteak bere semea aurkitu zualako.

## 26

# PESETA BIKOA

Askotan aitatu dedan Amezketako Pernando, konpesatzera juan zan bein, eta konpesatzen ari zan bitartean, apaizari, peseta biko atera zion, sotanen patrikaratik.

Zazpigarren Agindura eldu ziranean, Pernando'k esan zion: —Jauna, aitortzen det bein peseta biko bat ostu nuela.

Eta apaizak: —Jabeari biurtu bearrean zera, barkatu al izateko.

Pernando'k peseta biko eskeñiaz: —Ar beza, jauna.

—Ez, neri ez dirazu eman bear, jabean baizik. Eta jabeak artu nai ez ba' du?

—Zuretzat.

Bukatu zuten konpesioa, ta Pernando bankuetara juan da belauniko zegoan.

Biyen bitartean, apaiza konturatu zan, peseta biko palta zuala, eta baita ere Pernando'k artu ziola. Konpesonariotik burua atera, eta, ixil zamar deitu zion: —Pernando!, Pernando! —eta

eskuz adierazten zion, zetorrela berriro konpeso-  
nariora.

Baña Fernando'k, burua jiratuaz erantzun  
zion —Jauna, orko kontuak, or.

## SEKRETARIO JAUNAK TXERRIA IL

Amezqueta'ko Sekretarioak, Gabon aurreko egun batean txerri aundi bat il zuan, eta egun berean deitu zion Fernando'ri eta esan zion: — Aizu, Fernando; zu, gizon argia zera eta gauza bat esan bear didazu. Txerri aundi bat il degu eta neuk, urtearen buruan, odolki ta lukainka ta txerri zari asko artzen ditut, eta ba'dakizu neuk ere oraiñ eman egiñ bear...

—Bai, jauna, artuak emanakin sabore.

—Bai, baña, nik eman gabe pasa nai nuke; neuk artu ditudan etxe danetara bialtzen asten ba'naiz, txerri gabe geldituko naiz ta.

—Ez eman iñori ezer eta kito.

—Bai baña, ez nuke erritarrakiñ gaizki gelditu nai ordea. Orregaitik deitu dizut, eta zuk asmatuko dezula, uste det zerbait, iñori ezer eman gabe danaki adizkide gelditzeko modua.

Eta Fernando'k erantzun zion: —Asmatu ez? Bai, jauna, bai, asmatuko degu. Erraz ala ere.

Ara: oraiñ, berialaxe (goizeko zazpirak ziran) exeki beza txerria soka bategaz, goiko balkoitik, eta egun guztian ala euki, erri guziak ikusi dezan; illuntzian ere ez artu presa aundirik sartzeko, eta zazpirak aldian ixil-ixillik sartu barrura eta gero, txerria txintxilika egon dan lekutik ostu egiñ dutela esan, eta mundu guztiak siñistuko dio. Nola ez bada?

—Aizu, arrazoia daukazu, orrelaxe egingo degu.

—Bai, jauna, bai, ez dauka orretara iñori erregalorik eman bearrik, eta datorren urtean ere, iñork ekartzen dizkion erregaluak artu, eta... aurrera.

Pernando'k esanda bezela txerria ixeki zuten balkoitik, eta egun guztian an egon zan. Biyen bitartean sukaldean odolkiak eta buskantza egi-ten jardun zuten, pozik, iñori ezer eman gabe libratuko zirala ta, Sekretarioen emazea, guztiz sekena bai zen. Al izan ba'zuan tximinitik gora zijoan kea ere gorde egingo zuan, emakume arek. Bere burutazioa izan zan txarria il da iñori ezer eman gabe libratzea.

Ara, ordea, zer gertatu zan. Zazpirak baño lentxoago, Pernando etorri zanbere etxetik, aiztoakin, ebaki zuan soka, ta txarria bizkarrian artu ta iñork ikusi gabe, ta etxekoak ezer entzun gabe bere etxera eraman zuan txerria. Gau illuna zan guztiz. Orduango zazpirak, zazpiretan izaten ziran da, ta ez oraiñ bezela seirak.

Sekretarioanean txerria sartzeko asmoak artu ziranean... txerririk ez... Asi ziran arrantzak, lapurrak eldu zirala ta, txerria eraman zutela, ta orroa batean, baña... txerria palta. Pernando'k txerria etxeratu zuanean, esan zion emazteari: —Aur txikia eraman ezazu zeure aizpa Ana Prantzizka'nera eta ariñ etorri. Emaztea etorri zanerako Pernando'k txerria seaskan ipiñi zuan eta ondo estalduta, sukalde bazterrera eraman da emazteari esan zion: —Zu emen egon ni etorri artean zeazkari eragiñaz eta aurrari kantatuaz. Au esanda Sekretarioan, etxera juan zan. Atetik aurrera igaro baño len, onek esan zion: —Pernando, txerria ostu digute.

Eta Pernando'k serio-serio: —Ederki esaten du, jauna, ederki esaten du. Orrela esaten ba'du siñistuko diote.

—Baña, Pernando, ez naiz txantxetan ari, benetan ari naiz, txerria eraman egin digute.

—Orrela, orrela esan bear du, egia ba'litzake bezelaxe.

Azkenez Sekretarioak esan zion: —Pernando, nik zure etxean sartu erden bat egiñ nai nuke ba. —Sekretarioak pentsatu zuan bera izan ote zan.

—Bai, jauna, bai, berorrek nai duanean, oraiñ bertan nai baldin ba'du. Guazen, baña aguazilla ere bear degu bai dakit zertara dijoan da, Irurak Pernando'n etxera eldu ziranean, andrea zeazkari eragiaz aurrari kantatzen zegoan.

*Nere aurtxo politta  
Zeruan zer berri  
Zeruan berri onak  
Oraiñ eta beti.*

Etxe guztia ikusi zuten, okollu ta ganbara eta zapaia ere bai, baita etxe inguruak ere, bakoitzak parol bana'rekiñ baña txerririk ez zuten aurkitu.

Eta Pernando'k agur egiterakoan Sekretarioari esan zion: —Eta, Don Belantzio jauna, urren-



go txerria iltzen duanean, ez gero neri ezertara-  
ko deitu, ez naiz juango ta.

**AGUR ETXEKOAK!**

Egualdi txarra zan illuntze baten Altzerreka'-ko etxe batean eskale batek atea jo zuan. Txapela erantzi zuan eta «Etxe onetatik erten duen ildakoen animen alde; «Aitagurea...» erresatu zuanean, etxeakoandreak: —Zartu zaitez barrura, esan zion; sutondoan berotzera, aparria emango dizugu, eta gero belar legorren gañean lo egingo dezu. Ikusten danez, etxeakoandre au biotz onekoa zan, Jaungoikoaren izenean, etxez-etxe, eskian zebillena, onela bere etxean artu zuanean. Jaungoikoak ordainduko zion merezi zuan bezela. Berak esan zuan ba Bere izenean emandako, ontzitxo bat bete urik ere, sari gabe ez duala utziko.

Etxeko-andrea, aparria egiten ari zan; lapiko aundi bat bete berakatz sopa, beste lapiko bat bete gaztaña egosi, eta talua ta esnea.

Tximini ondoan makilla batetik ixegita, amabi odolki, eta buskantz aundi bat zeuden. Eskaleak

esan zion: —Ze odolki ederrak; etxe-ko txerrienak noski?

—Bai, ala dira ba. Abek, askenekoak ditugu, ta gure Joxe Mieltxok, amabi apostoluak eta Jaungoikoa, dirala esan zigunean, naikoa parre egin genduan. —Jose Mieltxo sazpi urtedun etxe-ko semetxoa zan—.

Euskeldun onak bezela, maya bedeinkatu., eta «guraso zarren animen aldez, Aitagurea erresatu eta apaldu zuten. Berak jan zuenetik, su ondoan zegoan eskaleari eman ere bai. Apal ondoan, gizonak artua aletu, eta emaztiak ontziak garbitu, ta sukaldea jaso bitartean, Errosarioa errezatu zuten eta ogeratu ziran. Eskaleari —erakutsi zioten, belar legorra zegoan lekua, eta etxea ixiltasunez bete zan.

Biaramon goizean, egun sentian eskalia jaiki, ta juan zan sukaldera ta, amabi odolkiak artu, ta sakuan sartu zituan, eta atea ireki zuanean dea-  
dar egiñ zuan:

—Agur etxe-koak, milla esker; amabi apostoluak neurekin, eta Jaungoikoa zeuekiñ!

Eta etxeoandreak, oetik, erantzun zion: — Agur, eta Jaungoikoa ere bai, Jaungoikoa ere izan dedilla zeurekiñ.

Au entzun zuanean, eskalea sartu berriro sukaldean, artu buskantzaz, sakuan sartu, eta etxetik erten zan, *amabi ipostoluak eta Jaungoikoa* berekin zitularik.

Etxeko andrea sukaldera etorri zanean, aye-neka asi zan, odolkiak eta buskantzaz tximini ondoan ez zitualako arkitu, eta senarrak esan zion: —Zeure baimenakin eraman ditu, emakumea, ark garbi esan du, nola daramazkian. Eta andreak zion: —Au izan da, apostoluen eta Jau-naren izena odolkiari ta buskantzari eman dizkioguzalako. Umeak ori esatea... tira, baña guk, bai dakigu, Jaungoikoa'ren izena orrela ez dala erabilli bear. Eta egia esan zuan andreak.

## MUTRIKU'N IRU SORGIÑ

Antziñako denboretan Mutriku'n bai'zan arrantzale bat Nartxixo Ardantza izena zuana, oso gizon ona, eleizkoia, langillea ta zuzena. Ezkondua zan, baña ez zuan umerik eta bere maitetasun guztiak, emaztean urrengo, bere batela ta itxas tresnak zituan. Mutriku'n ez zan, Nartxixo'n batela bezela zaindutako batelik. Udaberri guztietan pintatzen zuan barru ta kanpo, eta itxasotik legorreratzen zanean, etxera baño len batela ondo garbitu, lanbasaki legortu, arraunak euren lekuan eta abar... Augaitik, eziñ zuan igerri, egun batzuetan, goizean itxasorakoan batela dana ibillia, arraunak trabes, panelak euren lekutik kanpora eta abar billatzen zituanean. baña nor arrayo ibiltzen dala esango zenduke gabero nere batelian?

Eta nola aspertuta zegoan gertaera bakan arekiñ, gau batean, apaldu ondorean, bere bate-lera juan, eta olona zati batekiñ estali, ta tosta-

pean etzan zan. Begiak estali gabe zituan nor etorriko ete zan ikusteko.

Gabeko bederatzia inguruan iru katu aundi agertu ziran, iru lekutatik molla gañera, eta irurak tapa-tapa eskallera jatxi ta salto egin eta sartu ziran, batelean.

—Sekula onelakorik! zion bere barrurako Nartxixo Ardantzak. —Zer ikusi bear ete degu gaur emen !

Iru katuak era batera esan zuten

«Ba'gera ez ba'gera,  
gu, sorgiak gera.  
Plixti, krixti,  
guri begira dagoanak  
ez dezala  
ezer ikusi».

Au esanaz batera iru katuak iru emakume biurtu ziran, da Nartxixok esagutu ere bai: Bata zan Botikarioaren emaztea, bestea Sekretarioarena, eta irugarrena Txirixo kaleko Prudentzi neska-zarra. Eta Nartxixo'k ez zuan geyago ezer ikusi.

Sekretarioaren emazteak esan zuan

—Gaur Montevideo'ra ; uren gañetik nai azpitik ; arraunkada bakoitzean amar milla legua. Aufa!! Esan zuten irurak, eta batela asi zan tximista baño ariñago Amerika'rako bidean. Nartxi-xo gizajua mariatu bearrean zijoan, zer zan ibill-keta ura! ¡Alako estropadarik!

Bederatzi t'erdiatarako eldu ziran Montevideo'ra ta iru emakumeak katu biurtu ziran berri-ro, ta ariñ bateletik erten da irurak leku banatatik juan ziran. Nartxixok au ere ikusi zuan.

Ordu erdi baño lenago jo zuten iru katuak batelera, eta irurak esan zuten:

«Ba'gera, ez ba'gera,  
gu, sorgiak gera.  
Plixti, krixti,  
guri begira dagoanak  
ez dezala  
ezer ikusi».

Iru katuak emakume biurtu ziran eta sekretarioaren emazteak esan zuan: —Orai Mutriku'ra,

itxasoen gañetik nai azpitik: arraunkada bakoitzean amar milla legua. Aufa !!

Eta ekiñ zion batelak len beziñ ariñ, Mutriku' runtz, eta amaika t'erdietarako eldu ere bai. Iurak katu biurtu ziran eta batek esan zuan: —Gure etxean atea itxita ba'dago tximiniatik sartuko naiz. —Baita ni ere.

—Nik katu zuloa zabalik laga det.

—Gabiltzan ariñ amabiak jo baño len, eta iru katuak bakoitza bere aldetik ariñiketan iges egiñ zuten.

Nartxixo'k etxeratu zanean eta emasteari esan Ego-Amerikatik juan da etorri eginda zeterrela, eta nola ta norekiñ juan zan, emazteak esan zion: —Edozelan ere, Erretore jaunari eziñgo diozu ezer esan lengo igandeko sermoian esan zuan pekatu zala sorginkerietan siñistutzea ta.

—Guk egingo degun gauzarik onena ixill-ixillk egotea izango da, erantzun zuan Nartxixo'k.

Andik berrogei egunera jakiñ zan Mutriku'n, Montevideo'n mutrikoar gizon bat ill zala, derrepente edo bat-batean, noski. Pelotaria zan eta Montevideo'n diru asko irabazten ari zan. Pru-



dentxi neskazarra, gaztia zanean pelotariakiñ eskontzeko alegiñak egiñ zituan, baña pelotariak ez zuen nai izan; sorgien itxura artzen ziola esan oi zuan.

Pelotarien eriotzaren zerzeladak Mutrikura eldu ziranean, jakiñ zan zeñ egunetan ill zan. Nartxixo'n batelean iru sorgiñak juan ziran gaba bera izan zan.

# 30

## ZER EMANGO DIOGU AURTZOARI?

Balmaseda'ko Santa Klara komentuko mojak, Gabonetarako kantu berri bat ikasi zuten. Oso politta euren ustez.

Politta izan ezarren, Balmaseda'ko jendeak kanta berria pozik entzungo zuten, euren denbora guztian, Santa Klarako mojak Gabonetan beti kanta bat abestu oi zuten da.

Etorri zan Gabon eguna, ta gaberdiko mesata erruz jua zan jendea.

Mesa amaitu zanean asi ziran mojak abestuzten

—«*Zer emango diogu  
Zer emango diogu  
Ume jayo berriari?»*»

Eta oneraño eldu ziranean aztu zitzen kantu berria, ta moja gaxuak etzekiten zer egiñ. Berriro asi ziran

—«Zer emango diogu  
Zer emango diogu  
Ume jayo berriari?...»

Eta eziñ ziralako oroitu, ekiñ:

—«Zer emango diogu  
Zer emango diogu  
Ume jayo berriari?  
Zer emango diogu  
Zer eman...

Eta apaiza aspertuta zegoan da, deadar egin zuan:

«Ogia eta ezta»

Eta mojak, pozik, zeuden estuasunetik erten bear zutenean, jarraitu zuten

—«Ogia ta ezta  
Emango dizkiogu  
Ogia ta ezta

*Emango dizkiogu.*

*Ogia, ta ezta»*

(Neri ipuiñ au esan zidanak, kantu au musika ta guzti zekian.)

**ZERUETAKO ESKABIDEA**

Izurtza'ko etxe batean eskale erdeldun batek atea jo ta ogi zati bat eskatu zuan. Gizon beltz igar-igar bat zan, Ceuta'n preso urte batzuetan egona ta erten berria. Etxeko andreari esan zionean Ceuta'tik zetorrela. Zeruetatik aditu zion, eta tentel xamarra bai zan, da alargundu berria, esan zion gizonari:

—Aizu, zuk nere gizona ezagutuko dezu urrean; aiñ zan ona ze. Zeruetan izan beardu arek ere. Eskaleak igerririk zer Maritentel zeukan aurrean, erantzun zion:

—Ezagutuko ez det ba? Berak esanda etorri naiz ba onera.

—Ta zer berri dakartzuz ba Zeruetatik?

—Ara, zure senarrak jaka ta praka batzuek nai ditu, eta neuk eramango nizkiola esan nion. Baita ere esan zidan, etortzen nintzanean zuk bazkaria edo aparia emango zizkiazula.

—Bai, orixe, eman ez? Sartu zaite, —esan da sukaldera eramán zuan; lapikoan egosita zeukan

lukainka muturra ogi zati baten gañean eman zion. Atzera len baillen Zeruetara jun bear zuelako ez zuan, bazkari aundiagorik nai izan. Katillu bat bete babarrun salda ere bai, eta itz leunaki eskerrak emanda praka ta jaka berriak besapean zituala pozik juan zan eskalia.

## 32

### UGAZAMA

(Ama ordea)

Beiñ bai zan err, batean neskatxo on-on bat esangiña, langillea ta apala. Bere ama, zori txarrez, aurra zalarik ill zitzayon, aita bigarren aldiz eskondu eta gaxuak ama-ordea zeukan. Eta gañera txit gaiztoa, ta biotz gogorduna.

Amar urte besterik ez zituan neskatxoak eta zenbat lan eragiten zizkion! Iturritik ura ekarri, andreak erabilli oi dituzten ontzi aundietan, ibay ertzean zapiak garbitu, izare ta beste zapi aundiak ere baita, etxea garbitu, bazkari apariak atondu... zer etzion eragiten andre gaizto arek Mariatxo gaxuari? Lan guztiak, al zituan ondoen egiten zituan iAmar urteko ume batek egiñ leikezan ondoen! baña amaordea ez zan iñoiz kontentu eta beti aserre egiten zion, eta noiz nai bazkari gabe, edo apaldu gabe utzi oi zuan; zapladak eta makilladak egunero. Ikastolara gutxitan bialtzen zuan, eta itz batean esateko, erri guziak-erruki zuan umea.

Egun batean ugazamak atorra berri bat egiteko gaia erosi zion. Bai zuan premia gaxuak! Soñian zeramana bide bazter batera bota baliz, eskaleak ere ez zuten jasoko.

Betiko moduan, bekoki illunakin esan zion — Ara emen eureztat atorra berria egiteko tela zuria, ik merezi ez denan bezelakoa ; euk ebaki eta euk josi bearko den, baña iariñ gero! betiko moduan alperkerian egon gabe. Ni etorri orduko ebaki atorra ta josten asi; baña baldiñ da baldiñ tela alperrik galtzen ba'diran, ire galdua den. Esaten diñat nere atzaparretan utziko denala bizia.

Mariatxo gaxuak, atorra nola ebaki bear zuan ba? Nundik asi ere ez bai zekian.

Estuasun larria sartu zitzaion ezurretaraño. Ama ordeari bildur aundia bai zion! Eta gaxoak negar da negar zegian.

Sukaldeko mai gañean tela ta guraizeak utzita, beste gela batera juan eta Amabirjiñaren irudi baten aurrean belaunikaturik sotinka, esan zion:

—Ene, Añabirjiña maitia, lagun nazazu estuasun onetan; erruki zakidaz: nik ezin nezake ato-



rrarik ebaki ez josi, eta ama ordeak illko nau. Amatxo Zerukoa lagun nazazu!!

Otoitz au biotz barru barrutik eginda negarez sukalderaru zan. Eta orra miraria! Mayan gañean, atorra ebakia eta josita zegoan, zatitxo sobratuak aldamenean, Mariatxo berriro Amabirjiñaren irudien aurrera juan eta esan zion: —Ene Amarbirjiña maitia, zuk josi diazu nonbait atorra, milla esker. Zeruko Amatxoa, nik ez dakit nola eskertuko zaitudan.

Laister jo zuan etxea ugazamak, eta zuzenean umezurtzagana zuzenduaz gogorki esan zion: —la atorra ori zertan dan? Artu zuan eskue-tan eta aitzakiak ateratzearren jira ta bira ibilli zuan, baña ezi izan zion aitzakirik atera iñondik.

Bakarrik gelditu zanean amaorde gaiztoak zion —Atea itxita, giltzapean utzi ez ba'nuen esango nuen kanpokoren bat etorri dala etxera, edo bera juan dala nora baita, baña emen ez da iñor sartu, berak ezin izandu erten. Bere ama edo etorri ez ba'zaio beste mundutik atorra joster...

## GIZONA GORUETAN

Zumaya'n, oraindik ez bultzirik, ez tximista-argirik, ez lantegi aundirik etzanean, nekazari ta arrantzaleak bakarrik bizi ziran Zubiaurre'n, kale-Berrian eta Txirijo kalean arrantzaleak; eta Goiko torrean eta Arrua kalean nekazariak.

Eun urte inguru izango dira Zumayan au gertatu zala.

Zubiaurre kaleko arrantzale baten etxean, gabaz, gauzak beren lekuetatik kendu ta ezlekuetan ipiñi, itxasora gizonak eraman bear zituan aparejuak otarratik atera ta sutondora bota, usullak beteta laga ta arraskatik bera danak ustü, eta orrela bear ez diran lanak egiten ziran. Goizeko lauretan gizona itxasorako jaikitzen zanean, otarra killez gora ta gauza guztiak palta, eta abar.

Emazteak esaten zion senarrari: Jeolimo, gure etxean sorgiñak ibiltzen dirala uste det nik, eta beti gauza billa zoratu egiñ bear degu. Nun billatu detala uste dezu sukaldeko apalean bart

utzitako ari beltza? Gela illuneko pixontzian. Etxea bedeinkatu egiñ bearko degu, apaizari esanda. —Bai, ondo deritzat, baña gaur gabean oeratu gabe gelditu bear det, eta ikusiko degu nor arrayo etortzen dan gurera gauza guztiak aldatzera.

Esan da egiñ. Apal ondoan, andrea oera jua zan da, Jeolimo'k andrian soñekoa, mantala, ta buruko pañuelua jantzi ta sukaldean goruetan asi zan.

Gaberdi inguruan nun agertzen dan tximinia-tik bera katu aundi bat, eta: —«Gizona izan eta goruetan» esan zuan. Eta Jeolimo'k erantzun zion: —«Eta katu izan da izketan?» Eta au esanaz batera, su burni bat artuta jo zuan trabeska anketan eta katuak bizirik al zuan aguruena miauka, etorri zan bidetik iges egiñ zuan.

Urrengo egunean jaki zan Mutur-okerreneko neskazarra izterra ausita ogean zegoala, ta eze-gaitik ez zuala esan nai, nun da nola ausi zuan.

Baña beintzat Jeolimo'nian ez zuten geyago gauza billa ibilli bearrik izan. Utzitako lekuetan aurkitzen ziran danak.

## JUANTXO TXISTULARIA

Gipuzkoa'ko Goyerri aldean, ez dakit zein erritan, (Zaldibi, edo, Matxinbenta, edo Altzerreka, edo...) apaiz bat oso eiztaria zuten.

Alperrik zegoan une danetan, eizera juaten zan. Inguruetako jende guztiak eskopeta sorbaldatik txintxilika zuala ezagutzen zuten. Baserriren batean gaizki zegoan gaxoren bat konpesatzera edo ikustera Juan bear zunean ere, ezin zan eskopeta gabe jua.

Bere jarduketa guztiak ere eizeko gora-berak izaten zidan: ez zekian ezer beste gaietzaz izektan egiten.

Eiz-txakur bi zituan etxean, beti bere ondo-rean izaten zituan, eta neskameak esan oi zuan: Gure abadeak txakur oyek ez lituzke salduko idi pare baten diruagaitik ere. Itz batean esateko gure abadea itsua zala eizerako.

Ez dakit izena nola zuan; neri ipuiñ au kontatzen zidan amamak ere, ez zekian ta.

«Geyegirik, onik ez» dio aintziako esaera zarrak, eta egi aundia da.

Goyerri'ko abadeak ere geyegizko maitetasuna zion eizari, eta augaitik galdu zan. Ara nola :

Igande batean Meza Santua esaten ari zalarrik, mezerdiko itzak esaten ari zan unean txakurrrak zaunka egiñ zuten eleizpean. Eta abadeak, zoruak bezela, kendu zituan bertan Meza esateko jazten diran soñekoak, eta Meza zegoan-zegonean utzi, bukatu gabe, ta zarrapastaka erten zuan eleizatik kanpora; erri guzia eleizan bata-besteari begira utzita.

Egun ura izan zan erritarrak apaiza ikusi zuten azkenengo eguna. Geyago ez zan iñun agertu. Baña neguaren biotzean, elur eta txingor euri ta aize gogoarrak diranean, Goyerri'n eta Gipuzkoako lekuetan esan oi dute: —«Ene! or dijua goyetan Juantxo txistularia, bere txakurra-ki». Eta aize gogorakin egualdi txarra dagoanean, nere errian «Egualdi txakurra» esaten diote.

Nere amamak esaten zidan «Juantxo txistularia» Goyerri'ko abadea zala. Meza utzita erten zualako inpernuko etsayak artu ta bere bi txaku-

rrekiñ odeyeta betiko eraman zuala ta. Aize bildurgarriak jotzen dituan txistuak berak jotzen dituala.

# 35

## EGIPTO'RA IGESI

Badakizute nola Jesus umetxoa Sortaldeko iru Erregeak ikusi zutenean, Herodes'engana juan ez ziralako Jesus umea nun zegoan esaten, Herodes'ek aserratu, eta bi urtetik berako ume danak iltzea agindu zuala.

Lo zegoala, Aingeru batek esnatu zuan aita San Jose eta esan zion: «Artu egizuz aurra eta bere ama, eta zoaz igesi Egipto'ra, Herodes'ek il egiñ naidu eta billa dabil-da».

Aita San Jose'k esnatu zuan Ama Birjia, eta au bere gauzak batzen ari zan bitartean, Aita San Jose'k astuari perrak atzekoz aurrera ipiñi zizkion, eta onetara aurreruntz juanarren, atzerantz oñatzak egiten zituan. Eta billa ibilli ziran gizon gaiztoak ezin arrapatu izan zuten Jesus umetxoa.

## 36

# ANBOTO'KO MARI

Antziñako denboretan Abadiño deritzan Bizkaiko erri baten senar-emazte aberats batzuek bizi ziran jauregi edo torre aundi batean. Gaur ere zutik dago jauregi ori Muntxaraz deritzaion auzoan, eta abadiñotarrak «Muntxaraz'ko palazijua» deitzen diote. Ez da besteak bezelakoa, lau kuadroko zimenduak eta oso garai edo altua. Ormak metro t'erdi inguroko lodiera dute.

Senar-emazte abek ez zuten aurrik eta jauregia ta beste ondasunak uzteko, aurrak nai zituzten, emazteak batez ere.

Egun baten emazteak birao aundi bat esan zuan, au da: «Nik alaba bat izan nai det ogeitabat urte dituanean inpernuko etsayak eramango ba'du ere».

Eta alaba izan zuan, oso ume ederra ta zoragarria. Mari jarri zioten izenez. Alaba jayo ta laister il zan aita.

Emezortzi urte zituanean ez zan ez Bizkaya'n ez Euskalerra guztian Mari bezelako neskatxik.



Liraña, egokia, ta edertasun arrigarriduna: begi berdiak, illia urre kolorekoa... Aberastasunak ere bai zituan ugari baña iñork ez zuen nai beraki ezkondu. Bere edertasun eta izate guztiak maitetasunen ordeztan bildurra sortzen zuan.

Ogei urte bete zituanean, ama estutzen ari ziran. Beteko ote ziran berak esan zuan maldizioa? iAi Zer emango leuken alaba ezkontzearren! Baña senargairik iñundik ez.

Ogeitabat urte urreratzen ari ziranean, amak bildurrez beterik kristalezko gela bat egiñ zion, eta etxeari burnizko atea (gaur ere «Muntzaraz'-ko palaziyuak» burnizko atea dauka) eta kristalezko gelatik erteten ez zion utzitzen alabari Baña guzia alperrik!

Mari'k ogeitabat urte bete zituan egunean eta une berean, inpernuko etsaiak artu eta aidian Anboto'ko leiza zulora eraman zuan. (Anboto, Abadiño'n dagoan aitz aundi bat da). Eta arrezkero an bizi da eta augaitik esaten diote «Anboto'ko andrea» edo «Anboto'ko Mari».

Abadio'ko artzai zar batek esan zidan ostiral arratsalde danetan ertetzen zala iru-iruretan leiza zulotik kanpora, eta urrezko orraziakin illea

orrazten duala. Berak ez duala iñoiz ikusi, baña bere aitonak ala esaten zuala, eta beste artzai batzuek ere bai. Eta beiñ baño sarriagotan udaberriko illuntzietan sua ta argia dariola ikusi zutela Anboto'tik Udalaitez gallurrera joan da etorri egiten.

## ZUGATZ AZPIAN MILLA ERRIAL

Gabiria'n bizi ziran senar-emazte batzuek oso zintzoak eta piñak. Piña esan oi diote Gipuzkoa'n zorrik egiñ nai ez duten pertsoneri, eta al duen moduan, xur-xur pasa ta gutxi edo geyo dirua aurreratzen dakiteneri.

Gabiri'ko gizon zintzo au arotza zan, da Miel Antan zuan izena.

Orañ eun urte edo, ez zan Gipuzkoa'ko Aurresti'kutx edo erderaz *Caja de Ahorros* izena duan orrelako lekurik dirua gordetzeko, eta bakoitzakbere etxian gordetzen zituan diruak: galtzeta zar batean edo burnizko lapiko zar batean ganbarako edo ukolluko abe baten azpian edo orrelako sokondoren batean.

Gabiri'n lapur zaratak zabaldu ziran: Onelako lekutan lapurrak sartu zirala, beste leku batean lapurrak gizon bati beya salduta zeuzkarren diru guztiak kendu zizkiotela, eta abat, eta abar.

Miel Anton bildurtu zan eta andreari ere esan gabe, etxean zeuzkan milla errealak baratzako pikupean lurperatu zituan. Baratza, etxean atze-kaldean zegoan, eta piko-zugatza etxeko ormarren ondoan. Miel Anton'ek, ustez, iñork igerrigabe egiñ zuan lurperatze au; baña gutxien uste zuan batek ikusi zuan. Bere etxetik urre xamar bizi zan andre erdi sorgiñ batek. Onek senarrari esan zion, eta gau artan bertan Miel Anton'enean danak lo zeudela juan eta milla errialak ostu zizkion. Bi egunetik beiñ edo juaten zan Miel Anton pikoari begiratzera, eta beriala igerrizuan berak utzita bezela ez zegoala. Atxurra artuta juan zan eta Ai! ura naigabea! Lapiko zarra utsik eta milla errialak palta!

Bere estuasunean, andreari esan zion: —Ai ene, Jabiela Iñasi; gureak egindu! Oraintxe galduak gera betiko.

—Zer dezu, gizon? Zer esaten didazu?

—Ai ene bada! Gure galdua! —zion berriro Miel Anton'ek.

Alako baten aitortu zion emazteari zer igarotzen zan.

—Ara —esan zion emazteak—, lepo bat det eta bera aizkoraren azpian ipiñiko nuke gure diruak nork ostu dituan baietz igarri. Beti gure etxe-aldera begira dagoan sorgiñ orrek. Itz obetik ez du orrek merezi ta.

## URREZKO ZAPATATXOA

Orañ esatera noana ez da emen, gure Euskal-erri maitean gertatua, Alemania'n baizik, ama-laugarren gizaldian edo.

Aita ta amarik gabeko mutiltxo umezurtz bat zan. Frederik izenduna. Ez zuan, ezta ere, beste seniderik eta aiderik, umezurtz gaxoak.

Arrabita jotzen ederki zekian, eta abestutzen ere baita, eta denbora artan oitura zan bezela, erriz-erri, bere arrabita joaz eta guduketako ta maitetasun abestiak abestuz bere bizi modua irabasten zuan. Amalau urte zituan Frederik'ek, negu gogorreko egun batean Colonia izena duan erri nagusira eldu zanean.

Otz aundia zan, elurak kale guztiak estaliak, ate guztiak itxiak; Frederik gixajuak ez zuan batere dirurik bildu goiz guztian.

Gosez eta otzez ia illean, arratsaldean eleiza nagusian sartu zan. Colonia'ko leiza nagusi edo katedral'a oso ederra da, munduan diran katedral'etan onenetako bat. Alelare batean Amabir-

jiñaren irudi eder bat zegoan, Jesus aurtxo besoan zualarik, eta Jesus umetxoak urrezko zapatak zeuzkan soñean.

Frederik gixajua, Amabirjiña maitia zan; bera beste amarik ez bai zuen ezagutu eta joan zan bere aldarearen aurrera eta bere biotz ta gogo guziakiñ abestu zion Amabirjiñari esanaz

«Nere Ama maitea: Zuk ondo dakizu nola aurkitzen naizen. Gaur ez det ezer jan. Ez det dirurik ogi-zati bat erosi al izateko. Otzak il biar nau. Zuk laguntzen ez ba'didazu galdua naiz. Lagun egidazu, Zeruko Ama maite orrek, zeure semea naiz ta».

Begietan malkoak zituala ixildu zan bere eskari-abestia bukatu zuanean; begira zion Ama Birjiñari eta... Ara emen miraria! Amabirjiñak kendu zion Jesus aurrari oñ bateko zapatatxoa eta Frederik'eri bota zion irri-barre gozo bigun batekiñ.

Frederik'ek artu zuan urrezko zapatatxoa, sartu zuan patrikan eta berriro arrabita joaz eta abestuz eskerrak eman zizkion Amabirjiñari. Eta burua makurtuz agur luze bat egiñ-da erten zan katedral'etik.

Zuzenean «Urrezko zaldia» izena zuan ostatu batera juan eta jateko beroa eskatu zuan, eta su ondoan berotzea. Eman zioten jatein, berotu zan, eta pagatzeko urrezko zapatatxoa eman zion ostatuko etxeoandreari.

Onek, bereala senarrari deitu eta esan zion — Mutiltxo orrek Amabirjiñaren Jesus aurrari zapatatxoa ostu dio; ara emen.

Ostalaria juan, Juezagana ta esan zion, eta mutiltxoa kartzelara eramatera etorri ziran, baita ariñ eraman ere.

Irugarren egunean iltzeko epaya eman zioten. Alperrikakoak izan ziran Frederik'en negar guztiak eta egiñ guztiak. Etzioten siñistu Amabirjiñak, berak, zapatatxoa eman zionik.

Urkamendira zeramatenean, katedralan aurretik igaro bear zuten, eta Frederik gixajoak Amabirñari agur egiteko barruan sartzen utzi zezayotela eskatu zien juezari ta bera zeramate-neri. Utzi zioten bada, iltzera dijoanari eleizan sartu-erten bat egitea ezin ukatu leikiela ta.

Jende asko zijoan ume errukarrian atzetik, eta danak sartu ziran katedral'ean beraki batera.



Frederik, zuzenean juan zan Amabirjiñaren irudi ederraren aurrera, eta sotiña, baña ederk, abestu zion danak entzuten ziotelarik.

«Zeruku Ama maitea. Agur egitera natorkizu. Urkamendira naramate ta. Zuk ondo dakizu. Nik urrezko zapatatxoa ez dizutala ostu. baña ez didate siñistu nai izan. Eta il egigo naute. Agur bada nere Ama ona. Laister zeruan alkarrekiñ izango gera».

Au esan zuanakiñ batean orra bigarrenez miraria! Amabirjiñak kendu zion Jesus Umetxoari soñean zeukan urrezko bigarren zapatatxoa eta jende guztiak ikusten zuelarik Frederik'eri bota zion, begirakun bigun, gozo, maitetsuakin begiraturik. Juezak, Obispoak, apaizak eta beste lagun guztiak deadarka azi ziran: —Frederik erru gabea da! Ume orrek egia dio!; Ara nola geure aurrean bota dion bigarren zapatatxoa! Mutiltxo ori santua da! Eta urkamendira zeramaten! Emakumeak, ama ziranak batez ere, besoetan estutu ta laztandu egiten zuten, danak musu eman nai zioten, danak, bakoitzak bere etxera eraman nai zuten...

Frederik, andik aurrera ondo izan zan. Ez zuan erriz-erri arrabita jotzen ibilli, bearrik izan. Colonia' ko burgomaestre edo alkateak seme-tzat artu zuan, Obispo jaunak ere asko lagunduzion, eta yakintza asko ikasi ta gizon ospetsua izan zan.

## 40

# ZENBAT DENBORA EMENDIK TOLOSA'RA?

Zumarraga'tik Tolosa'ra oñez zijoan gizon bat, eta bere bidean beste gizon batekiñ topo egiñ zuan. iñoiz Tolosa'n izan gabea zan eta poz aundia artu zuan, asko palta zuan ala ez, gizon arek esango ziolakoan.

—Jaungoikoak dizula egun on, —esan zion.

—Bai zeuri ere, —erantzun zion.

—Aizu, Tolosa'ra zenbat denboran iritxiko naiz?

Eta besteak, gelditu ta berari begiraturik erantzun zion: —Zuaz.

—Bai dakit jun egiñ bearko detana, elduko ba'naiz, baña zenbat denbora bearko ote detan jaki nai nuke.

Eta berriro besteak: —Zuaz.

—«Gizon ori erua da» pentsatu zuan, Tolosa'ra zijoanak; eta geyago itzik egiñ gabe jarrai zion bere bideari.

Amar bat pauso eman zituanean gizonak deitu zion: —Aizu, iru ordu laurdenian elduko zera Tolosa'ra.

—Zergitik ez didazu bada len esan?

—Ez nekialako nola ibiltzen zeran eta ez dakitau gauzarik esatea atsegiñ ez zaidalako.

# 41

## KEMUJER NEURI?

Orañ esatera nuana neuk entzundakoa da, Ea izena duan Bizkai'ko erri txiki pollit batean. Emen agertzen diran emakume biak il ziran, baña neuk ezagutu nituan; biak ziran emakume on-onak, eta batek oso erdera gutxi zekian. Liverpool'en, Hamburg'on, Amberes eta orrelako erri aundietan ibillia zan bere senarrakiñ, au itxasgizona zan da.

Ez noa euren izenak emen ipintzera, baña abizenak ipiñiko ditut Bizkai'ko abizen ederrak biak. Bata zan Zabalandikoetxea'ren alarguna eta bestea Zabaljauregi'ren emaztea. Onek bai zekian erderaz. Manila'n urte asko, bere senarrakin igaroa zan.

Ara bada, egun baten andre biak zerbaitegaitik aserratu ziran eta alkarri gogor xamar itz egin zioten, gauza txarrik, eta itz itxusirik batak besteari esan gabe, asiera onekoak ziran biak eta, Ea'ko jende guztia bezela.

Euskeraz ari ziran biak, baña Zabaljauregi'-ren emazteak, esaten ari zana bukatu zuanean, erderaz esan zuan: —Jesús, qué mujer!

Eta besteak gauza txarren bat zala uste izan zuan eta aserre biziaz erantzun zion: «Kemujer dio berak? Kemujer neuri? Zeu zara zu Kemujer; ez ni.

**AIZARNA'KO AGUAZILLA**

Aizarna, mendi baten gañean dagon Gipuzkoa' ko erri polit bat da. Aizarnazabal eta Zestua ditu urrean.

Oraiñ larogei urte inguru omen zuten alkate bat, Barrena jauna, gauzak ariñ eta azkar egitea nai izaten zituana.

Aguazilla ostera, oso astiro egiten zituana. Amas, bere abizena. Alkatea beti aserreka ari zitzaion.

—«Amax, ik daukan sasoyakin, bariak baño askartasun geyago ez daukak. Gizonak ori baño aritasun geyago bear dik. Zirt edo zart, atzera edo aurrera, beti urrepelen moduan egon gabe» eta abar.

Egun batean alkateak deitu zion: —Amax!

—Jauna!

—Azpeiti'ra Juan bear dek.

—Bai, jauna.

Eta Amax asi zan Kontzejuko eskaillerak bera, astrapaladan, erori ta muturrak ausitzeko zorian.

Alkateak eziñ zuan siñistu, aiñ aguro eskaillerak bera zijoana aguazilla izango zanik, baña bada ezpada ere deitu zion

—Amax!

—Jauna!

—Nora ua ?

—Berorrek ez dit ba agindu Azpeiti'ra Juan bear detala?

—Eta, zer egiñ bear dek ba Azpeiti'ra juanda?

—iAaaaaa!

Amax'ek esaten zuan gero, aguaziltza baño lanbide txarragorik mundu guztian ez zegoala. Ez astiro ibillita, eta ez ariñ ibillita, Alkatien gustorik egingo zuan aguazillik ez zala jayo.



## 43

# AMA BI

Gizon on-on eta guztiz langille bat zan. Lan-tegi aundi batean lana egiten zuan, eta ondo xamar irabazi ere bai. Bere emaztea ere oso zintzoa zan eta dendatxo bat zeukan. Bien irabaziazkin erregearen inbiria gabe bizi zirean. Baña... mundu onetan gauza onak gutxi irauten noski, eta urtebeteko alabatxoa utzita il zan emazte ona.

Eziñ esan leike gizon gizajoak izan zuan nairgabea ta samia.

Maite bai zuen benetan eta biotz guztiz bere emaztea! baña, bizitzak bere eskabideak ditu ta, alabatxoak iru urte zitularik bigarrenenez ezkondu zan.

Ezkon aurretik; bigarren emaztegayak, itz leunaki aurrarentzat maitetasun aundia erakusten zion, eta auxegaitik geyen bat ezkondu zan berakin.

Baña emakume gaizto onek, dendatxoaren jabe egiñ zanean eta etxekoandretasuna eskura-

tu zuanean, umetxoarentzat maitetasun gutxi erakusten zuan. Itz gozo bat ez zion esaten, laz-tan bat ez zion ematen, eta begiratu on bat ez zion zuzentzen. Umetxoak bildurra zion eta aita lantegitik etortzen zanean izaten zan aren atse-giña ta poza. Neskatoa apala ta ixilla zan, maitetasun gabe azitako umeak izan oi diran bezela, jolasik eta parrerik egiten ez zekian, eta beti bere arpegittoa itun ikusten zitzayon, eta ez zuan iñoribere biotzik zabaltzeko oiturarik.

Egun baten eskolatik negarrez etxeratu zan. Ama, ordeak ikusi zuan umea negarrez, baña ez zion jaramonik egin. Zortzi urte zituan neskatxoak orduan.

Aita etorri zanean, galde zion: —Zer dezu, maite?

—Eskolan, Euxebi Odriozola'kin aserratu naiz, eta esan dit, nik ez daukatala amarik, ori (amaordeari begiratuaz) ez dala nere ama.

Amaordeak, begiratu gogor bat zuzendu zion umeari, eta senarrari esan zion:

—Entzuten al dituzu orren lotsagabekeriak?  
—Neskatoa, erioa ikusi ba'lu bezela aitaren ondora jua zan.

Aitak ezagutzen zuan emaztearen izakera; eta berakiñ eztabaidan ez asitzearren, umea artu ta dendara eraman zuan. An exerita neskatxoa belaunetan artu, eta esan zion bigunki: — Zuk ez jaramonik egiñ Euxebi'ri. Euxebi'k inbidia dizu zuri; zuk bi ama dituzulako eta berak, bat bakarrik. Zuk, ama bat Zeruan daukazu eta beste bat emen.

Neskatxoa, malkoz betetako begiak zabal-zabalik zituala aitari begira gelditu . zan, ixillik, unetxo batean; baña une orretan gauza asko pentsatu zituan nonbait, eta, begirakun itunez esan zion

—Aitatxo, Euxebi'k ama bat bakarra ta nik ama bi. Augaitik ote da ba Euxebi'k agiñeko miña duanean amak magalean artuta su ondoan eukitzea, eta nik agiñeko miña detanean ospiña-kiñ aoa bustitzeko agintzea? Euxebi'k ama bat, bakarra ta nik ama bi ditudalako ote da, igandietan Euxebi'k illiak zedazko zinta urdiakin lotuak erabiltzea eta nik lokarri beltz itxusi batekiñ? Euxebi'k ama bat bakarra, eta nik ama bi ditudalako ote da, ark San Juanetan soñeko berria

estreñatzea eta nik lengoa luzatuta jantzi bear izatea?

Alabatxoaren itzak, aitari negarra atera zioten. Eta bere besoetan estu-estu egiñaz belarri-  
ra esan zion eztiki: «Maitetxo».

Une onetan andreak erten zuan sukaldetik eta esku biak gerrian ipiñita esan zuan gogorki: —Ara emen, antzokia, bertan. Ez aldezu gaur lanera juateko presarik, edo bazkaldu bearrik, edo, aberastu egiñ al gera?..

Gizonak ez zuan nai andreaki aserrerik, eta sudur zapiakiñ malkoak legortuaz, jaiki eta esan zuan —Guazen, guazen, bazkaltzera, berandu det eta.

Baña urrengo igandean alabatxoa beste erri batera eraman zuan; bere emazte zanaren aizpa baten etxera, eta esan zion bere koñatari: —Bai dakit nere umea, nere bigarren emazteak baño maiteago dezula, eta zeure etxean pozik artuko dezula. Zaitu egidazu zeurea balitz bezela, soñekorik edo oñetakorik bear duanean erosi, nik ordainduko dizkitzut guztiak eta eskolara zeureakiñ batera bialdu. Ni, illean beiñ etorriko naiz zuek ikustera, eta amasei bat urte arte ez nuke

nai nere etxera eramán. Beiñ urte oyek ezkeró bere burua aldeztuko du.

Aur txikiak lurrean utzita il ziran amak, egun artan Zeruan pesta aundi bat izan zuten.

**BALIA ORROAKA**

Balia da itxasoan bizi dan abere aundi bat. Itxasoan bizi diranetan aundiena. Itxasoan bizi izanarren ez da arraiña, ur azpian arnasik eziñ artu izaten du, eta umeak titiakiñ azitzen ditu.

Baña, zertan ari niz ni gauza abek esaten, neri irakurtzen didatenak gauza abek, nik beziñ ondo dazkite ta?

Euskaldun arrantzaleak bale arrapatzalle bikañak izan dira. Au ere bai dakizute. Eta baita ere, Getari, Zarautz, Orio eta beste erri batzuek, euren eskudoetan balearrapatzalleak dituztela.

Oraiñ berreun urte inguru zumayar arrantzale batzuek Sokoia aldean bale aundi bat ikusi zuten. Denbora ayetan baliak sarri etortzen ziran gure itxasora. (Gure itxasoa deitzen diot, euskalduna naizalako, Kantauri itxasoari). Neu umea nintzanean ere oriotarrak arrapatu zuten bat.

Balia bere umeakiñ zan, eta zumayarrak arpoyaz jo arren eziñ izan zuten arrapatu. Baña bai umea; eta Zumaya'ra ekarri. Balerik ez zuten

geyago ikusi; Bayona'rantz egin zuan eta ezin jarraitu izan zioten.

Baña urrengo egunean Zumaya'ko barran agertu zan balia orroa baten (nik ez dakit baliak orroarik egiñ lezakean, baña nere aitonak ala esan oi zuan, bere aitari entzunda). Bere umien ondoren etorri zan nonbait, eta bere umea eskatzen zuan. Zumaya'ko arrantzaleak ez ziran ausartu bale ura arraparzen. Ez eta beste portu auzoetakoak ere. Nor urreratu abere aiñ aundi ta aserratuengana?

Zortzi egunean egon zan Zumaya'ko barran, bere umeari deadarka, eta zumayar arrantzaleak itxasora erten eziñik, egualdi ederra egoanarren. Bederatzigarren egunean, baleak etzi zuan nonbait, eta Iparraldera egin zuan.

Orduantxe artu zuten arnasa zumayarrak eta arrantzara erten zuten. Aberea izanarren, baliak ere bere umeak maite.

# 45

## ALKAR ONDO

### MAITE ZUTEN ANAI BI

Orañ esatera nuan ipuiña, ez da Euskalerrí'-koa, mahomatarrena da.

Bi anai zirean: bata ezkondua eta bestea ezkongaya.

Gurasoak utzi zizkieten lurrakiñ ateratzen zuten, bizimodua. Nekazariak ziran.

Garia ebaki zutenean, erdi bana partitu zituzten gabikoak eta bakoitzak bere pilloa egin zuten.

Gabean, anai ezkonduak esan zuan bere artean «Nik emaztea eta umeak dauzkat laguntzeko, nere anaya osterá bakar-bakarrík bizi da, ez dauka nork lagundurík, ez dago ondo berakainbeste gari ník jasotzea; gabiko batzuek eman bear dizkiot». Esan-da-egiñ; Juan zan sorora eta bere gari-metatik gabiko batzuek artu ta anayaren metara eraman zituan.

Anai ezkongayak osterá, gabean pentsatu zuan «Nere anayak andrea ta umeak mantendu



bear ditu, nik ez daukat iñor mantendu bearrik, eta ez dago ondo berak ainbeste gari nik jasotzea; gabiko batzuek eman bear dizkiot».

Goiezan goizetik, eguna zabaldu baño len, juan zan sorora ta bere gari-metatik gabiko batzuek artu ta anayaren metara eraman zituan.

Geroago, biak sorora Juan ziranean, gari-meta biak berdiak zirala ikusi zuten. Eta berriro, batek gaberdian, eta besteak goizaldean, bere gari-pillotik anayeanera gabikoak eramaten ibilli ziran, gau batean, batak besteari garia eramaten alkar billatu zuten arte.

Orduan bata bestian besoetara etorri eta maitetasun samurreaz alkar besarkatu ziran.

## ORAN'ETIK ZUMAYA'RA

Mediterraneo itxasoan, pirata edo itxaslapurrak nagusi ziranean, Zumaya'ko itxasgizon bi barruan zituan ontzi bat arrapatu zuten. Ez dakit itxasontzia nungoa zan, ez nola izena zuan, zumayar bi bertan zebiltzala baizik.

Itxaslapurrak egiñ oi zuten bezela, ontzia ta kargamentua saldu, eta gizonak esklabotzat saltzeko Oran'era eraman zituzten. Oran, Afrika'ko lpar aldean dagoan erri bat da, eta itxaslapurrak an egiten zuten gizonen azoka, Euskalerrian beyen eta idien peria Tolosa'n, Azpeitia'n, Gernika'n, Mungia'n eta abar egiten dan bezela.

Zumayar biak mahomatar aberats batek erosi zituan eta eraman zituan bere etxera; eguzkitik eguzkira Afrika'ko beroaren azpian lana eragiteko; gaizki jan, erdi billoxik, arrika ta makilka erabiltzeko.

Negargarrizko biziera zeramaten gizon biak, baña egunero, Arritokieta'ko Ama'ri euren otoi-

tzak zuzentzen zizkieten, umetan, amaren magal gozoan ikasitako itz bigunaki.

*«Arritokieta'ko  
Birjiña ederra  
Agur, Ama maite  
Itxasoko izarra».*

Zumaya'n jayoak, Arritokietako Ama biotzez dute maite eta beren larri ta naigabetan Beragana zuzendu oi dira, dakitelako berak lagunduko dietela. Berdiñ gure gertaerako zumayar biak ere.

Illuntze batean, lanean ler egin-da zeudelarik, kanpaitxo bat entzun zuten biak eta batek esan zion besteari: —Zumaya'tik gauden beziñ urruti ez ba'geunde, kanpai orixe Andre Mari'ko kanpaitxoa dala esango nitek.

Eta besteak erantzun zion: —Bai mutil; emen inguruetan ez dek beñepen, ez elizik, ez kanparik; eta angotxia dek.

Gautu zanean lotaratu ziran. Lur gorriaren gañean egiten zuten lo, eta txorgatilletik burnizko kate batekiñ ormari lotuta.

Kanpaitxoa entzun zutenetik, erriko ta etxeko oroipena biziagoa zuten, Andre Mariarena ere bai; eta, etzan baño len, belaunikaturik, otoitz au egiñ zioten: «Arritokieta'ko Ama maitea, errukitu zaitetz gu biokin eta eraman gaitzatzu geure errira».

Luak artu zituan Afrika'ko erri batean, eta Zumaya'ko Ardantza izena duan lekuan dagoan ondartzta txiki batean esnatu ziran. Agorraren 8'garrena zan; Arritokieta'ko Ama'ren eguna.

## ETORRI DA PATATIA

Nik ezagutu nuan len, iñoiz aitatu detan Ea izena duan Bizkai'ko erri polit batean, Atxabal abizena zuan gizon bat. Aundia zan, zerbait gizona ere bai, irurogei urte ingurukoa, bigote aundiakin. Erriko aguazilla zan. Eta ez nola naikoa, lau izketa parra parra egiten zekiena; euskeraz, erderaz, prantzezez eta ingelesez. Urte askotan bere gazte denboran Liverpool'en eta Amberes'en egondua zan eta gero New York'en, erderaz interprete esaten zayon lanean. Oso gizon zelebria zan, illari ere parre eragitekoa; eta emen ipiñi nai ditut, Ea'n berak esaten zituan pregoi edo bando batzuek.

Danborra jotzen asten zanean, andra guztiak leyora erteten ziran eta pregoia bukatzen zuanean, danak parrez lertzen gelditu oi ziran. Izan oi zuten zegaitia. Ara pregoi bat:

«Amarretako kotxian etorri da Bilbo'tik Broquier jauna, erretratistia. Kalifornia'n, Manila'n, Cuba'n, Veracruz'en eta beste lekuetan ; gixo-

nak daukozuezan andriok, jun erretratetan. Plasa'ko fondan dago. Motzak edertu, zarrak gaztetu, ta danok politto atarako zaittuez. Eta merke ganera».

Ara beste bat:

«Atzo Lekeitio'ko bidean pasietan jun zan andra bati urre gorrizko domiñea galdu jakon. Iñork topau ba'dau, datorrela neugana ta neuk esango dotzat norena dan. Erri ontan ez dago urregorrizko domiña, erleju edo pultzera bako andrarik, eta penia ixango litzake, (ta andija ganera) andra bat aiñ barik lotzia».

Beste bat:

«Etorri da patatia, Bitorijakua.

Baña, zelakua?

Amaika ta erdijetan sost

Eta amabijetan plost.»

**BUSTITA ZAUDEN EZKERO...**

Orain larogei urte inguru, bizi ziran Zumaya'n senar-emazte batzuek. Joxepa ta Xanti. Gizona langille utsa zan, baña andrea berekoi utsa, eta bere buruari bizi modu ona ematen ziolako —au da, ondo jan, ondo eran, ondo jantzi, lan gutxi egiñ edo baterez— erri guztian Andre Joxepa esaten zioten.

Gizona arrantzalea zan eta itxasotik ondo nekatua etorri arren, andreak, etxean sartu orduko esan oi zion: —Xanti, lursagarrak ereiteko lurra atxurtu bear dezu ba, bestela, gure baratzen lursagarrak ez dakit noiz izango ditugun.

Eta egualdi txakurra zegoalako itxasora erten ezi zan egunetan: —Xanti, itxasora ez zuazen ezkerro, mendira Juan da egur-karga eder bat ekarri bear dezu. Ankaz aurrera su ondoan egoitia gustatzen zaizu zuri, baña egur-karga bat ekarri bear bada, nik esan bear. («Zuk esan bear

eta nik egiñ bear» erantzuten zion aopean Xanti'k, Andre Joxepa'k ez entzuteko eran).

Edo ta: «Xanti, Indamendi aldera Juan zaitez gaztaña-txordoketan, saku bat gaztaña erraz bilduko dezu-ta. Egualdi eder-ederra ez dago baña (euriak eta txingorrak bazter guztiak eraman bear), saku zar bat artu ezazu burutik eta zuaz. Lapikokada bat gaztaiñ zeuk bakarrik jango zenduke aurrean ipiñi eskero; baña ekartzeko konturik ez. Ni ez nua ba plazara gaztañak erostera; imillauna errial bi gogor-gogor eskatzen dute. Xanti'k aopean: —«Itxasora erteteko baño ere bildur geyago euki leike ba egualdi onekiñ Indamendiruntz juateko, baña pakerik izango ba'det juan egin bear».

Onelakoa zan Xanti gizajoaren bizi modua, andre berekoi arekiñ; Itxasoan edo legorrear beti arrastaka eta Andre Joxepa, Jauregi aundiko damia baño areago.

Baña egun batean Xanti'k bere senetik ertentzuan; eruapen aundia duten pertsonak noiz edo noiz aserratzen ba'dira erten oi duten gogorke-riakin, eta Andre Joxepa'ri ondo merezia zuana egin zion.



Gabeko amabietan itxasora erten bixigutara, (bixigutara neguaren biotzian juaten ziran arrantzaleak) eta goizeko ordubietan, arribadan ontziak portura etorri ziralako, Xanti gixajua, ille legorrik ez zuala eldu zan etxera, eta esan zion emazteari, (lo zegoan oe bero-beroan), ordu biak zirala ta arribadan atzera etorri zirala. Eta eranztitzen asi zan, oera sartzeko asmoetan.

Baña Andre Joxepa'k esan zion: —Xanti, bustita zauden ezkerro, usulla bete ur ekarri egidazu iturritik. Orretara nik biar etxetik erten bearrik ez det izango.

Xanti'k, ixil-ixillik sukaldera juan, usulla artu, iturrira juan, urez bete, buru gaian artu eta etorri zen emaztea lo zegoan gelara juan, eta burutik bera oe gañean usullako ura ustu zion.

Ondarrubia'tik entzuteko moduko kurrixka egiñ zuan Andre Joxepa'k.

Baña Xanti'k batere estutu gabe: —Bustita zauden ezkerro, zeuk ekarri ezazu oraiñ ura iturritik —esan zion.

## EMETIXEK BERA JUAN DIREZ

Mundaka izena duan Bizkai'ko erri eder bea-ten gertatua omen da nik oraiñ esan bear detan ipuiña.

An ere senar-emazte batzuek ziran, emaztea len esan detan Zumaya'ko andrearen moduko berekoia, eta bere burua ondo zaintzen zuana. Senarra, beti «itxasoak ebakitzen» esan oi dan bezela, Barcelona'tik Filipinas ugartietara zebillen; Ogoño itxas-muturrak baño urte geyago zuan ontzi zar bateko arotza zan.

«Isla de Luzón» ontzia iru edo lau illabetetik beiñ Barcelona'ra etortzen zanean, andrea, dotore jantzita juaten zan gizona ikustera. Onek, alkar ikusten zuten bakoitzean irabazi zituan diru guztiak ematen. zizkion emazteari, txakur txiki bat bera ere gastatu gabe, andreak ondo gordeko zituan pozean eta «Isla de Luzón» utzita, lenbailen Mundaka'ra bizitzen juateko itxaropenean.

«Milla ogerleko batzuk aurrestu ezketiño Mundaka'n ondo bixi geinkez (umerik ez zuten) —pentsatzen zuan gizonak— ez diñot Arroategi lez, baña, geure klasian ondo beintzat.»

Eta itxasoan ogetamar urte igaro zituanean, bere gauzak artu ta Filipinas'eri agur egiñ da Mundaka'ra etorri zan; ondo bizitzera, bere ustez.

Bere ustea agertu zionean, emazteak esan zion —Ai ene! Kose Mari, guk eztaukogu dirurik olan bizitzeko.

Eta senarrak: —Nun dozuz ba nik irabazitako diru eder guztijok? —galdetu zionean, —«Erdue neugaz» esanda irolera eraman zuan, eta estalkia jaso ta —erantzun zion: —«Emetixek bera juan direz».

## ANDUTZ'EKO GIZON GAXOA

Itziar'ko sendagilleak Donostira jua bearra izan zuan bi egunerako, eta Deba'ko osagilleari esan zion bera Donosti'tik zan bitartean Itziar'en iñor gaxo-tzen ba'zan jua zedilla. Deba'koak bayetz esan zion, jua zeikiala ardura gabe, eta ondo ibilli zeitela.

Eguardiko amabiak inguruan or dator ate joka, zalaparta bizian, Itziar'ko gizon bat sendagillearen etxera: —Jauna, ariñ Andutz'era juateko, gizona ia illian dago ta.

—Noiztik dago ba gaxorik?

—Gaur goizaldean, bat batera gaxotua izan bear du. Atzo arratzaldean beintzat layetan gogor ari zala neuk ikusi nuan. Gurera mutil koskorra bialdu dute, ari sendagillearen billa juateko bat, ta nengoan modu-moduan, alkandora garbia jazteko ere astirik gabe jua naiz geure sendagillearena eta neskameak esan dit kanpotik dala, ta onera etortzeko.

—Nun dago, ba Andutz ori?

—Urruti, jauna; Itziar'tik lenengo Lastur'era jo bear degu, eta andik ere pausuak daude. Itziar'ek daukan etxerik urrutiena da.

—Guazen ba, —esan zuan sendagilleak; eta ez bazkaldu ta ez ezer ekiñ zieten biak bideari.

Itziar'era eldu ziranean sendagilleak pentsatu zuan, bada ezpada ere, apaiza berekiñ eramatea izango zuala onena, eta ala, apaizari deitu zioten eta irurak noizpait eldu ziran Andutz'era, arratsaldeko irurak inguruan.

Sartu ziran barrura, eta gaxoan emazteak, osagillea eskallerak gora asi zanean: —«Emendik jauna, emendik», esanda sukaldera eraman zuan. Sutondoan exerita bi gizon eta beste emakume bi zeuden.

—Nun dago ba gaxoa? —galdetu zuan osagilleak.

—Neu naiz, jauna, erantzun zuan gizon lodi batek. Orain pasatu zait, baña gaur goizeko iruretan uste nuan nere azkena zala.

Eta andreak geitu zuan: —Bai, gaur goizeko iruretan txakur txiki bat eziñ eman zeikean bera-gaitik.

—Ara, jauna —zion gaxoak—. Atzo gure andria Elgoibar'en izan zan eta piper aundiak ekarri zituan, eta ni itsua naiz ba piper aundientzat, eta bart apaitan kasuelkada aundi bat neuk bakarrik jan nuan. Ez nuan ba lenengoa, baña, nonbait gorputsa beti ez da berdiñ egoten edo... beñepeñ gaur goizeko iruretan sabeleko miñez egon eziñ; gero asten naiz gora ta bera... lertu ez naizanean pozik. Eta eguna zabaldu duanean, gure andriak bialdu du mutilla Korotzarri'ra (auzorik urrenak oyek ditugu ba) «mutil, juan ari axkar Korotzarri'ra eta esan egioek dijuala ariñ Joxe Antonio osagillean billa, aita gaizki daukagula ta». Baña, orra ba, alperreko biajia egiñ du berorrek, nik oraiñ ez daukat ezer da.

Sendagilleak bere artean zion: «Kirten aundia, alakua. Iru orduan iru gizon aldapa gora ekarri gaituzte mingaña txintxilika degula, ta ikusten aldituzute danak sutondoan exeri ta kontukontari nola dauden...! Ez ba, nik ez det au onetan utziko; gizon kirten orreri ta andre ganbertzi orreri erakutsi bat eman biar dietet.»

Pultsoa artu zion «gaxoari» ta mingaña ikusi ere bai, eta andreari sukaldetik atera ta esan zion:

—Begira, oraingoa igaro zayo zure senarrari, baña ba'leike, biar edo emendik bi edo iru egu-nera atzera len bezelaxe gaizkitzea, ez da seguru, baña, bada ez bada ere esaten dizut, apaiz jauna etorri dan ezkerro konpesatzea izango leu-keala onen-onena, Eleizakorik ekarri bearrik ez dago, baña konpesatzea beintzat egiñ dezala.

—Zer esaten dit, jauna? Ezer ez daukalakoan geunden danok, eta... ¡Ai nere Joxe Andres! Il bear ote du ba?

—Ez, ez det uste oraingoan ilko danik, baña, ara, apaiza ekarri degun ezkerro konpesatzia du onena.

—Ai! Ama Birjiña Itziar'ko maitia! Zerk era-man ninduan ni atzo Elgoibar'ko azokara?

\* \* \*

Gaxoa konpesatu zan, euskaldun baserritar-rak oi diran bezelakoa zan da, eleizkoia ta Jaun-

goikoaren eta animaren gauzak bear bezela aintzat artzen zituana.

Sendagilleak esku biak jakean patriketara eramanaz esan nuan: —Ay! ekarri degun presakin errezetak egiteko papera ta lapitza artzea astu zait, bai alditu berorrek? —galde zion apai-zari.

—Ez; nik ez.

—Eta etxian bai aldezute papelik eta lumarik?

—Ez, Jauna, eta Korotzarrin ere ez dituzte izango (au, oraiñ irurogeitamar urte gertatua da, gaur, Andutz'en eta Korotzarrin papera ta luma ez eze erradioa ere ba dute).

Osagilleak, ukulluko ateari begiratuta esan zuan: —Tira, atonduko gera. Ate laurden onetanxe egingo det errezeta, (iru puzketako atea zan; ate erdika bat alde batean, eta bi ate laurden bestean). Ikatza izangodezute etxean?

—Bai, jauna, ara emen.

Etxeko andrian anayak atera zuan ate laurdena bere markotik, eta sendagilleak idatzi zuan ikatzez:

Despáchese



Agua destilada ..... 100 gramos

Azúcar ... .. 10 "

*Carlos Bekobide*. Licenciado en Medicina y Cirugía

Itziar 14, 10, 1884

Etxekoandrian anayak artu zuan sorbalda gañean atelaurdena, errezeta ikatzakin idatzita, eta Zestua'ko botikara ekiñ zion aldapa bera, Deba baño Zestua urreago zutelako andik.

Eta osagilleak esan Zion «gaxoaren» emazteari —Botikatik dakarrena artu dedilla bi ordutik bi ordura kollare txiki bat bete; eta edozer gauza jan lezake, piper aundiak izan ezik.

# 51

## IÑOREN IRITZIA

Getaria'ko Basakarte baserritik erten zuten egun batean Esteban aitona ta bere billoba Estebantxo'k Zestua'n zerbait egitera. Astoa bai zuten Basakarte'n eta Estebantxo asto gañean eta aitona oñez jua ziran Zumaya'ra arte.

Zumaya'ko zubi, txikira eldu ziranean, an zutik zeuden gizon batzuek esan zuten: «Agure zarra oñez eta mutill koskorra asto gañean; oñez juateko sasoi ohea daukala esan leike ba mutill orrek.

Au entzun zutenean, aitona asto gañean eta Estebantxo oñez asi ziran.

Arrua'ko geltotiko lenengo etxeetara eldu ziranean bi emakumek alkarri esan zieten: — Ikusten al dezu agure alper ori ze ederki dijoan asto gañean eta mutill koskor gizajua oñez?

Aitona ta billoba biak asto gañean jarri ziran eta bai zijoazen, baña Iraeta'ko zubira eldu ziranean entzun zuten gizon batzuek nola esan zuten: «Asto orrek ere bai du naikoa lan agure ta mutill

koskor ori gañean dituala jua bear izateko. Batzuek uste izaten dute nonbait, abereak ez dirala nekatzen».

Jatxi ziran biak, eta biak oñez jua ziran, astoa sokatik zutela.

Eta Zestua'ra eldu ziranean, lenengo billatu zituen mutill gazte batzuek ala zioten batak bes-teari «Santa Agueda'tik edo nondik ote datoz abek biok, astoa euki ta biok oñez...»

Orduan Esteban'ek esan zion Estebantxo'ri:

Nere semearen seme  
Neure billoba laztana  
Entzun zak eure aitonak  
Gaur esaten dikana:  
*Ez artu iñoiz euretzat  
Iñoren esana.*

**ANDREA POLTZERU**

Bidania'n Juakin Larretxe izena zuan arakiñ bat zan. Erantzun zorrotzak azkar ematen zituan fama zuan. Eta ala zan, izan ere.

Egun batean Egurtza baserriko gizona juan zitzayon milla errialen eske, esanaz: —Juakiñ, milla errial eman bear dizkidazu.

—Bai mutill.

—Ukulluan txal ederra bai degu, emendik iru bat illabetera ateratzeko modukoa ta...

—Bai, gizona, bai konponduko gaituk. —Baña, aizak, gaur eziñ eramango dituk, gure Luxa Talosa'n dek eta gaberarte ez zetorrek. Nik berriz diruen berririk ez zekiak ezer. Biar etorri ari.

Orduan Egurtza'ko gizonak ala dio: —Beajaundeizula, Juakiñ! ori baño gizonagua ziñala uste nuan... Andrean mendian poltza? Zuriak egiñ du.

Eta Larretxek: —Egurtza'n nor dik ba poltza?

—Neuk, gizona, neuk.

Eta Larretzek irri-parreka:

—Ta euk poltza euki ta zertan etorri aiz ba gurera diru billa?

## ZER EGINGO' DIOT BA ATZAMARRARI?

Abadiño'n (Bizkaya'n) D. Jose Iturralde izena zuan sendagille bat urte askotan izan zan. Sendagille ona zan eta jakintsua, deitzen zioten etxietara azkar juaten zana, baña berak esandakoa egiten ez ba'zan, oso asarre jartzen zan eta ez zion iñori ezer entzuten aldi txarrean zegoanean.

Zaldi zuri aundi bat zuan gaxoak ikustera juateko, Abadiño'k Araba'ko mugaraño, bai ditu bere lur eta etxeak, oñez juateko iru ordu bear diranak.

Goiz batean, Iturralde jauna gaxoak ikustera juateko prest zegoan, eta neskamea ari zan zaldia gertatzen, baratzako ate-aurrean.

Onetan eldu zan Gaztelu'ko gizon bat, esku-biko biatz lodia dana zapiz batuta, eta esan zion:

—Jauna, emen nator ba ni ostera be, atzamar au txarto daukot eta.

—Nik atzo esanikua egiñ deutzazu ala?

—Jauna, ba, botikia, Durango'n erosi ta eruan neban etxera; baña, gure alboko andriak orretarako ollo korrotza zala onena esan euskun da, imiñi geuntsan, da...; nik pasau dodan gaba...! Goxeko iruretan, altzau da gure andria ta ollokorrotza kendu deust, eta botikia imiñi, ta... (sendagilleak begiratu ere ez zion egiten, zaldiari begira zegoan) len baño okerrago jauna. Ta... esan deusat andriari. Ni, Don Jose'ana noia... ta... alan etorri naz ba.

(Une ontan neskameak eman zizkion osagilleari zaldiaren erriendak eta osagillea altza zan zaldi gañera, Gaztelu'ko gizonari jaramonik egin gabe).

Au osagillea bai zijoala ikusi zuanean, estutu zan, eta zapiz estaldutako biatza erakutziaz esan zion —Jauna, zer egingo deusat ba atzamarrari?

Eta D. Jose'k zaldia azkatuaz erantzun zion —Sartu zazu atzeko...an.

Eta gazteluarra, an esan oi duten bezela, «agoa bete agiñegaz» utzi zuan.

## AINGERU IZARRA (GABON IPUÏÑA)

Ene umetxo maiteak: Bai dakizute Gabongabeen Jesus aurra ta Aingeru-pillo aundi bat Zerutik lurrera etortzen dirala.

Aingeru bakoitzak otarra bat ekartzen du eskuetan, gozokiz eta jostalluz betea, Lurreko aingerueri (umetxoeri) emateko.

Nola aingeruak ariñ-ariñ ibiltzen diran, Zerutik amaika-terdietan erteten dute, ta Lur osoari bira bat emanda Eguerri egunean, egunsentia baño len, berriro Zerura'tu oi dira.

Orra bada; Gabon gau batean Zeruan aingeruak eta Jesus Aurtxoa Lurrera etortzeko otarrak antolatzen ari ziralarik, aingerutxo txiki bat igarozan beren ondotik eta Jesus aurtxoari esan zion: —Ni ere eramango?

Jesus'txok erantzun zion: —Zu beziñ txikirik ez det eraman oi, baño zeuk nai dezun ezkerro, atoz, neuri eskutxoa emanda juango zera.



Erten ziran bada danak zerutik; danen aurrean,.. Jesus umetxoa aingeru txikia eskutik zuala, eta au eskubiko eskuan otarra zuala. Jesus umetxoak, Jaungoikoa dalako ego-gabe egaz egiten zuan; aingeruak. egu ederrekiñ. Eta egoak ireki ta itxi egiten zituztenean: Oi ura soñu ederra! Ez dago lurrean organorik alako soñua jo lezakeanik. Bai ba, Zeruko, soñua.

Lurrera urreratu ziranean, Jesus aurrak esan zion aingeru txikiari

—Ara or, erri txiki-txiki bat eleizatxoa ta amar etxe. Orrera joan bear dezu zuk; ume oneri jostalluak eta gozokiak eman; eta ume on-oneri, amen esanak ondo egiten dituzteneri, oerakuan eta jaikitzerakoan otoitza egiten duteneri, amari iturritik ura ekarri, ta ikastolan asko ikasten duteneri gozokiak, jostalluak eta muzu bat nere izenean. Eta ariñ ibilli ; bai dakizu, biar egunsentian Zeruko atean izan bear deguna ta.

Aingerutxoak etxe guztiak ikusi zituan; umeak ziran etxietan seaska ondoan, jostalluak eta burkopean gozokiak utzi zituan, ume on-oneri eztiki, laztan bana eman zien, esnatu gabe polliki-polliki eta asi zan Zeruruntz.

Baña, bide bazter batean txabola zar bat ikusi zuan. Iñor bizi ote? Umerik ote? Aingerutxoa jatxi zan eta leyo zar batetik sartu ere bai txabola barrura. Umetxo eder bat lo zegoan orbel legor pillo baten gañean, saku garbi bat beste estalkirik ez zuela. Sukaldean laatzetik ixekita urez betetako lapiko bat ez egurrik sua egiteko ez ogirik baratzui sopa pixka bat egiteko, etxe inguru dana elurrez zuri-zuri... Aurra bakar-bakarrik zegoan txabolan; bere ama gaberdiko mezetara juana zan da. Aingerutxoa naigabetu zan guztiz. Ez bai zuan ezer otarrean, ez gozokirik ta ez jostallu bat! Danak emanak zituan txabola ura ikusi ez zualako lenagotik.

Baña beriala pentsatu zuan zer egiñ. Erten leyotik, jun zuzen-zuzenean izar txiki bat zegoan lekura, artu eta Lurrera ekarri zuan eskuetan. Sartu zan leyo zarretik txabolan, eta sukaldean, laatzetik ixekita zegoan lapikoaren azpian ipiñi zuan. Etxe guztia izarra sartu zanean argitu ta berotu zan. Oi an zegoan bero gozoa! Lapikoa, beriala asi zan «gilg eta golg» irekiten eta ur utza barruan zan arren aingerutxoak Zerutik ekarri zituan gozoki guztien gustua artu zuan.

Aingerutxoa juan zan aurragana ta laztan aundi bat eman zion; aurrak begiak iriki zituan eta aingerua bat-batean egaz leyotik erten zan eta zeruruntz zuzen ekiñ zion.

Beriala etorri zan ama eleizatik, eta ez zekian zer zan bere etxean, txabolako zirrikate danetatik argi gozo biguna kanporuntz ikusi zuanean. Sukaldean sartu zanean, zer bero ederra! iZer usai gozoa lapikoak botatzen zuana!

—Nere Jaungoiko ona! nor izanda emen? —esan zuan— belaunikoturik.

—Ama, nik uste det aingeru txiki bat ikusi detala.

—Atoz, maitetxo, atoz, zer aparti gozoa daukagun biontzat, ene semetxoa!

—Amatxo, aingerua izan ote da ba nik ikusi detana?

—Bai, maitetxo, bai, Gabon gaba degu ta.

## 55 MINGAÑA

Europa'ko egoaldean, Mediterraneo itxasoaz inguraturik dago erri bat: Hélade izenduna (erdez-eraz Grecia). Angoa da ipuiñ au.

Janto izena zuan jaun aberatz batek lagun batzuek ekarri bear zituan berekiñ bazkaltzera.

Jaun onek, Esopo izena zuan morroi bat zeukan eta goizetik esan zion, bazkaitarako, azokan billatzen zituan gauzarik onenak ekartzeko, bere adizkideak pozik izan zitezzen.

Bazkaria asi zan, eta Esopo'k lenengoz mingaña ekarri zuan, oso ondo ipiñia; ta pozik, jan zuten. Urrengo berriz ere mingaña, ta gero ere mingaña. Bazkari guztia mingaña izan zan. Mingañ egosia, mingaiñ prejitua, mingaiñ erria, mingaña arrautzekin, mingaña eztiakiñ...

Janto'k esan zion: —Aizu, ez aldizut nik esan azokan billatzen dituzun gauzarik onenak ekartzeko? Eta Esopo'k erantzun zion

—Bai, jauna; augaitik ekarri det ba mingaña. Zer gauza oberik, mingaña baño? Mingañez esa-

ten dizkio amak bere semetxoari itzik gozoenak eta ederrenak; mingañez alkar aitutzen gera etxetarrak eta erritarrak; jakintsuak euren pentsamentuak eta jakinduriak mingañez esaten dizkigute, Jaungoikoari otoitz egiteko mingaña bear degu. Zer bada mingaña baño gauza obeeragorik?

—Tira ba, —esan zion Janto'k—, arrazoia daukazula esan leike. Gaur jan degu ba gauzarik onena, eta biar ekarri zazu gauzarik txarrena, nere adizkide abek biar ere nerekiñ bazkaldu bear dute ta.

Biaramonean, Esopo'k, bazkari berdiña ipiñi zuan eta Janto'k oso aserre aundiaz esan zion:

—Neri ta nere laguneri parre egitea pentsatu dezu nonbait; baño zuk ez didazu neri parrerik egingo, ta oraiñ ikusiko dezu nere aserrea nolakoa dan. Au esanda, Esopo'ri zerbait egiteko asmoz altza zan; baño onek erantzun zion:

—Jauna; gauzarik txarrena ekartzeko esan zidan gaurko, eta nere ustez mingaña baño gauza txarragorik ez dago. Zerk ipintzen ditu senideen artean, eta erritarren artean, ikusi eziñak, gorroto biziak eta alkarrekiñ ondo eraman

eziñak, mingaiñ gaiztoak baizik? Zer gauza itxusiagorik gezurra baño? Eta, zer pekatu aundiagorik, geure mingañakin Jaungoikoaren aurka biraoa botatzea baño?

Eta Janto'k erantzun zion

—Ez zaitut zigortu nai, Esopo, atzo ez eze, gaur ere arrazoia daukazu ta.

## DENBORA GUTXI BA'DEZU, ASTIRO JANTZI ZAITEZ

Elorrio'tik Elgeta'ra oñez zijoala, Joxerramun Sagastagoikoak gurdiakin zetorren gizon batekiñ topo egin zuan. Itzayak galde zion: —Zu, gixon, nozko elduko nazala uste dozu Durango'ra? Enaz iñoz ixan-da, ez dot bide au ezaguetan.

Joxerramunek gurdiaren ezkerreko gurpillari ondo begiratuta erantzun zion

—Zazpiretarako kontuixu, baldiñ astiro-astiro juten ba'zara.

Itzayak pentsatu zuan «Astiro-astiro juanda, zazpiretarako elduko ba'naiz, ariñago ibillita ariñago elduko naiz» eta akullua arturik —Aida!— gogorki esan zien idieri, ta abek aldapa bera zegarreran azi ziran.

Baña, kilometro bi baño lenago gurdiaren ezkerreko gurpilla puskatu zan eta ez atzera ta ez aurrera, gure itzaya bide zabalaren erdian gelditu zan.

—Astiro-astiro, Joxerramun Sagastogoikoak esanda bezela juañ ba'zan izan zeikean Durango'raño eltzea.

Askotan egia izan oi da esakera onek diona: «Denbora gutxi ba'dezu, astiro jantzi zaita».



# 57

## OGEI DOLLAR

Bizkai'ko Kortezubi izena duan erri batetik, gizon bat California'ra juan zan, emaztea urte beteko neska batekiñ utzita, inguru ayetatik (Arteaga, Elantxobe, Gernika, Ea, Ispaster, Ibarangelua eta abar) juan oi diran bezela, edo beintzat oraiñ berrogei urte juan oi ziran bezela. Gaurko berririk ez dakit.

Amar urte Californian artzai eginda, diru pillotxua, batu zuanean, etxera etorri bear zan urte bete igarotzera, eta gero berriz ere California'runtz. Au ere, beste gizon danak berdintsu egin oi zuten.

Etxera etorri bear zanean emasteari idatzi zion esanaz, Edurnetxo'ri zerbait ekarri nai ziola, eta zerk atsegiñik aundiena emango ote zion.

Alabatxoak amaika urte zituan, eta jostalluak, eta anderea ta orrelako gauzak baña naya-go izan zuan urrezko katea Ama Birjiñaren irudi batekiñ. «Urregorritzko domiñea ta katea» an esan oi duten bezela.

Aita etorri zan etxera ta Garbiñetxu'ri urrezko kate sendo, astun bat eta bertatik txintxilika ogei dollar balio duan urresko dirua ekarri zizkion. Neskatoak negar zegian ukusi zuanean; berak ez zuala kate ura ibilliko, berak «domiñea» nai zuala. Aitaren etxera etortzea Garbiñetxu'-rentzat gozaren orde z negarra izan zan.

Aita ta biak neregana etorri ziran, eta orrela, Juan Zabalbeaskoa, etxera etorritako egunean gutu nuan. Garbiñetxo sotiñka zetorren.

Aitak erakutsi zidan umeari ekarri zion erregaloa, eta galdetu zidan:

—Bai aldaki bedorrek, onek zenbat balijo daben?

Eta, nik erantzun nion: —onek ogei dollar, eta katiak be asko balixoko dan, sendua ta ederra da ta.

Eta orduan pozik esan zion aitak neskatxuari: —Ikusten don, tentel orrek, ikusten don? Mundua ikusi dabien guztijak yakiñe, onek ogei dollar balijo dabena. Domiñak, ostera iñok ez yakiñ zenbat balijo daben, urregorritzkuak barik imitaziñuak be ba-yagozan-da; baña, onek etxaukon imitaziñorik, au zer dan, da zer balixo

daben bistan yaukon; ogei dollar. Ta juari Ban-ko'ra, ta an esango une ogei dollar urregorritan zenbat diru didezan. Bilboko dendetan etxan orrenbeste balixo daben domiñarik.

(Au ez da ipuiña, au, neuk entzuna ta ikusia da. Garbiñe bizi da oraindik).

## BA DARUAZ ERIJUAK BANAKA-BANAKA

Ereño izena duan Bizkai'ko erri batean gizon bat il zan, luzaroan gaxo egonda gero. Eguardian ill zan. Bere emazteak, goizean, libra bat legatz iriñakiñ da arrautzekiñ batuta, prejitu ta plater batean sukaldeko armarioan gorde zuan, bazkeritan jateko asmoz. Eta senarra ilda zegoan gelan asi zan legatza jaten Nonbait aiñ gaxo luzeaz, aspaldian etsita zegoan emaztea eta senarraren eriotzak ez zion jateko gogorik kendu noski.

Baña puska bat jan zuanerako asi ziran auzo-etako andreak etortzen il-kanpaya asi zanean. Andreak, eskuetan zeukan legatz pusketaz betetako platera, itxumustuan, ildakoan oepean eskutatu zuan eta arpegi ituna ipiñirik auzoko andreakiñ negarrez asi zan.

Katu bat zuen «Erijo» izena zuana, eta legatzan usaira ildakoan oepean sartu, legatz zati aundi bat artu aoan eta ariñ juan zan igesik.

Iñork ez zuan ikusi alargunak izan ezik, eta onek naigabe aundiakin esan zuan:

—Bai daruaz Erijoak banaka-banaka. (Legatz pusketagaitik alegia) Eta auzoko andreak eran-tzun zieten:

—Zer egingo dogu ba Kospiñazi, geu be eruango gaituez ta.

Onetan sartu da berriro ere katua ta eraman du beste legatz puska bat.

Eta alargunak, berriro len baño larriago: —Ay ene! Bai daruaz Erijoak ostera be.

Eta berriro katua ikusi zuanean

—Emen dator Erijoa, bat be eztau itxiko.

Au entzun zutenean, andre guztiak kurrirka batean asi ziran bildurtuta, eta batak besteari bultzaka erten ziran kalera, eriotza euren billa zetorrelakoan.

Orduan alargunak jan al izan zituan iñork ikusi gabe, katuak utzi zituan legatz-pusketak.

## PROMETEO'N IPUIÑA

Antziñako denboretan, oraiñ millaka urte asko, munduan gizon aundi batzuek bizi ziran: erraldoyak. Baña oraindik ez zan lurrean surik, eta gizadia oso gaizki bizi zan surik gabe. Jaki danak gordiñik jan bear zituzten, neguan oso otz aundiak igaro eta, surik ez zeukelako, gizadiak aurrerapen gutxi egiten zuan.

Erraldoyen arten bai zan bat Prometeo izena zuana, oso zan ona ta naigabe aundia zuan munduan surik ez zalako. Bai zekian noski su gabe ez zegoala aurrerapenik.

Augaitik Prometeo egun batean ausartu zan Jupiter'engana juaten, eta eskatu zion sua; baña onek erantzun zion gizadiari naikoa gauza eman ziola eta ez zijoala surik ematera. Gizonak, eurak asmatu baño ez zeukatela.

Prometeo guztiz naigabetua gelditu zan erantzun onekiñ.

Sua, Jupiter'ek ondo gordea zeukan, bera bizi zan Olinpo mendian; baña Prometeo'k, egun

batean Olinpo'ra igo, ta su-txingar bat ostu ta mundura ekarri zuan, da gizoneri eman zien.

Sua euki zutenetik gizonak askoz obeto bizi ziran, okela egosita edo erreta jaten zuten; neguan su ondoan berotzen ziran; otsoak eta pizti gaiztoak suakin uxatzen zituzten; eta burnia egiten azi ziran oletan.

Jupiter'ek ez zion barkatu Prometeo'ri egin zuan lapurreta, eta agindu zuan Kaukaso izena duten mendietako aitz batean lotu zezatela larru-bizian, eta arrano aundi batek sabela puskatu ta estiak atera zeizkiola.

Prometeo, urte askotan egon zan oñaze ikaragarriak igarotzen, baña aranetara begiratzen zuanean eta kea ikusi, poztutzen zan eta esaten zuan: —«Gizadia aurrera dijoa, geroago ta aurre-rago».

Azkenez, egun batean, Herkules izena zuan erraldoi batek ill zuan arranoa, urrezko azkon batekin; eta Prometeo'k bere burua aske ikusi zuan.

## DIK ETA ERRALDOYA

(Iparralde errietako ipuiña)

Egun guztian kantuan igaro oi zuan Dik'ek. Kantuan eta leku batetik bestera ariñiketan. Basoa geyen atsegin zitzayon, eta ez zion iñori iñoiz kalterik egiten.

Igande goiz batean, erraldoy bat ikusi zuan basoan, eta beriala igerri zion bera arrapatu nai zuala.

Dik, zugatz aundi baten atzean ezkutatu zan baña erraldoyak ikusi zuan eta arrapatu ere bai. Eta buruz bera, ankatxuetatik txintxilika bere etxera eraman zuan. Dik'eri, odol guztiak burura jo zioten eta ez zekian ez nor zan bera, ez nun zegoan.

Erraldoyak, burnizko ariakiñ egindako kartze-la baten sartu zuan eta jatekoa ipiñi zion ontzi batean.

Biaramon goizean erraldoyak amorru aundia artu zuan Dik'ek ezer ez zuala jan ikusi zuanean, eta kartzelatik atera, ta gogorkeri aundiz aoa ire-



kiazi ta jatekoa sartu zion. Dik gixajoa itto ez zanean!

Urrengo egunean, berdiñ ; Dik'ek ez zuan ezer jan nai ta estuasun aundiak igaro erazi zizkion jatekoa aotik nai ba'zuan, ta nai ez ba'zuan sartzen. Dik'ek zeukan larritasunakin arnasarik ere ezin artu.

Gero erraldoyak agindu zion kanta zezala. Baña, nola kantatuko zuan bada ikara batean dar-dar eta biotza saltaka zeukalarik? Nola zeikean erraldoi gaiztoak ori ez aitutzia?

Orduan, erraldoyak, artu ankatxo bietatik eta zapi zar bat bezelaxe astindu zuan. Eta Dik ilda gelditu zan.

Umetxo maiteak: Ez al'diozute Dik'i txoritxo baten antzik artzen? Eta erraldoyari, txoritxoak kabian arrapatu, kayolan sartu, ta bizitza txarra ematen dioten mutiltxo gaiztoena?

# 61

## URREZKO AIZKORA

Txabola zar-zar batean senar-emazte batzuek bizi ziran beren umeekin. Guztiz txiroak edo pobreak ziran eta otz aundia zan egun batean gizona basora juan zan egur billa. Jateko gauza aundirik ez zeukaten ezkeroz, berotzeko sua bada ere izan zezaten.

Ibai aundi baten ertzean asi zan egurra eba-kitzen, eta eskutik irrist eginda aizkora ibaira erori zitzayon. Ibayak ur aundiak zeramazkian, eta gizonak aizkorarik ezin atera zezakean. Eta nola ez zuen beste aizkurarik, ez berria erosteko dirurik, urari begira negarrez azi zan.

Hermes agertu zitzayon eta galdetu zion: — Gizona, zer dezu orrela negar egiteko?

—Egurretara etorri naiz eta aizkora uretara erori. Gaur gabeen nere umeak otzak ilko ditu.

Hermes uretan sartu eta urrezko aizkora bat atera zion.

—Au al'da zure aizkora?

—Ez, ori ez da nere aizkora.

—Berriro uretan sartu ta Hermes'ek zillarrezko aizkora bat atera zuan.

—Au al'da zure aizkora?

—Ez, ori ez da nere aizkora.

Irugarren aldiz uretan sartu ta Hermes'ek galtzairuzko aizkora bat atera zuan.

—Au al'da zure aizkora?

—Bai, orixe da nere aizkora —esan zuan gizonak poz-pozik.

Eta Hermes'ek esan zion: —Gezurria ez zera-lako ta egia esan dezulako, artu zeure aizkora burnizkoa eta gañera nik opatzen dizutan urrezkoa ere baita.

Gizonak egur karga ederra ebaki ta ariñ juan zan bere etxera urrezko aizkora aldian zuala.

Auzoko gizon batek jakin zuanean gertaera au, —artu zuan aizkora zar bat (bai zuan beste bat ohea) juan zan ibai ondora, bota zuan arrika aizkora ta negarrez azi zan.

—Hermes agertu zitzayon eta besteari bezela galdetu ere bai, —Zer dezu orrela negar egiteko?

—Egurretara etorri naiz eta aizkora uretara erori. Nere ume gaxoak gaur gabeen otzak ilko ditu.

Hermes'ek uretan sartu ta urrezko aizkora eder bat atera zuan.

—Au al'da zure aizkora?

—Bai, bai, orixe da nere aizkora —erantzun zion, esku biak luzatuaz.

Baña Hermes'ek esan zion:

—A, gezurti zarra! Uste izan dezu neri ziri ori sartzea? Eta gezurren bitartez neri urrezko aizkora kentzea? Ez orrelakorik. Ez dizut ematen ez urrezkorik eta ez eta ere zeuk bota dezunik. Eta gañera, etxean gordeta utzi dezun aizkora ez dezu iñoiz billatuko. Eta ala gertatu zan.

## JAUNGOIKOAREN AUNDITASUNA

Hierón, Siracusa'ko erregeak, eskatu zion Simónides jakintsuar, azaldu zegiola Jaungoikoaren aunditasuna. Simónides gizon jakintsuak egun biko epea eskatu zion.

Egun bi igarota, erregeak ostera galdetu zionean, lau eguneko epea eskatu zion pentsatzeko; eta lau egunak igaro ziranean zortzi eskatu zizkion, eta gero amasei, eta gero ogetaamabi, eta gero irurogeitalau, eta orrela beti, gero baño gero egun geyago.

Erregea aspertu zan ainbeste itxaroteakiñ eta galdetu zion ia zergaitik egiten zion ori.

Eta Simónides jakintsuak erantzun zion:

—A, ene erregea! Zenbat eta geyago pentsatzen detan, eta zenbat eta obetoago adiralduzen detan, ainbat eta gaitzago egiten zait Jaungoikoaren aunditasuna azaltzea. Ezin bai du gure adimen txikiak Jaungoikoaren aunditasun neurri gabea aditu.

## NUN DAGO JAUNGOIKOA?

Obispo jaun batek, bere eleiz-barrutiko erriak ikusten zebillelarik, artzai zebillen mutil koskor batekin izketan egin zuan.

Artzaitxoak, bear bezela belauniko jarrita elastunean mun egin zion, eta asiera onak agintzen duan bezela apalki egun onak eman zizkion.

Obispo jaunari atsegin izan zitzayon artzaitxoa, eta esan zion:

—Zuk, mutiltxo argien arpegie dezu. Esan egidazu Jaungoikoa nun dagoan eta urresagar (naranja) bat emango dizut.

Eta artzaitxoak erantzun zion

—Urresagar bat Jaungoikoa nun dagon esateagaitik? Bi emango dizkiot nik berorri Jaungoikoa nun ez dagoan esateagaitik.

Obispo jaunak mutiltxoa adimen aundikoa zala igerririk, berekiñ eraman zuan Apaiztegira, eta artzaitxoa apaiz egin zan.

# 64

## ITZIARTXO

Oso nexka ona zan Itziartxo. Nik nai neuke ipuiñ, abek irakurtzen dituzten umeak bera bezelakoak izatea.

Itziartxo'n aitak biraoak esateko oitura gaiztoa zuan, eta Itziartxok naigabe aundia artzen zuan aitari orrelako itz inpernutarra entzuten zionean.

«Amaika urte bakarrik zituan neskatxoak, eta aitak biraoakin egiten zituan pekatu larriak Jaungoikoari ordaintzeko barau egiten asi zan. Gosaritan esnea bakarrik artzen zuan, arratsaldean, eskolatik etorritakoan, ezer ere ez, eta gabean aparitan esnea besterik ez.

Aitak egun batean galdetu zion:

—Ume, aspaldiko egunetan oso gutxi jaten dezu, ez al'dezu gogorik? Sendagillari esan bearko diot.

Eta Itziartxok laztan bat eman ondoren, apal-apal eta ixilki belarrira esan zion: —Aitatxo, zuk

esaten dituzun biraoagaitik nik egiten det penitentzi ori.

Aitari begiak malkoz bete zitzaizkion, eta bere alabatxoak estu-estu besarkaturik, biraorik ez esateko itza eman zion. Eta gañera emandako itza bete zuan, gizonak bete oi duten bezela.



**AUNDIKERIEN AURKA...**

Jaun aberats batek egun batean esan zion txoferrari, minberatzeko asmorik gabe: —Zuaz or aurreko deuda orretara eta koipe-gezea ekarri ezazu.

Txoferrak aopean zerbait esanaz erten zuan nagusian gelatik, eta onek galdetu zion:

—Zer esaten ari zera or mar-marrean?

—Jauna, koipea erostea ez dala nere eginbearra.

—Ez? Norena ba?

—Sukaldeko neskamearena.

—Eta zure eginbearra, zer da ba?

—Nerea, beribilla (automobilla) erabiltzea.

—Ondo diozu: atera ezazu ba beribilla, eta eraman zazu sukaldeko neskamea koipearen billa.

**ZEURE BURUARI ESKATU**

Eskines, Helade'ko bertsolari aipatua estu zegoan dirurik ez zeukalako.

Sókrates jakintsu aundiaarengana juan eta esan zion: —Diru bearrean aurkitzen naiz eta ez dakit nori eskatu.

Eta Sókrates'ek erantzun zion: —Eskatu egiozu zeure buruari. Ez dezu ori baño diru emantzaile obeagorik. Erreditu gabe emango dizu.

—Nola leike? —galdetu zion bertsolariak.

—Oso erraz: gutxiago gaztatuaz eta geyago gordeaz.

## 67

# GUTXIAGO JAN

Atenas'eko gizon aberats batek esan zion Sókrates jakintsuari: —Ez daukat ezer jateko gogorik. Ez diot ezeri gustorik artzen. Izan leikezan jatekorik onenak eta onduen ipiñiak izaten dira nere mayan, baña nik eziñ izaten ditut jan.

Sókrates'ek erantzun zion: —Nik emango dizut gaitz orrentzat sendakia. Zuaz txiro edo pobre baten etxera eta egun batzuek an igaro itzatzu, eurak jaten dutena bakarrik janaz, eta ikusiko dezu jateko gogoia nola etorriko zaizun. Jan ezazu gutxiago, eta jan egizuz gauza erreza-goak, eta errezago ipiñiak eta jatekoari gustoa artuko diozu. Jakiari obeagoak dirala iritziko diozu, gutxiago gastatuko dezu eta osazun ohea izango dezu.

## MATRILLUEN SOÑUA

Zizurkill'ko errementarian semeak soldadu juan bear zuan. Aita-semeak bakarrik ziran, oso langilleak biak, eta aita zerbait zarra. Denbora aretan lau milla errial ordaindu ezkerro soldadu joan gabe gelditu zeikean. Errementaritzan aita bakarrik gelditu ezkerro gaizki ikusi bear zuan bere burua eta semea soldadutzatik askatzea pentsatu zuten biak. Baña ez zuten lau milla errialik.

Apaiz jaunanera zuzendu zan aita lau milla errialen eske erreitua pagatzekotan.

Torizuz lau milla errialak, —esan Zion apaiz jaunak— ez det erreiturik bear. Zuen errementariko matrilluen soñuak kale guztia betetzen du, soñu ori da nere erreitua. Bai dakit langilleak zeratena eta engañatuko ez nazutena ere bai.

Zizurkillen bai zan denbora aretan etxe jaun alper bat iñoiz lanik egin gabea, ta noizean bein, bere gurasoak utzi zizkioten lur bat, edo etxe bat saldu ta jan da edan eta ibilliz bizi zana. «Zuma-

labe'ko nagusia» esaten zioten Zizurkillen; baña nagusitasunak gutxitzen zijoazkion.

Erri guztian jakiñ zan apaizak errementariari eman zion dirua, eta Zumalabe'ko nagusia juan zan apaiz jaunaren etxera diru eske.

Baña apaizak ez zion dirurik eman, eta esan zion: —Zuri dirua ematea, zure alperkeria geituztea izango litzake. Nik ez det ez lurren eta ez etxien gañean dirurik eman nai. Nik, errementariko matrilluen soñu alaiaren gañean eman det eman detan dirua.

## 69

# ADISKIDE GUTXI

Atenas'en bizi zan, antziñako denboretan (eta au ez da ipuiña). Diogenes izena zuan gizon bat. Kupel uts batean bizi zan, ura edateko kati-llu bat beste tresnarik ez zuan eta egun batean txakurra errekan ura edaten ikusita, osan zuan.

—Ez det katillurik bear ura edateko, —ta kati-llua arrika bota ta puskatu zuan. Andik aurrera ura eskuetan artuta edaten zuan.

Egun batean, bere kupelean sartuta zegoala, andik igaro zan gizon batek esan zion: —Diogenes, ze etxe txikia dezun.

Eta Diogenes'ek erantzun zion: Adizkidez bete nai nuke.

Adiskide onak gutxi izatea, antziñakoa da non bait. Bizitza onetako gora-beretan adiskide-tzat euki degun bat edo bestek languntasunak egin ez, edo ez ezagutu egin, edo sorbalda eman egiten. ba'digu oroitu gaitezen Diogenes'ek kupela adiskidez ezin bete izan zuala.

# 70

## ZORION OSOA

Gizon aberats bat, lorategi aundi eder baten erdian zegoan jauregi batean bizi zan. Aberatsa zan, baña ez zoriontsua, eta pentsatu zuan zorion osoa zuan gizonik ete zegoan mundu onetan.

Eta bere lorategiko burnizko ate ederrean idatzi auxe ipiñi zuan: «Benetan zoriontsua dala uste duan pertzoneari emango zaizkio lorategi ta jauregi au».

Beriala etorri zan gizon gazte bat eta esan zion —Jauregi ta lorategia nereak dira, ez dago bada mundu guztian ni baño gizon zoriontsuagorik.

Aberatsak erantsun zion: —Ain zoriontsua zerala diozu? Ez dezu beraz ezeren nairik, ezeren bear izanik?

—Ez, nik ez det ezeren paltarik, ez iñoren gauzen inbidiarik. Ni zoriontsua naiz, Jauregi au neretzat da.

Eta aberatsak esan zion: —Ez dezula ezeren nairik, ez dezula ezeren paltarik, eta zertan zatoz bada nere jauregiaren eske?

Mundu onetan ez dago zorion osorik. Zorion osoa Zeruan.



# 71

## IRUTASUN EDO TRINIDADEA

Algorta'n dago konbentu eder bat Trinitarioak izena duten prailiena. Euskeraz egiten dutenak Trinidadeko konbentua esaten diote. Kale bat ere bai dago Trinidad Santuaren kalea izentzat duana.

Garizuma baten, Berango'ko mutill bat jua zan aitortzera Algorta'ko San Nikolas eleizara, eta konpesatu ondoren abadeak kristau ikasbidea ote zekian jakitearren, galdetu zion:

—Zenbat pertsona dagoz Trinidadean?

Eta mutillak beriala, ezta-baita gabe erantzun zion:

—Ogeitabos, jauna, eta geure amak garbituten deusie erropia.

Abadeak igerri zion zer esan nai zuan eta esan zion:

—Zuk, Trinidad konbentuko prailleak esan gura dozu; baña nik ez deusut ori itandu gura

izan, Trinitadean zenbat pertsona dagozan esan deusutanean.

Eta mutil azkarrak beriala

—Zer ba, prailleak ez direz pertsonak ala?

## MIDAS ERREGEA

Antziñako denboretan, Jesukristo lurrera etorri baño len, bazan errege bat Midas izena zuana.

Gutziz aberats zan, ez zekian zenbat gauzaren jabe zan; Jauregi aundiak, amesetan bakarrik ikusi oi diran lorategi eder eta baratzak, dirua berriz urretan eta zillarretan eziñ zenbatu aña.

Ala ere Midas ez zegoan asea, geyago eta geyago eskatzen zuan.

Urtean baño urtean bere erriari karga aundia-goak ezartzen zizkion diru geyago batuteko.

Egun batean Hermes agertu zitzaion mutill gazte eder baten irudian eta esan zion: —Errege Midas, aberastasun aundien jabea zeran arren, zuk geyago nai dezu.

—Bai ala da.

—Esan egidazu zer nai dezun eta nik iritxiko dizut.

—Ara, —esan zion erregeak— eman egidazu nik ikutzen ditutan gauza danak urre biurtzeko almena.

—Ematen dizut bada erantzun zion Hermes'ek, almen ori egun baterako.

—Ay ene bada! —esan zion erregeak negar egiteko zorian—, egun bat gutxi da; ekatzu urte bete bada ere, nik bizitza guztirako nai nuke baña...

—Egun baterako bakarrik ematen dizut, egun bat igarotakoan, geyago nai ba'dezu emango dizut.

Gabaz, oean zegoala agertu zitzaion Hermes, eta goizean esnatu batean jaiki zan oetik eta arpegirik eziñ izan zuan garbitu: Ura, jaboia, eskuzapia, orratzia, ikutu zituen gauza guztiak urre biurtu zitzaizkion. Pentsatu zuan egun bategaitik ez zegoala ardurarik garbitu gabe egon arren eta Juan zan jantokira. Jarri zan mayan, baña goserik eziñ kendu izan zuan. Ogia, esnea, sagarrak, ezitia eta ikutu zituan jaki ta edaki guztiak urre biurtu zitzaizkion. Pentsatu zuan egun bateko jan-ezak ez zuala galduko eta loretegira juan zan.

Ara etorri zitzayon bere alaba bakarria amabost urteko neskatxoa, izarra baño ederragoa.

Midas'ek egunero egiñ oi zuan bezela, maiteasunez besarkatu zuan eta... alaba gabe gelditu zan. Urrezkoa biurtu zitzayon. Lorategia apaintzeko urrezko irudia.

Midas erregea negarrez Hermes'eri diadarka asi zan: «Hermes, ermes!, agertu zaite, atoz neregana, kendu egidazu neuk eskatuta zuk emani zidazun almen madarikatu au. Alaba galdu det, alaba gabe naiz».

Hermes agertu zitzaion eta kendu zion almena. Eta Midas erregeak gorrotatu zuan urrea, gorrotatu zuan dirua; ez zuan nai izan ainbeste aberastasunen jabe, tabere erriko pobreak ondo jarri zituan. Kontribuzia ta kargak asko gutxitu zizkion erriari, eta andik aurrera oso errege ona izan zan. Eta bere erriak malte izan zuan.

## GOIZEKO IZARRA

Nere 54'garren ipuiña irakurri dutenak oroituko dira nola aingeru txiki bat jatxi zan Gabon gau batean Zerutik Lurrera, eta zer egin zuan.

Aingerutxo onek Zerura eldu zanean, barrura sartu baño len, azkenengo aldiz, begiratu bat egiñ zuan Lurreruntz, eta zeru izarratu ederrean zulo beltz bat ikusi zuan. Izar bat palta zan an. Berak artu zuana. Eta negarrez azi zan Juangoi-koak egindako Izadia itxusitu zuala pentsaturik.

Andre Maria igaro zan andik. (Andre Mariak ez du nai zeruan negarrik). Eta aingeruari galde-tu zion negarraren zegaitia. Eta aingeruak esan zion, an, urruti artan, palta zan izarra, berak artu zuala, eta txabola txiro batera eramane, ume on bati zerbait ematearren, eta oraiñ ia zer egin zezakean.

Ama Birjiñak esan zion: —Ez negarrik orregaitik. Ara zenbat izar eder dauzkatan nere soñekoan; —eta bat arturik, eman zion aingerutxoari eskuetara, esanaz: —Zuaz ariñ-ariñ, eta len iza-

rra kendu dezun lekuan. ipiñi oraiñ au, eta ariñ etorri atzera Zerura; ni emen egongo naiz atean.

Aingerutxoa Joan zan egazka eta Ama Birjiñak eman Zion izarra, lengoen orde z leku berean ipiñi zuan eta zeruratu zan.

Lurrean bizi ziranak, artzayak eta itxasgizonak batez ere ariñ ikusi zuten izar berria, besteak baño zuriagoa, ederragoa, eta argitsuagoa, ta azkena itzaltzen dalako «Goizeko Izarra» ipiñi zioten izena.

Beste izarrak baño ederragoa, bai aldakizute zergaitik dan?

Ama Birjiñaren izarra dalako.

## TXAKUR LUZEA

Bazterretxe'ko Txomin eta Arizpe'ko Martolo, bidaniarrak biak, Tolosa'ko ostatu batean an dira bazkaltzen azoka-egun batean, Bei bana ekarri dute periara eta ondoxamar saldu dituzte ta barru alaiakin daude.

Txomiñ'ek dio Martolo'ri: —Bazterretxera telegrama bat bialdu al ba'lei, gure Jabelaiñazi'ri bialduko nioke, neu etxeratu baño len jakin dezan zenbat diru artu detan beyakin.

Eta Martolo'k dio: —Neuk ere beste ainbeste egingo nitek, baño etziok egiterik. Baña, aizak, oraingo moduan gauzak ba'dijuaz, ori ere ikusi-ko diagu Bidania'n.

—Eta nola leikela elaberriak aiñ ariñ leku batetik bestera eramatea?

—Gauza erraza dek ori, mutill: burniarien punta batean ikutu eta... trist! beste puntak luma batek bezelaxe eskribitzen dik.

—Nik ezin diat ba ori ulertu. Ez dek aiñ erraza, ezta gutxiagorik ere.



—Neuk azalduko diat ondo. Ara: Txakurrik bai aldezute Bazterretxen?

—Bai.

—Nolaoka dezute, aundia ala txikia?

—Ez aundi ta ez txiki.

—Ta, ik buztana zapalatzten diokanean zer egiten dik?

—Zer egingo dik ba, zaunka.

—Tira ba, iruditu bekik, zuen txakurra luze-luzea dala, Bidania'tik Donostirañokoa; Bidania'n buztana ta Donostia'n burua dituala. Ik, Bidania'n buztana zapalatzten ba'diok, gauza jakiña dek Donostia'n zaunka egingo duala. Ara or bada, ondo azalduta, telegrafua zer dan.

**ARRATOI BATZALLEA**

Urte asko dira au gertatu zala Alemania'ko Hameln izena duan erri batean.

Erri orretako biztanleak eziñ burutu zuten arratoyak begi biak atera bear zizkielako. Ipar aldetik zetozen errira, baña millaka, talde aundietan, bideak eta lurra zearo estaltzen zituzten eta beltz-beltz ikusten ziran. Erriko gari guztia jan bear zuten eta ariñ sendagaya ipiñi ezik Hameln'eko biztanle guztiak goseak il bear zituan. Alakorik ez!

Ekarri zituzten Brême'tik itxasontzi bat bete katu, baña alperrik. Milla iltzen bazituzten amar mila etortzen ziran, eta lengoak baño gosetiagoak.

Orra bada, ostiral egun batean aurkestu zituzten alkate jaunari gizon luze bat, galtza gorriak soñean zituana, su koloreko oñetakoak, eta txapel punta zorrotza, eta alkateari eskeñi zion erria arratoi bat ere gabe utzitzea, eun

diruagaitik. Alkate ta beste erriko jauntxoak poxik ikusi zuten gizona eta baietz esan zioten.

Gizon arrotz onek atera zuan sakeletik txistu bat, juan plazaren erdira, eleizen aurrera (eleiza-ko ateari sorbalda emanaz) eta azi zan txistua jotzen, musika arrotz bat jotzen zuan, alemanak iñoiz entzun ez zuten eresia.

Eta soñu au entzuteaz batera ara nun datozen, ganbaretatik, okolluetatik, tellatuetatik, orma zuloetatik, leku guztietatik, saltaka postuan bezela sagu ta arratoyak, eunka, millaka dana soñujotzalliengana.

Au, beti soñua joaz, arratoi guztiak atzetik zitularik Weser ibairantz juan zan; eta eldu zanean oñetakoak kendu ta uretan sartu zan. Baitabere ondoren Hameln'eko arratoi guztiak ere, eta danak an itto ziran.

Gizon arrotza Erriko Etxera juan zanbere eun diruren billa, baña alkate ta jauntxoak ikusirik erriko arratoi danak garbitu zirala eta gizon arengaitik ez zitzaiotela ardurarik esan zioten amar diru besterik ez ziotela ematen eta nai zuan lekura jokatzeko.

Gizonak esan zien, itza, itza zala, eta berak bete zuan bezela berea, bete zezatela beraek ere eta eun diruak emateko, bestela ori baño garsiago kobratuko zualabere lana.

Alkate ta jauntxoak nai aña parre egiñ zioten eta kalera atera zuten arratoi batzallea, esanaz eta kalietako mutill koskor guztiak ere «arratoi batzalle», «arratoi batzalle», deituaz jarraitu zioten Ate Berriraño.

Urrengo ostiralean, eguardiko amabietan, plazen erdian agertu zan gizon arrotza berriz ere; oraingoan txapel gorri-gorri bat buruan zuala.

Atera zuan sakeletik txistu bat, ez lengoa, beste bat baizik eta soñua jotzen asi zanean erri guztiko umeak, sei urtetik amabost bitartekoak inguratu zitzaizkion eta danak atzetik zituala erten zan erritik.

Hameln'eko biztanleak jarrai zioten Koppenberg izena duan mendiraño, gaur estalita dagon leize zulo baten ondora arte. Soñujotzallea leize zuloan sartu zan eta ume danak berakiñ. Denbora apur baten entzun zan oraindik soñua, baña

gutxituaz, gutxituaz, ixildu zan ziara. Eta ez zan geyago entzun.

Ume danak leiza zuloan eskutatu ziran eta ez dira geyago agertu. Eta euren berririk ez da iñoiz izan.

*Prosper Mérimée'n «Le preneur de rats»etik euskeratua.*

# 76

## BIDAZTIARI OSTATUA EMATEA

Antziñako denboretan, gaur U.R.S.S. izena duan nazioari Moscovia esaten zitzaionean, ango errege edo Tzar batek jakin nai izan omen zuan bere menpekoak errukiorrak ziran ala ez. Eta eskale baten antzera jantzita erri txiki batera juan eta atez-ate, gaba igarotzeko lekua eskatzen ibilli zan.

Etxe danetan ezetz esan zioten sendi edo famili txiro-txiro baten izan ezik. Gizonak sua egin zuan eta berotzeko esan zion, baita bereztat eginda zeukan sopen erdia eman ere.

Gau artan, famili artako lenengo semea jayo zan, eta urrengo goizean, Tzar-ek, juaterakoan esan zion gizon errukarriari, bere semetxoentzat aita-ponteko bat ekarriko ziola.

Tzar'bera etorri zan berrero, baña oraingoan Tzar bezela jantzita, eta bere ondoren jaun asko zituala. Bera izan zan umetxoaren aita-ponteko ta senar-emazteak aberastuta utzi zituan.

Eta beriala agindu zien bere soldaueri, ostaturik eman nai izan ez zioten etxe danak su eman eta erretzeko, jende gaizto ayek gaba kanpoan igaro zezaten, ia errukitsuagoak izaten ziran gau otz bat apaldu gabe, surik gabe, ta tellatupe gabe igaro ta gero.

**KUKURUKU!**

Gure Euskalerrri maite onetan, antziñako denboretan sorgiñez gañera bai omen ziran, lamiak edo, lamiñak ere. Sorgiñak non-nai bizi oi ziran, baña lamiak, itxas-ertzetan, ibaiondoetan, erreka-bazterretan, osiñ inguruetan eta abar. Beti uren urrean. Bizkaya'n bai da leku bat, gaur kristal ola aundi bat dagona; eta leku orrekbere izena lamiari zor dio Lamiako da.

Sorgiñak kalteak bakarrik egiñ oi zituzten, baña lamiak mesedeak ere bai ; artoak ereiñ da jorratu, gariak ebaki ta jo, zapiak errekan garbitu eta abar. Gañera, lamiak langille ikaragarriak izan bear zuten; ala dirudi beintzat euren ipuiñetatik. Ara emen bat:

Gizon batek etxe berria asita zeukan jundaneko urtietan, baña asita beste gabe. Ez bai zuen dirurik bukatzeko.

Egun batean lamiakiñ itz egin zuan, eta tratu itxi. Lamiak illuntzeako «Anjelus»ean asi eta ollarrak lenengo kukurrukua jo orduko etxea



amaitzea, eta gizonak lan guzti onen ordeaz bere arima ematea, tratua izan zan.

Esanda bezela, «Anjelus»eko kanpayak ixildu ziranaz batera asi ziran lamiak lanean. Baña, nola? Ura lana egitea! Batzuek arriak ekarri, besteak ondarra, besteak karea, besteak morterua egiñ, besteak ormak jaso; danak, euren ille luzeak arrastaka zituztela, «arnasa artzeko astirik gabe» esan oi dan moduan. Etxea gora zijoan, tellatua ematen asi ziran, eta gure gizona estutu zan anima eman bearra izango zualako.

Eta, zer egin zuan? Ukulluko atian atzekaldera joan eta kandela bedeinkatua pixtu.

Ollarrak argia ikusi ziranean, goizaldea zala-koan, iKukurruku! jo zuan. Eta orduan lamia guztiak kurrixka aundi luze-luze bat egiñ, eta iges egiñ zuten. Auxe egiñ zuten kurrixka; inguruko mendi tontor guztietatik entzun zana: Oiiiiiiii.....O! iO..... Ooooooooo.....!!!

## PERRA TA KEREXAK

Abadiño'tik Berriz'era zijoazen oñez aita-  
 seme batzuek, bide zabaletik.

Bide-ertzean aitak perra bat ikusi zuan, zaldi-  
 ren baten eroria noski. Aita gizon zurra zan eta  
 esan zion semeari: —Anton, jaso eik perra ori,  
 berri-berria dok-eta. Baña semeak, amabi urteko  
 mutil koskorra zan arren, gerria gogorra zeukan  
 nonbait eta erantzun zion:

—Perra batek ez dau ezer balio, aita, ta  
 zetzaz makurtuko naz ba? Goyazan aurrera.

Aitak, makurtu ta jaso zuan perra ta jarraitu  
 zion bideari. Durango'tik igaro ziranean, Kuru-  
 tzeaga'ko perratokian saldu zuan perra iru txa-  
 kur txikian, eta denda batean diru arekiñ kere-  
 xak erosi zituan. Ipuiñ au irakurten dutenak ez  
 dezatela uste izan gezurra diotanik.

Oraindik ogei urte baño gutxiago dira kilo bat  
 kerexa iru txakur edo errial batean erosten zira-  
 la gure errietan.

Ekiñ zioten bada, Berriz'ko bideari aita aurretik eta semea atzetik. Bero aundia zan, arratsaldeko irurak, eta aita San Pedro egunaren biaramona.

Aita, noizean bein, kerexa bat edo bi lurrera botatzen asi zan ezer esan gabe. Mutiltxoak ariñ ikusi zituan kerexok, eta bai jaso ta jan ere pozik. Gerria bigundu zitzayon nunbait.

Olakueta'raño onela juan ziran, aitak kerexak bota ta semeak jaso ta janaz. Baña kerexak bukatu ziran eta aitak ezin zuan geyago bota. Orduan semeak esan zion:

—Aita, ez aldezu geyago kerexik?

Eta aitak erantzun zion:

—Ez, seme, jan dozak danak, banaka ta biñaka lurretik jasota. Perra jasotzeko esan duatanian altzau ba'eban, ez uan gero ainbeste bider makurtu bearrik ixango kerexak altzetako. Beiñ makurtu izan gura ez dokalako, gero ogei bider makurtu biar izan dok. Ez adi izan alperra, alperra zorriak jaten juek-eta.

# 79

## GATZAREN ARRAK

Amezketako Pernando, ipuiñ abetan asko aitatu detan gizon azkarra, Ernani'ra jua zan beiñ batean perira. !Ez du gaur eguneko Ernani'k ordukoaren antz aundirik! Gaur eguneko Ernani'k, Errenteria'k eta beste Euskalerrri'ko bazterrak galdu dute euskal usai gozoa. Au zori txarra!

Baña denbora artan Ernani euskaldun utsa zan, zorionez. Ordukoak dira «Bertso berri» onela asitzen diranak:

*«Joan dan ostegunean  
amabost Ernani'n,  
betroi baten tratua  
genduen egiñ.  
Iñazio saltzalle,  
Erostuna Permiñ...»*

Orra bada, ostegun batean Pernando Amezketarra Ernani'ra jua zan len esan detan bezela.

Bertako erretore jaunak jakiñ zuanean, edo ikusi zuanean bazkaltzera bere etxera eraman zuan. Don José Miguel Sagastizabal, Ernani'ko erretore jauna oso umore onekoa zan eta mairatu ziranean Fernando'ri esan zion: —Aizu: gauza bat jakitearren ekarri zaitut. Zu gizon argia ta burutsua zerana danok dakigu bada ta. Ara, Donostia'ko «Irigoyen Anayak» (bai dakizu gatzaren saldu-erosketa aundia dutena), Cádiz'tik itxas-ontzi bat ekarri dute gatzez kargatuta, len askotan ekarri izan duten bezela, baña oraingoan ezbiar aundia izan dute; gatzari arrak egin zaizkio eta ez da saltzeko gauza. Augaitik, oso estututa daude eta zuri galdatzen dizut ia erre-mediorik ote daukan, bestela diru asko galdu bear dute-ta. Nere lagun aundiak dira Irigoyen'tarrak.

Pernando'k ixil-ixillik entzun zion eta ben-benetan erantzun zion: —Bai, jauna, bai; badu erre-medioa.

—Zer erre-medio?

—Mandoaren esnea.

—Baña, madoak ez baidu esnerik!

—Ezta gatzak ere arrik.

Eta. batere aserre gabe, patxara aundian  
bertso au bota zion Erretoreari:

*Mandoak ez du esnerik,  
Ezta gatzak arrik;  
Ez dezute Fernando'ri  
Zuek eingo parrerik.*

## KASTREXANA'KO ZUBIA

Bilbao'ko auzotegi bat da Kastrexana. Burgos'ko lurrean sortutako ibai bat igarotzen da auzotegi onetatik, Cadagua izena duana, eta bere gañean zubi aundi bat dago, arko bakarduna, dana arriz egiña, zatitxo txiki bat izan ezik. Zatitxo au ladrilluekin egiña dago. (Gaur bertan ere onelaxe dago zubi au; neuk askotan ikusia det).

Ara, zatitxo onen zegaitia, aspaldiko ipuiñak esaten duten bezela. Kastrexana'n ibai ederra zuten, baña beste aldera igarotzeko zubirik ez, eta zubia egiteko dirurik ere ez. Eta erriko jauntxoak Lejona'ko lamiakin tratua egin zuten. (Lejona'ko errian, Lamiako izena duan lekuan lami asko zan denbora artan). Eta lamiak itza eman zuten, urrengo ostiral illuntzean asi ta gaberdirako amaituko zutela zubi eder bat. Ordez, zubia bukatuta, Kastrexana'n jaiotzen zan lenengo aurraren anima berentzat izatea.

Esanda bezela, urrengo ostiralean Avemari-takoa ixildu zanakin batera azi ziran lamiak lanean, ariñ baña, berak bakarrik lana egiñ al duten eran.

Sodupe'ko abade jaunak ordea kanpantorre-ko erlojua ordu laurden bat aurreratu zuan. Eta gabeko amabiak Sodupe'ko eleizan jo zutenean, lamiak arri bat bakarra palta zuten zubia bukatzeko, ta azkeneko arri bakarra ibaira bota eta irrintzi luze, triste bat eginda danak bizirik al zuten azkarren, iges egin zuten.

Urrengo egunean, Kastrexana'tarrak arri bakar ura eziñ igitu izan zuten errekan. Eta orduan ladrilluakin itxi zuten palta zan arri aren zuloa; eta kito.

Lamiñak ibaira bota zuten arria gaur ere an omen dago uren azpian, baña nik ez det ikusi.



## TXAKUR BATEN EZAGUERA

Nere aitak ezagutu zuan txakur baten egitanda arrigarra. Txakurrak adimenik ez dutena bai dakigu, adimena jaungoikoak gizonari bakarrik eman dio, baña ala ere aitortu bear degu txakurrak, beste abereak baño sen aundiagoa, askoz aundiagoa duala.

«Petra y Eulalia» izena zuan itxas-ontzi bat Zumaya'tik Gijon'era ibiltzen zan. Aruntzean Zumaya'tik karebeltza edo iraulika eramaten zuan, eta onuntzean Gijon'dik arrikatza ekarri.

Itxas-ontzi onetari txakur bat zuten, «Ariñ» izena zuana.

Gijon'dik Zumaya'ra zetozen batian «Ariñ»ek mariñel bati aginka egiñ zion, eta mariñelak patroiari esan. Patroia oroitu zan, Gijon'en txakurrak berekiñ erten zuala legorrera, ta bi edo iru bider kalietan ibilli ere bai, eta bildurtu zan, «Ariñ» amorratuta ote zegoan pentsaturik.

Barkutik erten izan ez ba'zuan ez zegoan bildurrik baña erten bai zuan! Augaitik patroiak

samintasunez, baña agindu zion: —Bota ezak itxasora. Eta baita bota ere.

Au gertatu zan «Petra y Eulalia» Santander'ko alturan igaro zanean, eta andik laugarren egunean itxas-ontzi au Zumaya'n sartu zanean «Ariñ» patroian etxean zegoan, bespera gabean etorrita.

Nundik nora jo zuan txakur onek etxera? Itxasoz igerian ala mendiz-mendi oñez? Bai itxasoz, bai legorrez edozelan ere, gauza arrigarria da txakur onek egin zuana, eta orregaitik idazten det emen.

«Ariñ» ez zan amorratu, eta urte batzuetan oraindik «Petra y Eulalia»n ibilli zan. Eta itxasora bota zuan gizonari ez zion geyago iñoiz esanik egiñ, ez maitasunik erakutsi.

## 82

# ARGI BI

Seme batek esaten zion egun batean bere aitari —Aita, zu pobria jayoa zera eta aberastuta zaude. Ni berriz aberatsa jayoa naiz, eta ezkondu nintzanean diru mordo ederra eman zidazun arren, ni atzeraka nijoa, urtean baño urtean diru gutxiagoren jabe naiz. Nola atondu zera zu, aita, aberastutzeko?

Izketan ari ziran gelan, argi bi zeuden piztuta eta aitak, jaiki ta argi bat itzaldu zuan. Au egin da exeri zan berriro eta semeari esan zion: —Dirua geitutzia ez dek aiñ gauza sailla; lenengo egiñ bear dekan gauza dek, alperrik ezer ez galztea, eta argi batekiñ igaro al izan ezkerro, bigarren argirik ez piztutzea.

## ILTZE ZULOAK

Aita batek semea oker xamarra zuan, eta zuzendu nairik, okerkeri bat egiten zuanean (gezur bat esan, esanik egiñ ez, eta abar) egur batean iltze bat sartzeko agintzen zion. Semeak, denbora gutxiren barruan, egurra dana iltzez josita zeukan. Aitak esan zion: —Ia, zenbatu itzak ia, zenbat iltze sartu ditukan.

Semeak lotsaturik erantzun zion:

—Berrogeitabi.

—Beraz, berrogeitabi okerkeri egin dituk. Bai dek zerbait; damutu adi eta zuzen-bidean sartu; gaizki ibilliko aiz bestela.

Mutilla zerbait 'aldatzen asi zan, eta aitak, gauza on bat egiten zuanean iltze bat ateratzeko agintzen zion. Eta denbora gutxiren barruan semea juan zan aitagana, eta esan zion: —Aita, iltze danak atera ditut.

Aitak orduan esan zion: —Ondo zio, seme; baña beitu zak, egurreko iltzeak atera dituk, baña zuloak an gelditu dituk.

# 84

## SIÑISMENA

Garizuma eldu zan eta Usurbil'ko baserri batean (eta bestietan ere bai noski) asi ziran Kristau Ikasbidea berrikasten txarteletara juateko.

Etxe au «Pagolagoikoa» zan; gurasoak oso Jaungoikozaleak ziran eta eurak berrikasten zuten bitartean umeeri erakusten zieten Kristau Ikasbidea. Usurbill urruti zegoan «Pagolagoikoa»tik eta umeak ez ziran eskolara askotan joan oi.

Egun batean bada, «Pagolagoikoa»ko gizona umeeri dotriña erakusten ari zan, eta semetxo bateri galdetu zion: —«I, Juliantxo, zer dek siñismena?

—Ikus ez deguna siñistea.

—Ikusi al uan Kristo iltzen?

—Ez, jauna, ez nuan Ikusi, baña siñisten det.

—Ara, emen kutxa onen barruan urdaiazpikoa zio, ik ez dek ikusten, baña, sinistutzen al dek or urdaiazpikoa dagoala?

—Bai, aita, zeuk diozulako.

—Orixen dek bada siñismena.

Andik egun batzuetara lenengo Jaunartzea egiteko dotriña ikastera juan ziran eleizara Usurbil'ko umeak eta «Pagolagoikoa» ko alaba txikiena ere bai. Izazkun izena zuan sazpi urteko neska argia. Apaiz jauna asi zanean: «Zer da siñismena?», galdatzen, iñork ez zekian eta Izazkun'ek esan zuan bizi-bizi, «Neuk dakit, jauna, aitak erakutsita».

—Ia bada, Izazkun; zer da siñismena?

—Gure kutxa aundian barruan dagoan urdaiazpikoa.

**ZENBAT DENBORA...?**

Urduliz'en gizon bat joan zan aitortzera, ta aitorlekuan belauniko jarri ta «Ave Maria Purisima» esan-da ixildu egin zan.

Abadeak orduan esan zion:

—Zenbat denbora da azkenengo aldiz aitortu zintzala?

—Ori, jauna, beorrek jakingo du.

—Nik? Gizona, zelan gura dozu ba nik yakitea?

—Ba, berorregaz aitortu nintzalako.

—Etzara akordetan, zer egun zan edo, egun artan jasotako zerbait edo?

—Bai, jauna, bai, eurija botalian egiñ eban, eta nik, sekulako katarrua atrapau neban.

## «ASKOTXO»

Mendaro'ko baserri bateko morroyari «Askotxo» deitzen zieten. Iñork ez zekian bere izenik, eta bearrik ere ez. «Askotxo» gora, ta «Askotxo» bera.

Dirudianez, berak ere ez det uste bere izenik zekianik. Ara zergaitik diotan.

Igande batean, egunero bezela. «Askotxo» joan zan Mendaro'tik Deba'ra esnea partitzera. Bezero baten etxean, iñork ez zuan aurkitu dea-dar egin zuan arren, eleizara juanak noski, «Askotxo» sartu zan sukaldean eta maigañean zegoan ontzian utzi zuan esnea. Ertetzerakoan, apalean odolki eder bi ikusi zituan, eta bat kolkoan sartu ta erten zan. Esneak partitu zituanean zortziretako mezatara, joan zan, Deba'ko eleiza nagusi ederrera, ta ate ondoan gelditu zan. Meza bitartean apaiz bat asi zan sermoigiñan, zazpigarren agindua azaltzen. Eta alako batean dio «Ai, nere aditzalle maiteak, askotxok egiten du lapurretan, gaur egunean, askotxok...»



Au entzun zuanean, «Askotxok» atera zuan kolkotik odolkia, eta «Azkar jakiñ dek, ba, eta bai azkar esan ere. Nere denbora guztian odolki bat beste lapurretarik egiñ gabea nauk ba; bai? ta ara emen bera» —esan eta ur bedeinkatu ontzien gañean odolkia utzi, ta eleizatik ertentzan.

## «BAI, JAUNA»

Orañ larogei urte, nere errian ez zan telefonorik, ez telegraforik; eta auzo erri batera, berri txar edo naiz on bat biali bear ba'zan, gizon edo emakume bat bialtzen zan, au da bidazti bat, oñez joan da etorri ariñ egiten zekian batedonbat.

Esaterako personen bat gaizki ba'zegoan, eta sendagilleak, gaizki zegoala ta eleizakoak emateko agintzen ba'zuan, beste auzo errietan zituan senidietara bidazti bat bialtzen zan. Itzez egiten zuan bere zeregiña, ez kartarik, ez papeirik eraman gabe, eta geyenean itz berdiñak izaten ziran berri txar au eramateko: «Urlia, oso gaizki dagoala, eta bizirik ikusi nai ba'dezu azkar joateko»

Bidaztiari peseta bat ematen zitzayon, eta ondo ordaindua zan denbora ayetarako.

Orra bada, egun batean nere erriko jaun batek karta bat bialdu nai zuan eskuz-esku Azkoitira, ta mutill gazte bati deitu zion, eta

esan: —I, Axentxio, Azkoitira joango al aiz karta bat eraman eta beste bat ekarri egitera?

—Bai, pozik, jauna.

Neure zaldi-gañian juango aiz; zortzirak dituk, eta arratsaldeko ordu bietarako joko dek etxia. Azkoitia'n denbora gutxi galduko dek, beriala emango die erantzuna-ta.

—Bai, jauna, bai, erraz etorriko naiz ni ordu bietarako.

—Ara, ba, emen karta, Azkoiti'ko Don Jose Ignacio Etxaniz'entzat ; ta ara iretzat, peseta zuria eta artzak oraiñ zaldia eta ekiñ bidiari.

Gure mutill gaztea arro erten zan erritik jayetako erropak jantzita eta Galtzakorta jaunaren zaldi gañian. Zubi txikitik igaro zanean «Kaixo! mutill; nora ua»? —galdetu ziotenari, erantzunik eman gabe, ta len baño ariñago zaldia ipiñiaz. Napoleon bera ere arrokeri gutxiagokin joan zan zaldi-gañian, Austerlitz'en garaitu zuanean.

Azkoitiko plazara eldu zanean gelditu zuan zaldia eta an igaro zan gizon bati esan zion: —Aizu; nik Don Jose ignazio Etxaniz'enetik joan da etorri egiñ bitartean, zaldi au eukiko al'didazu?

Eta gizonak itzal aundiakin erantzun zion:

—Bai, jauna.

Orduan gure mutillak, aberatsen erara sartu eskua patrikan eta Galtzakorta jaunak beretzat eman zion peseta zuria eman zion. Nere ustez, une aretan Galtzakorta jauna bera zalakuan zegoan.

Arratsaldean, bete zeregiña bete eta zaldia kortan utzita etxeratu zanean, amak esan zion: —Axentxio, Galtzakorta jaunak pesetaren bat emango zian ba?

—Bai, ama, peseta zuri egiñ-egiña».

—Nun dek ba?

—Azkoitian zaldia euki ditan gizonari eman diot.

—Baña, mutill, peseta orrela emango uan ba?

Eta Axentxio'k, arpegi tristiakin erantzun zion:

Zer egingo nuan ba, ama, gizonak: «bai jauna», esan ezkerot?

**OLLO ZURIA**

iZelako langillea ta ederra zan ollo zuri ura!  
Berak egindako etxetxo polit batean bizi zan,  
ibarrean.

Mendi tontorreko leize-zulo batean berriz,  
azeri gaiztoa bizi zan, bere ama zarrakiñ. Ama-  
semeak, bata baño bestea gaiztoagoak ziran.

Azeri semea, aspaldian ollo zuriaren atzetik  
zebillen; baña eziñ zuan arrapatu. Eta nola beste  
pentsamenturik ez zuen, ollo zuria arrapatzea  
baizik, ez jan eta ez lo zebillen azeria, ta dana  
argaldu zan; ezurra ta azala besterik ez zuala  
gelditu zan lotsagabea.

Baña ollo zuria ez zan beste batzuek bezela  
«uxu ta axa» ibiltzen; illuntzian goiz etxeratzen  
zan, eta bere etxetik urrutira ez zan iñoiz joaten.  
Augaitik, azeria alperrik zebillen bere ondoren.

Egun batean ordea, zerbait pentsatu zuan  
eta azeri amari esan zion: —Ama, gaur ekarriko  
dizut ollo zuria. Lapiko aundi bat bete ur euki

ezazu irekiten surtan, eta apari ederra egingo degu.

—Ba dek ordua, seme zerbait egitekoa, —  
erantzun zion amak eta azeri-semea asi zan  
mendian bera, ariñ saku uts bat berakiñ zuala.

Ollo zuriak egur batzuek biltzera erten zuan  
atea kixketea utzita.

Azeria etorri zanean, atea zabaldu ta sartu  
zan barrura. Etxe danean ibilli zan bere burua  
ezkutatzeko toki billa. Lenengotik ogepean sartu  
zan, eta muturra kanpoan gelditzen zitzaion.  
Gero maipean jarri zan, eta an buztana agiri.  
Azkenez, sarrerako atean atzean makurtuta gel-  
ditu zan.

Laister etxeratu zan ollo zuria besoa bete  
egurrekiñ. Eta etxean sartu ta atea itxitzeaz  
batera ikusi zuan azeria. Ay! ura bildurra artu  
zuana ollo zuriak. Bota bertan bera, egurrak, eta  
goi-goian zeukan otarara egaz igo zan, an segu-  
ru zegoala uste izanik.

Baña azeri gaiztoak esan zion:

—Laister jatxiko zera pollit ori.

Au esanda, olloen azpian jarri ta bere buzta-  
na arrapatu nai bazuan bezela, —jira ta bira—,  
asi zan bueltak ematen.

Olo gaxoari buruko txorabiua egiñ zitzaion  
eta lurrera erori zan.

Azeriak, artu, sakan sartu, sakua lotu, artu  
bizkarrean eta mendian gora, bere etxeruntz asi  
zan. Zer nolako negarrak egin zituan olo gaxoak  
sakuaren barruan. Bere malkoekin soñean zeu-  
kan mantala ta patrikaran zituan bi sudur-zapi  
busti zituan.

Azeria pozik zijoan aldapa gora, baña egarri-  
tu egin zan. Eta sakua lurrean utzi, ta an inguru-  
ko errekatxo batera joan zan ura edatera.

Olo zuriak orduan patrikaratik guraizeak  
atera ta sakuari zulo bat egiñ da kanpora erten  
zan. Artu zuan, arri aundi bat, sartu zuan bere  
ordez sakan, josi zuan zulua (ollo zuriak, tita-  
rea, guraizeak, aria ta jostorratza beti aldian era-  
billi oi zituan) ta bizirik, al zuan aguruen, aldapa  
bera, etxeruntz iges egin zuan.

Azeria ura edanda etorri zan, artu zuan sakua  
bizkarrean eta danba-danba bai zijoan mendian  
gorabere etxera.

Zerbait urreratu zanean amari oyu egin zion  
—Amaaa! Ura irakiten prest al daukazu? Emen  
dakart ollo zuria!

Eta azeri amak erantzun zion:

—Baiiiiiii! Irakite bizian zio!

Azeria sartu zan bere etxera ta esan zion  
amari:

—Ama, kendu lapikotapa, baña zur egon, eta  
nik olloa botatzen detanean ariñ estali, iges egiñ  
ez dezan.

Esan da egiñ, azeri amak altza zuan lapikota-  
pa, ta azeri semeak sakua astindu zuanean,  
erten zuan olio zurien orde, arri koskor aundi  
batek, lapikoa okertu ta ur irekiñak erten zan  
kanpora, azeri bien anak kixkaldu zituan, eta  
gañetik erten zuen txipristiñak arpegia bieri  
dana erre zien.

Azeri biak beriala il ziran.

Olo zuria berriz, andik aurrera pakean eta  
pozik bizi izan zan bere ibarreko etxe polit txuku-  
nean.



## GURE ETXEAN JAUNGOIKOA

Garizuma Santuan, txarteletara Juan zan gizon bati Nuarbe'ko Erretore jaunak galdetu zion:

—Nun dago Jaungiokoa, Joxe Juakiñ? Eta onek, ben-ben (serio-serio) erantzun zion

—Gure etxean, jauna.

—Baña gizona; Toki guztietan dago Jaungoikoa. Ba dakizu Kristau Ikasbideak nola dion «Toki guztietan dago Jaungoikoa».

Eta Josejuakiñ'ek batere estutu gabe dio apaizari:

—Bai ba, jauna, toki guztietan dagoalako ba, gure etxean ere nai ta naiez egon bear. Ala, gure etxean ez ote dago ba Jaungoikoarentzat tokirik?

# 90

## AZERI JAUNA

Negu luze ta gogor batean, aste batzuetan lurra elurrez estaldua egon zan negu batean, Azeeri jaunak bere maltzurkeri guztiekin ere eziñ zuan jateko gauzarik ezer etxera eraman. Ollak, etzuten etxetik ertetzen, da erbiek ere ez euren zuloetatik.

Azeri jauna amorratuta zegoan. Bere emazte Andre Gezur, eta Azeritxo ta Azeri bere bi umeak gosez kurrixka batean zeuden. Eta etxea utsa.

Egun batean, basoak eta mendiak alperrik ibilli ta gero, sabela utsik eta buztana arrastaka zuelarik bere etxeruntz zijoala, bide zabalean urrutira, arraindunen gurdia ikusi zuan. Ariñike-tan menditik jetxi, gurdiari aurrea artu, ta bide zabalan erdi-erdian bere burua luze-luze bota zuan elur-gañean. Begiak itxita, agoa zabalik eta anak luzetuta.

Arrai-saltzalleak ikusi zutenean, esan zuten —Ara emen azeria otzak ilda—. Eta jatxi ziran gurditik. Batek esan zuan:

—Eraman dezagun; narrua kenduko diogu ta gutxienez amar peseta artuko ditugu Udaletxetik.

Artu zuten Azeri jauna lepotik eta anketatik, eta bota zuten gurdira, arraiz betetako otarra ta kajen gañera. Azeri jaunak kolpe edertxo artu zuan baña ixillik egon zan.

Gurdia azi zan berriro bere bidean. Orduan Azeri jaunak begiak zabaldu zituan eta bere muturran aurrean zegoan otarra ikusi zuan. Aingirez betea bera. Jan alak jan zituan eta lodienak aukeratu zituan etxera eramateko.

Beriala gurditik salto egiñ zuan eta mendian gora zijoala deadar egiñ zien arrai saltzalleeri: Ederrak zuen aingirak! Eskerrik asko. Nere narruakiñ dirurik artuko dezutenik ez uste izan, bero aundiagoak egiñ arte. Agur! Arraindun biak aoa zabalik gelditu ziran.

Bere etxera sartu zanean. Ango poza! Andre Gezur'ek su aundi bat egiñ zuan, aingirak pusketaka ebaki zituan eta erretzen ipiñi zituan. Azeri ta Azeritxo, sutondoan exerita noiz erreko ete ziran begira zeuden. Alde bietatik ederki erre ziranean pamili guzia majan jarri zan.

Apariaren erdi inguruan zirala, atea gogor jo zuten: Tan, tan, tan!

Ate-joka ari zana otsoa zan. Egun batzuetan ezer jan gabe zegoan eta aingira errien usaiñera etorri zan. Uste izan zuan zerbait emango ziotela onez-onean eta bestela berak arrapatuko zuala nai zuana.

«Tan, tan, tan!» len baño ere gogorrago.

—Nor da? Esan zuan Azeri jaunak.

—Neu; otsoa. Ez al dezute nere itzik ezagutzen

—Ez, —esan zion Azeri jaunak—. Neu garbitu nai nuan txakurra zerala esango nuke.

—Azeri jaun adiskidea, siñis nazazu; neu naiz, otsoa naiz, zabaldu ezazu atea.

—Zabalduko dizut, baña obeto ezagutzeko sartu ezazu katuzulotik burua.

Otsoa makurtu bitartean, Azeri jaunak artu zuan sutan zegoan ur irakiñez betetako lapikoa, igo zan aulki baten gañera eta ate-ondoan jarri zan.

Otsoak, ate-zulotik burua sartu zuanean, Azeri jaun gaizto saltzalleak irakiten zegoan lapikokada. ura bota zion buru-gañera.

Otsoak, aiñ gogorkeri aundiz, burua erre zitzaionean orroa aundi bat egiñ zuan. Miñan-miñez-zoratuta atera zuan burua katu zulotik, baña belarrietako azala ta buruko illeak an utzita.

Ai ene! batean, jo zuan bere etxera.

(*Guéchet'en «Maître Renard»etik euskertua*).

# 91

## PESETA BIKOA

Gu txikiak, edo obeto esateko, gastetxoak giñanean, gure aitonak esan oi zigun diru txiki edo ganbio gabe ez joateko iñora. Ara zergaitik esaten zigun ori.

Oraiñ urte asko dalarik (eun baño geyago) gure aitonak, egun batean, San Pedro Pasai'tik, San Juan Pasai'ra juan bear izan zuan, eta beste batzuek bezela sartu zan jendea alde batetik bestera ibayan igarotzen zuan ontzira. Emakume bat ontzia erabiltzen. San Juan'era eldu ziranean, beste danak, bakoitzak txakur aundi bat emakumeari emanda erten ziran legorrera. Nere aitone, ganbiorik ez zualako azkena gelditu zan eta peseta biko zuria eman zion emakumeari, ta itxaron gañerakoak artzeko. Baña emakume maltzurak leun-leun, esan zion: —Ez nuen nik gutxiago uste berori bezelako jaun bategandik — eta sartu zuan patrikaran peseta bikoia.

Nere aitonak ez zuan iñoiz emakume ura ikusi, ez zuan ezagutzen, ez zekian nor zan,

baña lotsatu egiñ zan eta ez zuan ausardirik izan ganbioak eskatzeko. Etabere artean: —Ederrak eman dizkidan oraintxe, lotsagabe orrek —esanaz erten zan legorrera.

Denbora aretan, (bigarren karlistada gudan baño, lenago) peseta bikoia diru aundia zan noski, ta nik uste det, gure aitonak bere bizi guztian izan zuala, diru aren naigabea. Oroitzen zanean, eta kontatzen zuanean, bai beintzat.

# 92

## GOGORKERI BATEN ZIGORRA

Aintziñako Hélade edo Grecia'n, Atenas zan uririk ospetsuena. Areópago izena zuan batzarrean egiten ziran legeak; batzar aretan, uriko agure zarrak batzen ziran maipurutzat.

Egun batean, menditxo baten barrenan, aizeaizetan ari ziran agureak Batzarra egiten, eta ormatxori bat, miru batek jarraitzen ziolako Batzarreko agure baten mantupean ezkutatu zan.

Agureak, bat-batean jaiki ta txori gaxua lurre-ra indarrez bota zuan. Bertan ilda gelditu zan txoritxo.

Batzar guztiak deadar egiñ zuan gogorkeri aren aurka. Nork exeri naiko zuan andik aurrera gizon gaizto aren ondoan? Bere burua aldeztu eziñda igesi etorri zan txoritxoari eriotz ori eman zion gizonaren alboan? Bai al zeikean gizon arek, Areópago'an tratatzen ziran gaiak gogo onez erabakitzen?



Laguntasun billa zetorren txoritxoari azken ura eman zion gizona, zuzena izan al zezakean?

Ondo pentsatu ondoren, Batzarrak erabaki zuan aïñ biotz gogorra zuen gizona ez zala duiñ Batzarrean exeritzeko. Eta Batzarretan itz egiteko eskubidea kendu egiñ zioten.

# 93

## JUANTXO

Juantxo'k arotza izan nai du, baña marruzari astuna irizten dio.

Juantxo'k tximini garbitzen asi nai du, baña lanbide au lotsagarria iruditzen zayo.

Juantxo'k minetan lana egin nai luke, baña gorputza aurreruntz tolostuta lana egiñ bearra gauza nekegarria dala dio.

Juantxo'k errotari izan nai luke, baña iriñ-sakuak astunegiak dira.

Juantxo'k eule izan nai luke baña ariak puskatzen zaizkio eskuetan, ardurarik artzen ez dualako.

Juantxo errementariakin asi da lanean baña mallua astunegia da eta ikatzak erre egiten du.

Juantxo'k zapatagille egiteko asmoa artu du baña, zapata-larruak aiñ dira gogorrak!

Juantxo sastre ikasten asi da, baña jostorrazakin biatzak zulatzen ditu.

Juantxo'k kristaleru ikasi nai du, baña kristalak esku-artean errazegi apurtzen zaizkio.

Juantxo'ri nekazaritza gustatzen zayo, baña, ze astuna dan atxurra.

Juantxo'k oraingoan arrantzale bizi-bidea aukeratu du, baña itxasoan mariatu egiten da.

Juantxo arakiñ ikasten asi da, baña aiztoak eskua ebakiko ote dion bildurtu egiten da.

Juantxo ogitegi batean sartu da, ogikiña izan nai dualako, baña labaldian bero aundiegia da, ta gañera berak gabaz ezin lanik egin du.

Ay Juantxo, Juantxo! Zeure gaztetasuna lanbideak ikasten igaro dezu, ta ez dezu lanbide bat ikasi. Orain ez zera Juantxo, gizondu zera-ta. Zeure bizimodua zelan irabazi bear dezu?. Zeure burua, zelan mantenduko dezu?

## GREGORITXON ZAPATAK

Errege-bezpera gabeen, egun gutxi zalarik mundura etorritako Juantxo, lo zegoan bere seaskan. Baña gela berean, bere oetxoan zegoan Juantxo'ren arrebatxoa, Gregori'txo ez zegoan lo, esna baizik.

Ara, —zion bere artean—, sei urte dira neri gaurko egunean jostallu politikak Erregeak ekartzzen dizkidatela. Baña, bai ote dakite aurten anaitxo bat detanik? Nere zapaten ondoan ipiñi det bere abarkatxoa, baña ain da gauza txikia... ikusiko ote dute? Ba'leike ez ikustea. Zer egin nezake?..

Bat-batean Gregoritzok pentsamentu bat izan zuan. Ixil-ixilik jaiki ta bere bigarren zapatabilla jua zan. Gero, artu zuan paper bat eta lapitzakin letra aundi, al zuan erako batzuekin, kartatxo au idatzi zuan:

«Errege maiteak: ez aserratu Juantxo'n abarkatxoaren orde z nere bigarren zapata ipintzen detalako. Egia esan, txikiegia da-ta.»

Tolestu zuan papera ta sartu zuan bere bigarren zapatan erdi agirian zalarik, eta ondo ikusteko lekuan, berearen ondoan utzi zuan. Beriala sartu zan oera ta loak artu zuan.

Gaberdian, Erregeak igaro ziranean ikusi zuten bigarren zapata eta baita kartatxoa irakurri ere. Eta asko poztu ziran Gregorixok bere anaitxoa asko maite zualako. Augaitik, zapata bietan, zituzten jostallurik ederrenak utzi zituzten.

**GALDERA BATZUTEK**

Alemania'ko errege, Fréderik Aundiak, bera zaintzen zuten soldadoen artean berri bat ikusten zuan bakoitzean iru gauza abek galdetzen zizkion: —Zenbat urte dituzu? Noiztik zaude nere guardian? Zeure soldata eta soñekoak bear bezela artzen al dituzu?

Mutil gazte prantzes bat sartu zan Erregeren guardian, alemanez tautik ere ez zekiana. Kapitanak esan zion Erregeak ikusi beziñ laister iru galderak egingo zizkiola eta iru erantzuerak buruz ikusteko agindu zion.

Ikasi zituan ederki, ta urrengo egunean Fréderik Aundia'k ikusi zuanean, zuzen-zuzen beregana juan zan. Baña galderak lenengotik asi bearrean bigarrenetik asi zituan eta galdetu zion:

Zenbat denbora da nere guardian zaudela?

—Ogeitabat urte, —erantzun zion soldadoak.

Erregeari txokatu egin zitzayon, orrenbeste urtean bere guardian egon da berak ez ezagu-

tzea ta gañera orretarako gazteegia iritzi zion da galdetu zion:

—Zenbat urte dituzu bada?

—Urte bete, nere Errege jauna.

Erregeak orduan gogor esan zion:

Edo zuk edo nik burua galdu degu. Soldaduak, itz abek irugarren galdera zalakoan, erantzun zion

—Naiz bata edo naiz bestea, jauna, neure Erregea serbitzeagaitik.

## **SALOMON ERREGA TA TXINDURRIAK**

Bein batean, Salomon errege, jakintsu aundia Jerusalem'etik erten zan bere jauregiko gizon askorekiñ, bera ikustera urrutitik zetorren Saba'-ko erregiñari bidera ertetzearren.

Alkar ikusi ta agurtu ziranean, Salomon, erre-giñaren alboan jarri zan eta danak Jerusalem'era zuzendu ziran.

Bidean txindurri-abi aundi bat billatu zuten, lur tontor baten barrenean sarrera zuala.

Txindurriak, arrisku ura igerri zutenean danak zoratuta bezela alde batera ta bestera azi ziran eriotzatik iges egitearren.

Salomon jakintsuak txindurriaren izketa ere bai zekian, diotenez, eta aditu zuan alkarri nola zioten:

—Salomon errege aundia dator, ondoren aundiakin, zaldi oyen ankazpian da, gaur, gure azkena.



Salomon'ek esan zion Saba'ko erregiñari txindurriak ziotena eta onek erantzun zion:

—Zer zorion aundiagorik itxaron leikie ba txindurri zirkil oyek, gure zaldien ankapean iltzea baño? Ez luteke zu bezelako errege bategaitik ezer esateko ausardirik izan bear.

Orduan Salomon'ek esan zion erregiñari: —Aundiak eta alsuak txikien eta indargabearen ardura ta errukia bear dituzte, —ta au esanaz bere zaldiari bide bat eman zion, txindurriak ez zapaltzearren.

Erregiñak orduan igerri zuan Salomon'en jakinduria ta aunditasuna nolakoak zidan, eta esan omen zuan:

—Zorionekoa orrelako erregea duan erria: Aundikien labankeriarri baño txikien esanari jaramon geyago egiten dion erregea.

## SALOMON ERREGAEA TA LOREAK

Saba'ko erregina Salomon ikustera joan zanean, erregearen jakinduria egiazkoa zan ala ez ikustearren, ara zer egin zuan:

Eraman zituan lore sorta eder bi, bat lore biziakin egiña, au da, loretegian ebakitako loreakin egiña, eta bestea argizarizko loreakin egiña. Lore batzuek benetako loreak, eta besteak positizuek, baña ederki egiñak, bene-benetakoak ziruditenak.

Erregeren jauregiko gela aundi batean utzi zituan ontzi banatan sartuta.

Gero Salomon'eri deitu zion eta lore ontzieta-tik urruti xamar zegoalarik esan zion:

—Zure jakintasuna dioten ainbestekoa baldin bada, ezagutuko dituzu lore oyek. Esan egidazu bada, zeintzuk diran Jaungoikoak egiñak, eta zeintzuk diran gizonen eskuz egiñak.

Salomon'ek erantzun zion: —Laister esango dizut, erregiñ aundia, —eta leyoak zabaltzeko agindu zuan.

Leyoak zabaldu zituztenean erleak sartu ziran gelara, ta zuten-zuzenean, benetako lore-tara juan ziran danak, lore postizuari jaramonik egin gabe.

Salomon'ek orduan esan zion erregiñari:

—Eskerreko loreontzikoak dira Jaunak egin-dako loreak. Ala diote beintzat erleak, eta oyek gai orretan ni baño jakintsuagoak dira.

# 98

## SAPABURU

### ARRAUTZOPILLA

Izan al zerate iñoiz Bizkai'ko Gaztelu-Elexabeitia izena duan erri politean? Arratia izena duan luraldean dago, oso erri polita da eta bertako biztanleak, Arratia'ko danak bezela, oso eleizkoi ta euskaldunak dira.

Orra ba, Gaztelu-Elexabeitian erriko jaiak, agorreko Amabirjiña egunean izaten dira, baña gaztelu-elexabeitia'tarrak iru egunen egiten dituzte pestak, eta irugarren egunekoa, arratsaldean errian diran zapatagille, arotz, igeltzeru eta abar bizibidietako gizonen pesta izaten da. Erriko bistanle geyenak nekazariak dira.

Orañ berrogei urte inguru jaietako irugarren egunean bost gizon batu ziran, nekazariak ez ziranak, eta pentsatu zuten ibaian, amorraiak, barguak, eskalluak eta abar arrapatu eta erriko tabernan aparti-merienda eder bat egitea. Agua-zillan emaztea aukeratu zuten sukaldeko lana egiteko. Bost abetatik bat zapataria zan, eta

praille izandua zalako, Praille deitzen zioten errian.

Ibaian arrantza ederra eginda, bost gizonak joan ziran tabernara, eta seiretan apari-meriandara etortzekotan gelditu ziran. Baña seiretan lau gizon bakarrik agertu ziran; Praille palta.

Batek esan zuan: —Gu ez gaozak aren begira, bai? ta jan egiñ biajuagu.

Beste batek: —Ordua izentauta egon dok eta etorri baño etxauk euki. Praille orrek. Jan egin biajuun. Eta orrela beste biak.

Eta ala, sei ta erdietan apari-merienda guztia jan zuten, Praille'ntzat ezer utzi gabe.

Zazpi ta erdietan omen dator Praille, ta ikusi zuanean bera apari-merienda gabe utzi zutela, asi zan orroaka ta oso aserratuta burla ori egin ziotelako.

Patxi izena zuan, igeltzerua juan zan orduan azkar sukaldera ta kosiñerari galdetu zion: —Zu, etxatzu ezebe gelditu ala?

—Ez niri, zeuek esanda lez arraiñ danak imiñi dodaz. Sapaburu batzuk dagoz emen. Ontxen niñoyan kortara botatxera.

—Ez, ezeixuz bota, andre, pare bat arrautze-gaz, arrautzopill bat egiñ da eruan eijozuz, Praille'ri—. Eta sukaldetik etorri zanean osan zion: —Ago ixillik, mutil, iretzako be bajaok zerbait eta.

Kosiñerak ekarri zuan arrautzopilla ta baita Praille'k pozik jan ere. Eta kafia artu zutenean, batek esan zuan:

—A, mutillak, brindis bat egiñ biar juagu.

Ta Patxik erantzun zuan: —Neuk egingo juat.

Beste danak esan zioten: —Bai, egiñeik euk, euk dakik erdera geyen da. (Brindisak erderaz bakarrik egiten zirala uste zuten nonbait).

Esan-da-egin, jaiki zan Patxi igeltzerua, ta ben-ben esan zuan: «Brindo por el Padre Bartel, que ha comido sapaburus en el sartén».

Gero pesta ondo bukatzeko, tabernako atarían erromeria egiñ bear zutela pentsatu zuten eta Eujeni ekarri zuten panderua jotzeko. Eujeni, Gaztelu-Elexabeitia'ko andre ospetsu bat zan, panderua jotzen ederki zekiena, aintzinako kanta zar asko zezkiana, bai ta euskaldun esae-ra zar asko ere. Erromeriako kanta asko zezkian, euskeraz, baña brindis erderaz egiñ zutelako

edo: —Eujeni, gaur erderaz kantau biozu —esan  
zioten.

Eta Eujenik zekian erderazko kanta bakar au,  
aspertu arte panderua joaz kantatu zuan

*«Alámoda la moda,  
Que no, que no, que  
Errebira, errebira  
Bibá Sandroque.*

«Angelus'akin batean danak etxeratu ziran,  
gure Euskalerrri maite onetan len oitura zan  
bezela.

**BETAURREKOAK**

Altube'ko Paustiño, gizon agurgarriak, betaurreko batzuek erosteko asmoa zuan jundaneke urtietan. Batez ere, Meza nagusian bera beselako gizon zarrak betaurrekoak ipiñi ta ederki liburutik Kredoa, ta Santusa-ta, abestutzen ikusten zituanean.

—Neuk ere kostiak-kosta ekarri bear ditut ba betaurreko batzuek, bai; aurtengo udaran betaurrekoen jabe egiñ bear naiz. Gure Maxabel'ek bañu-etxetik ekartzen duan diru preskua gastatu bañu len erosi bear ditut.

Altube Ormaiztegi'ko baserria zan, Donosti'tik, ez aiñ urruti noski, ta Paustiño'k Donostira sarritan juateko oiturarik ez ba'zuen ere Santo Tomas'eko peri ikusiaz, urte artan joan zan, betaurrekoak erosteko asmoetan.

Avenida'ko denda eder batean sartu zan eta irakurteko betaurrekoak eskatu zituan.



—Emen ez degu, betaurrekorik saltzen, baña ara or aurrez-aurre Gorosabel, berarizko denda; or aurkituko dituzu, esan zioten.

—«Eskerrik asko, esan da, joan zan Paustiño Gorosabel'enera, eta —Betaurrekorik ba al dezute? galdetu zuan.

—Bai, bai, —erantzun zion nagusiak.

—Ekatzuz bada, irakurtzeko —esan zion Altube'ko Paustiño'k. Dendariak, billatu zituan lau edo bost betaurreko eta eman zizkion. Baita ere liburu bat emanaz esan zion:

—Ara, euskerazko liburua, ia nola irakurtzen dezun. Paustiño'k ipiñi zituan betaurrekoak, artu zuan liburua eta betaurrekoak kenduaz, esan zuan:

—Nik ez det abekiñ irakurtzen.

—la beste abekiñ.

—Ezta ere.

—la ba beste abek.

—Danakiñ berdiñ, ezin det irakurri.

Dendariak, zerbait arriturik artu zion Paustiño'ri liburua eta goikoaz bera zegoala ikusirik, esan zion: —Aizu, adiskide: bai aldakizu irakurtzen?

Eta Altube'k orduan erantzun zion goi xamarretik: —Alajaña! Irakurten ba'neki ez nuke nik zure betaurrekoen bearrik! Zertarako nituzke bada irakurten jakiñ ezkeru?

# 100

## ERAKUTSI ONA

Orain idaztera nuan ipui au, ez da nerea, mexicotar Don Vicente Riva Palacio, idazle ospetsuarena baizik: Polita dalako, ta neure semea Riva Palacio jaunaren illoba baten senidea dalako dakart euskeratuta ipui abetara.

Mexi'co'ko egoaldean bero aundia egiten du Mexico'tarrak lur beroa deitzen diote. Lurralde orretako erri txiki batean, orain urte asko dalarik, Don Lucas Forcida izena zuan jaun on bat zuten eskola maixu. Erriko biztanleak oso maite zuten eskola maixu au. Ainbeste urtean egun batean ere ez zuan bere eginbearra utzi.

Don Lucas, bakarrik bizi zan; tira, bakarrik ez, morroitxo batekiñ eta emen «lorito» esaten dioten txori batekiñ. An, Mexico'n egazti oyeri, «periquito» deitzen diote.

Don Lucas'en etxea, eskola zegoan lekuan bertan zan, eta loritoentzat, eskolako ate gañean zeukan leku polit bat, kerizpean, eta

eskolako mutil koskorren eskuetatik urruti; bada ezpada ere.

Arratsaldeko bostetan mutillak eskolatik erteten zutenean, Don Lucas'ek kalera erten oi zuan; sumitzezko silloi aundi batean exeri, eta txokolatea artzen zuan. Berak eta «lorituak» erdi bana; oso maite zuan bada Don Lucas'ek egazti berritxu ura.

Don Lucas eskolan ari zanean loritua ixil zamarririk egoten zan; naikoa ziran mutil koskorrak egun guztian esaten zituzten kantak, bada sasoi aretan eskolan gauza guztiak kantuan ikasten ziran, nai Kristau ikasbidea, nai «Bi bider bi, lau, Bi bider iru, sei... nai irakurten ikasteko letrak... Dana kantuan, eta kantuen bitartez. Baña kantu triste ta aspergarria. Eta Don Lucas gizajoa, berrogei urtean egunero kantu ayek belarrian zituala bizi zan.

Baña arratsaldeko bostetan kantuak ixiltzen ziran eta Don Lucas eta bere egaztiak alkar maitatzen zuten. Don Lucas'ek ematen zizkion txokolatean bustitako ogizatiak eta «lorituak» zekizkian berritxukeri guztiak esaten zizkion.

Eta au onela izaten zan arratsalde guztietan.

Urte batzuek onela igaro ziran eta Don Lucas'ek ain maite zuen «loritua» eta aiñ zegoan siñistua lorituak ere bera maite zuala. Augaitik ez zion egorik ebaki.

Egun batean, goizeko amarrak inguruan, mutil batek deitu zion Don Lucas'eri: —Maixu jauna, maixu jauna! «Perico» igesi dijua— Don Lucas eta umiak erten zuten ariñiketan atera, eta ikusi zuten «perico» bizirik al zuan aguruena egazka nola zijoan eskergabe ura, andik urrutira ikusten zan baso batera, mexico'tarrak *Huasteca* —esaten dioten basora, bera bezelako millaka ta millaka egazti berritxuz beteta zegoan baso batera.

Ezin zeikean igesi zijuana arrapatu eta Don Lucas gizajoak, barrun-barrundik erten zion zotiñean «Jaunak nai duana izan bedi» —esan eta eskolaratu zan, eta gauza negargarri ura gertatu ez ba'zan bezelaxe, bere lanari jarraitu zion.

Udarako oporrak eldu ziranean, Don Lucas'ek auzo erri batera Juan bearra izan zuan. An, auzo erriak, irurogeita amabi edo larogeitalau kilometro bidean daudenak dira, ta Don Lucas egun-sentian erten zan bere etxetik zaldi-gañean.

Arratsaldeko ordu biak aldian Don Lucas *Huasteca* esaten dioten baso ingurura eldu zan. Txoriak eta piztiak beroaren-beroz zugatzen kerizpean lo sorroan zeuden, ixil-ixilik, ilda beze-la.

Bat-batean, Don Lucas'ek bere eskolan ete zegoan uste izan zuan, bada argi ta garbi entzuten zuan bere mutillen eskolako kanta: —«la, le, li, lo, lu; ba, be, bi, bo, bu; erre a ra, erre e re...».

Arrituta, zaldia gelditu zuan, eta basoruntz begira jarri zan. Berialaxe basoko zugatz batzuen abarretatik «lorito» mordo bat jaso ta egazka asi ziran «erre i ri, erre o ro, erre u ru...», astiro astiro kantatuaz. Egazti pilloa bere buruan gañetik igaro zan, eta danen atzetik beste lorito bakar bat zetorren, eta Don Lucas'en urretik igaro zanean, alai-alai esan zion: —«Don Lucas nik ere ba daukat eskola».